



# ttipi-ttapa



INAUTERIAK gehigarria / 27



Luziano MITXELENA IRATZOKI | Lesakako txirrindularia

## «NEURE BURUARI GOGOR EGITEAK IRABAZTEN LAGUNDU DIT»

47 urterekin eman zituen lehenbiziko pedalkadak eta geroztik ez du bizikleta utzi. 20 urteko ibilbidean, beteranoetan, 12 aldiz irabazi du Quebrantahuesos proba, bortz aldiz Euskal Herrikoa eta hirutan Espainiakoa. / 8

## U-30: greba orokorrerako eguna

Lan-baldintza, pentsio eta bizitza duinaren alde Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak lanuztea deitu du hilaren 30erako. / 10

### SINADURAK



XABAT ILLARREGI MARZOL / 3



AITOR AROTZENA ALBIZU / 3



IZASKUN IGOA JAIMERENA / 4



AMAIA LLUJANBIO GOIZUETA / 4



Josune Sorando Odozola  
72873152-A  
202104  
372

ZOZKETA / 64



**Bardoak taldekako bertso ekimena urtarrilaren 31n hasiko da** / 39



**EH Mendi Erronkarako izen-ematea otsailaren 1ean irekiko dute** / 43

**(H)ilbeltza beka deialdia egin dute laugarren urtez Baztanen** / 48

**Artiletik ongarrria sortzeko proiektu pilotua abiatu dute Baztanen** / 49



# IKASTOLA

BAZTAN · LESAKA · BERA

herritik  
sortua, herriarentzat

AURREMATRIKULAK  
OTSAILAREN 3TIK 7RA

hezkuntza eredu propioa  
eraldatzailea  
euskaran ardaztutako aitzindaritzako pedagogikoa  
euskal curriculumak  
ikasmaterialgintza propioa  
eleaniztasuna  
kooperatiba  
auzolana eta elkartasuna



## BILERA INFORMATIBOAK

**BAZTAN IKASTOLA**  
Urtarrilak 29 / 17:00etan  
Parkeko Ikastolan

**TANTIRUMAIRU IKASTOLA**  
Urtarrilak 31 / 17:00etan  
Tantirumairu Ikastolan

**LABIAGA IKASTOLA**  
Urtarrilak 31 / 17:00etan  
Labiaga Ikastolan



## NIRE TXANDA

XABAT ILLARREGI MARZOL

### Aitzakiarik ez

Ez da hilabete bat igaro urteroko legez Olentzero eta Mari Domingi zetozenaren aitzakian mahaiaren bueltan elkartu ginela 24 eta 25ean. Sei egun besterik ez genituen behar izan berriro ere familia, etxeko edo lagunekin elkartu eta bi otordu handi eta luze egiteko, 31 gauetz eta ilbeltzaren lehenean, eguerdiz. Eta nola ez, tartean, parranda. Hau nahikoa ez eta urteko bosgarren egunean ere kaleetako tabernak lepo egiteraino bete ziren gauetz, eguzkia atera artean irauteko asmoz. Ordura artekoarekin konformatu ezinean ordea, ohikoa izaten da hurrengo egunez bazkaria edukitzea familiarekin. Hori bai, behin Gabonetako oporrak bukatuta, ustez parranda, bazkari, jan eta edan luzeekin bukatzen dugu, eta berriro ere ohiko errutinara itzultzea espero dugu. Baina ez! Orain inauteriak datoz! Hasi da orain ere inauterien denboraldi luzea, eta hauekin batera berriro ere otorduak, parranda, festa... Argi dago euskaldunok edozein aitzakia bilatzen dugula festarako, eta argi dago festarik egiten ez duenak aitzakiarik ez duela ez egiteko.

**«EUSKALDUNOK  
EDOZEIN AITZAKIA  
BILATZEN DUGU  
FESTARAKO»**



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

### Haurrak baino makurrago

Etxe batzuetan Olentzerok, bertzeetan Erregeek, beharbada bakarren batean Aita Noelek, edo Santa Klausek... Zeinek ekarri baino, eskatutakoa etxean izateari gehiago begiratzen diote umeei. Baina bada etxean agintari izandako haur bat, urtetan erregeei eskatutako polizia-autoa inoiz ailegatu ez eta orain Olentzerok anaia tikiari ekarri dionean haserretu dena.

## NABARMENTZEKOAK



**TXOMIN  
MINDEGIA**  
DONEZTEBE




**JUAN MARI  
IRIARTE**  
BERA

30 urte baino gehiagotan Doneztebeko Mendaur institutuko eta San Miguel eskolako atezain izan den Txomin Mindegia joan den abenduan hartu zuen erretiroa.

IFEMAK eta *Expansion* egunkariak enpresa tiki eta ertainei ematen dieten sarien artean, ekintzaile onenaren saria eskuratu du Juan Mari Iriarte gozogle beratarrak.

## ATZERA BEGIRA



2010-01-21 · TTIPI-TTAPA · 510 zk.

### Amaia Lujanbio ikerlari goizuetarra

Gibeiko minbiziaren ikertzailea da Amaia Lujanbio goizuetarra New Yorkeko Mount Sinai ospitalean eta duela bost urtetik laborategi propioa du. Hamar urte daramatza New Yorken, eta 2010ean TTIPI-TTAPAK elkarriketa egin zionean hantxe zebilen. Minbiziaren kontrako ikerketaz aritu zen, «aurrerapen asko» egin direla «baina hala ere, oso arazo serioa» dela adierazi zuen. «Prebentzioa eta diagnostiko lasterra oso inportanteak dira», azaldu zuen. Gehiago ere kontatu zuen: «Minbiziaren kontrako arma boteretsuena tabakoa uztea da. Biriketako minbizi kasuen %90 tabakoaren erruz sortzen dira. Ahalegin asko egiten ari gara minbizi gelditzeko baina bada zerbait denon esku dagoena: tabakoa uztea».



**Argitaratzailea**  
Ttiipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttiipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea  
Nerea Bazterrika  
Eneritz Iraola  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
Usua Vicente  
**Berriemakileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,  
Maider Petirena, Oihana  
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,  
Pablo Irastortza, Mattin Larralde,  
Juan Mari Barriola, Inigo Imaz,  
Marga Erdozain, Maitane  
Maritorea, Arantxa Iturralde,  
Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,  
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,  
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,  
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier  
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione  
Mindegia, Olatz Mutuberria.

**Fundazioaren Presidentea**  
Pello Apeztebea  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia  
  
**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senperoko udalak,  
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,  
Zugarramurdioko Akelarre elkarte  
  
**2020ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi 39€  
eta Malerreka 28€  
Leitza 28€  
Hego Euskal Herria 47€  
Ipar Euskal Herria, Europa 86€  
Amerika eta Australia 139€







## KOLABORAZIOAK

IZASKUN IGOA JAIMERENA

## Forma eta edukia

Norbaitek martxan jarri behar duen abentura bat kontatzen duenean, aunitzetan abentura horren kanpoaldea neurtzen dugu abenturatzat hartzeko edo ez. Gehienetan bidaia exotiko batek tartean egon behar du gutienez. Edo pertsona guti ailegatu diren xokoren bat, gero ahalik eta pertsona gehienei erakusteko. Aske sentiarazi gaituen espazio eta denbora bat, gure egunerokoan kabitzen ez dena.

Arau berdinarekin neurtzen ditugu gure bizipen propioak gero. Kanpoalderantz zer islatzen duten pentsatuz. Kanpo-koak ikusiko duena da neurgailua.

Esperientzien formek elikatzen dute gure irudimena, halaxe bizi oso bat imajinatzen dugu WhatsApp-ean paratutako irudi batetik ere. WhatsApp edo bertze edozein tiritira «sozial» delakoan.

Argazkietatik imajinatu dugu, zenbat eta zenbat gauza egin dituen batek Eguberrietan, zenbat tokitan egon den bertzea aurten, ze su ederren aitzinean dagoen hura, ze mendi, ze berde, ze ur azuletan, zenbat jendekin dagoen, zenbat irri argazkiaren segunduan, ze postre, ze eguzki izpi, ze zeru, ze instrumentu, ze konpainia, ze monumentu, ze, ze... ez dakit zenbat ze gehiago. Harritzekoa da ere inork elkartzeko erabiltzen ez dituen zenbat plaza agertzen diren argazki

### «ARGAZKIAK NOLAKOAK LIRATE- KEEN PENTSATUZ BALORATZEN GARA»

Ez dugu imajinatu, harreman bati iraupena nola eman edo bukaera nola moztu ez jakinez goititu duela batek mendia. Munduko ur ederrenetan, uretara joan denarekin haserreturik zegoela bertzea. Bidaiako helmugan baino hobe pasatu duela joateko eta bueltarako bidean. Erakutsitako argazkian ez duela erakutsi nola dagoen. Zer pentsatzen duen. Zerk betetzen duen. Zerurik erakutsi ez duena airean sentitu dela momentu honetan. Eta bertzea lurrean. Berdin du. Gauza ez da orain dena normalean egiten dugunetik aldrebes pentsatzea. Ez dudana ongi ulertzen zera da:

Zenbat gauza erreal ez ditugun imajinatzen argazki ideal horietan. Azken batean, argazkia zuk erakutsi nahi duzuna da. Erakutsi nahi duzun errealitatearen zati ñimiño bat. Baina behin eta berriz atzentzen zaigu eta gure momentuen argazkiak nolakoak izanen liratekeen pentsatuz baloratzen gara, momentua zerk betetzen duen ohartu gabe.

Testu honen formak ere luzera bat eskatzen du eta beti ez da hain erraz betetzen bat ez dagoenean edukiz horniturik. Bertzei buruz aritzen zara orduan, eta noizean behin, komeni zaizunean, lehen pertsona pluralean sartzen duzu zure burua.

Nire buruari gauzak errateko forma bat baino ez da.



AMAIA LUJANBIO GOIZUETA

## Hitz madarikatua

Euskarak hitz eder eta poetiko aunitz baditu: il-argia, harr-emana, maite-mindu, etxeko-andrea. Badira beste hitz batzuk, naiz eta poetikoak izan, zailtasun gehiagorekin esaten direnak. Adibidez, heri-otza hitza entzun eta, odola bat-batean hozten zaigu. Min-bizi hitzak, berriz, gure bizitza goitik-behera astintzen du. Minbiziaren kasuan, posible denean, beste hitz batzuk erabiltzen ditugu: bultoa, gaixotasun luzea... Posible ez denean eta minbizi hitza erabili behar dugunean, berriz, gure ahotsaren tonua jaitsi egiten dugu, zurrumurru bat bezala, ozen esan eta errealitate baiezatutako bagenuke bezala. Minbizi hitzaren ondorio kaltegarriak beste hizkuntza eta kulturetan ere aurkitzen dira. Hitzek guk uste baino botere handiagoa dute eta.

Minbiziaren denboraren hasieratik existitu izan da. Grezian, orain dela bi mila urte baino lehenago, Hippocrates mediku famatuak minbiziari *karkinos* (karramarro) deitu zion, tumorea karramarro baten oskola bezain gogorra eta haren zimikoa bezain mingarria delako. Gure arbasoek, Hippocratesen antzera, minbizi deitu zioten, gaixotasun mingarria delako eta berezko bizi duelako. Gure arbasoek, nahiz eta minbiziaren esanahia eta sorburua ez ulertu, minbiziaren ondoreak ederki antzeman zituzten. Mende askotan zehar,

### «HEMEN ERE MINBIZI HITZA NORMALIZATU BEHARKO GENUKE»

aurkitu ziren, kasu asko sendatuz. Mende honetan, izugarriko aurrerapenak egin dira, minbiziaren askoz hobeto ulertzen baitugu, eta tratamendu berri asko sortu dira, sendaketak hobetuz. Hala ere, ia lehenagoko izuarekin esaten dugu minbizi hitza. Eta ez gara konturatzen guk nola erabiltzen dugun minbizi hitzak eragin txarra izan dezakeela gaixoetan. Ez da arraroa gaixoen beldurraz aparte lotsa eta kulpa sentitzea.

Nik, nire lanean, minbizi hitza (edo ingelesez eta gaztelan *cancer*) egunero erabiltzen dut, milaka aldiz. Guk minbizi ikertzeko saguak erabiltzen ditugu eta hitzak kontzeptu abstraktuagoa hartzen du. Minbizi hitzak esanahi ezberdina dauka niretzat, nire eguneroko lanaren zati bat baita. Eguneroko ordu pila bat igarotzen ditut minbiziari buruz pentsatzen, hobeto ulertu eta nola menperatu ikertzen. Zenbat eta gehiago jakin minbiziari buruz errazago izanen da estigmatikoa ahaztea. Estatu Batuetan *cancer* hitza normalizatua dago, minbizi gero eta hobeto ulertzen dugulako. Hemen ere berdin egin behar genuke, gaixoen eta gaixotasuna ulertu.

medikuek minbiziari aurka egiteko errekurtsorik ez zeukaten, jakinduria eta tresnak murrizak ziren eta. Aurreko mendean, nahiz eta minbiziari buruzko jakinduria nahiko murrizta izan, tratamendu mota asko



## 11 GALDERA LABUR

UGUTZ ZELAIETA OIZKO ALKATEA

## «Aitzineko alkateak egindako lanarekin segitzeko asmoa dut»

### Nor da Ugutz Zelaieta?

Lesakan bizi den oiztarra.

### Zein dira zure zaletasunak?

Ehizan edo arrantzan ibiltzea gustatzen zait eta, gezurra dirudien arren, sukaldean ere gustura aritzen naiz...

### Abenduaren 7az geroztik Oizko alkate zara. Nola animatu zinen taldean sartzeraz?

Egia erran azken momentuko erabakia izan zen, taldea osatzeko beharra ikusita egin genuen... Ez nuen uste boto gehien nik lortuko nituenik ezta inoiz alkate izanen nintzenik ere... Hala ere, kargua gogotsu eta ilusioz hartu dudala erran dezaket.

### Zein dira agintaldi honetarako-zeure buruari paratu dizkiozun erroka nagusiak?

Etorkizunean ez dut gehiegi pentsatu baina aitzineko alkateak lan ona egin zuen eta bide horretatik jotzeko asmoa dudala erran dezaket. Egia erran hori lortuz gero konforme naiz.

### Zein dira Oizen ikusten dituzun beharrak?

Behar handirik ez dut ikusten, aitzinekoek gogotik lan egin dutelako. Denbora pasa ahal sortuko dira eta orduan ikusiko dugu...

### Lesakan bizita nola moldatzen zara?

Alde horretatik ez dago arazorik, ia egunero herrira joaten naiz eta... Gainera, taldekideak laguntzeko prest daude eta guztien artean moldatuko gara uste dut.



### Oizek 2000n 144 biztanle zituen; 2018an, berriz, 121. Zer sentitzen duzu hori aditzean?

Pena da baina, aldi berean, ulertzen dut herritarrak aukera gehiago duten tokietara joatea...

### Sarri herriko inauteriak dituzue. Joaten al zara herrira?

Egun horietan giro eta saltsa polita izaten da baina ni ez naiz arront inauteriazalea. Badira hamar urte behintzat ez naizela joan...

### Zer du Oizek Lesakak ez duena?

Herri bakoitzak bere berezitasunak dituen arren, ez da diferentzia handirik...

### Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Bi semeak zoriontsu ikustea aski dut ni ere zoriontsu izateko.

### Amets bat?

Ez dira gutxi... Orain bat aukeratu beharko banu Oizek laxoako txapela irabaztea eskatuko nuke. Ea agudo betetzen den!

Merkealdia

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak  
Mantelak  
Kuxinak  
Edredoi nordikoak  
Ohe estalkiak  
Mandireak toailak  
Edredoi-azal nordikoak



## IRAKURLEAK MINTZO

### Eskerrik asko

#### XANTA SOUZA

Badira 22 urte Brasiletik Lesakara etorri nintzela. Nire sorterrria eta familia utzi nituen, nire sentimenduei jarraituz, bertze bide berri bati hasiera emateko. Bide horretan, dena berriz ikasi behar izan nuen: hizkuntza, ohiturak, kultura, lana... ikasi bakarrik ez, Lesaka maitatzen dut Brasil bezala. Urte hauetan guztiotan familiarik urrun egotea zaila izan da. Gure amak arazoei aurre egiten erakutsi zigun inoren gainetik pasa gabe eta horri esker, aitzinera egin dut eta nire ametsak betetzeko indarra ere eman dit.

Nire ondoan pertsona onak izan ditut eta horiek ere lagundu didate. Nire ametsetako bat nire kontu lan egitea zen. Momentu pertsonal zail bat bizitzen ari nintzela, Antoiu ostatua alokatzeko aukera izan nuen eta urte batzuk bertan lanean aritu naiz. Aunitz ikasi dut denbora honetan. Gaur egun, bertze ostatu bat alokatua dut gauza berriak egin nahi ditudalako. Hilabete honetan Antoiu utziko dut baina bertan bizitutakoa eskertu gabe ez dut joan nahi. Eskerrik asko tarteka edo egunero etorri zareten guztioi. Zubiria eta bere familiari niregan izan zenuten konfiantzagatik eta zuei esker Antoiu alokatu nuelako. *Obrigado aonde voce esteja.*

Biziak erakutsi dit etsia ez dela hartu behar eta aitzinera egin behar dela.

### Euskal Kantu Zaharren Eguna 2019

#### JON BARANDIARAN

Denbora iragan da urteroko zita burutu genuenetik, baina ez nuke utzi nahi festa zoragarri hau posible egiten duten guzietan gorazarre xume bat egin gabe.

Azaroko azken larunbata dagoeneko berezia dugu festa honen jarraitzaileok, urteko jaiegun handien parekoa, huts egin ezinezkoa. Baina festa hau deus ez litzateke haren sortzaile den Angel Mariezkurrena izan ez balitz, honen

buru eta bihotzetik sortu baitzen lagun artean kantatzeko ohitura zaharrari horrelako espresabide bat eskaintzea. Arrakasta ikusirik, hainbat kantaldi antolatzeari ekin dio Angelek azken urteetan, ustekabean lehen lerroko kultur eragile bihurtu delarik. Txalo eta errekonozimendu berezi bat, Angeli. Euskal kulturak berarekin zor bat duela esatea ez zait sobera iduritzen lagun artean kantatzeko ohitura zaharra berriz sasoiko den honetan, honen biziberritzeko saiakeran aitzindari izan baitzen eratsundarra.

Hurrengo Aitor Ibarra, *Jalisko* tronpetat-jotzaileari. Musikari ona bezain gidari bikaina. Jaiaren arima, Angelekin batera. Azken edizio honetan, osasun eragozpen batzuekin aritu bazen ere, ez zuen hutsik egin sunbillarrak. Txaloak birritan, beraz.

Ekitaldiaren hasieran omenaldia egin zitzaion jaialdiaren babesleei. Bereziki, Urzante, Arbizu eta Martiko etxeei. Pozgarria ez ezik, deigarria ere babesleetako bat Nafarroa hego-hegotik, erriberaren bihotzetik, Ebroaren hego ibaiertzetik etorria zela ikustea. Txalo bat beraiei, eta gainerateko babesle guzietan. Txalo bat Aitorren gidaritzapean jardun zuten musikariei; Frantzis Santxotena, Txema,... barkatu denen izenak ez oroitzea.

Beren musika aireekin aise sortzen da kantu eta dantzarako gogoia. Txalo bat Zubietako joaldunak, Leitzako dantzariak, Bankako Menditarrak, Aitor Mendiluze bertsolaria, eta Jaione Olazabal eta bere familiari (harrobi bikaina ari dira sortzen boz mirezgarria duen Aresoko kantaria eta haren senarra). Guztien ekitaldiek leku berezia irabazi dute Dantxarineko hitzorduan. Zenbat artista isil, eta maiz ezezagun, ditugun pentsarazi behar liguketan adiskide sorta.

Esker oneko txaloa Venta Peio eta Lugarana jatetxeko arduradun eta langileei, beren lana halako adeitasunez burutzeagatik. Eta besarkada bat, azkenik, festan parte hartzen duten guztiei, denen artean betetzen baitugu kantu, dantza, umore eta lagunartez. Oroitzapen bat ere parte hartu nahi luketen, baina espazio faltagatik, sarrera txartel gabe geratu direnei. Izan ere, antolatzaileek ahaleginak eta bi egiten badituzte ere, Lugaranako jangela ederra txiki geratu baita etorri nahi luketen guzientzat, ekimenak lortu duen arrakastaren lekuko. Nork esan behar zion halakorik Angeli duela 16 urte, Sunbillako elkarte batean, lehen kantu bazkaria antolatu zuenean!

## BOTA BERTSOA

### AMAIUR GOÑI ELORTZA

BERAKO BERTSOLARIA

### Pentagrametan

Doinua: Iparragirre abila dela

*Akordeoa ta trikitixa txistua eta pandero.  
Bateria baita pianoa gitarra jotzaile ero.  
Bakoitzaren soinua.  
Akordeen keinua.  
Normala dugu gargero.  
Guk txoko guztietan entzuten  
bait dugu ta egunero.*

*Pertsona orok dauka barnean musika sortzeko giltza.  
Sostenidoak eta bemolak do, re, mi, fa noten hitza.  
Reggateon, pop edo rap.  
Rock, heavy metal ta rap.  
Bakoitzak bere baldintza.  
Imaginatuz musika gabe zer litzatekeen bizitza!*





# EUSKARAREN TXOKOA

## Zaindu maite duzun hori...

ONGI ETORRI EUSKARAREN TXOKORA!

Batzuetan iduri du euskaraz solas batzuk egitearekin aski dela euskaldunak garelako errateko, edo euskaraz, bertze hizkuntzetan ez bezala, nolanihi solastatu edo idatz daitekeela. Gustatu edo ez, hori horrela da. Kontu horrekin kezkatuta gaudelako sortu dugu atal hau, inongo ha-

rrotasunik gabe, guk ere zer ikasia badugulako, dakite-nei aditu eta ikasteko, gure altxorra zaintzeko helburu hutsarekin. Euskararekin lotutako kontuak bildu nahi ditugu hemen eta horretarako, talde ederra du TTPI-TTAPAK laguntzeko: **Mikel Taberna, Markel Lizasoain,**

**Amaia Telletxea, Maitane Maritorea, Paskual Rekar-te, Maite Lakar, Oihana Lujanbio...** Gaiari arituak eta adituak guztiak. Zuk ere hala nahi baduzu, ateak zabalik izanen dituzu! Interneten ere eskura izanen dituzu euskarari buruzko kontuak: [erran.eus/euskararentxokoa](http://erran.eus/euskararentxokoa).

### Bitxikeriak

#### Bokata egitea lehen eta orain.

Ez dute deus ikustekorik lehen erran nahi zuenak eta gaur egun duen erabilerak. Garaiak aldatu diren seinale. Garai batean, bokata egitea arropa garbitzea zen; gaur egun, berriz, ogitartekoa egitea dela ulertuko luke batek baino gehiagok. Ba al zenekien?



Bokata egiteko harria

### Solas-zopa

#### Nola erraten diezue zapaburuei?

Bilatu hemen zapaburuak dituen hainbat adiera:

**AMORMIXKUA | ATTONKAXKUA | ATTONBURUXKA  
TXALBURUA | ZAPABURUA | APAPARRUTXA**

P M R Z E N T M R H O Y U R E  
I D W Z D Q A T R H S B Y Z A  
W H M A S K T M J O J O J N V  
K O A P E G T A Z J A A J D E  
V D D A T Z O P H U M Y N Q G  
K A Q B W A N A Q P O F V E W  
I Z W U X H B P J C R J S F H  
P O J R J F U A G U M L C F B  
R E E U A Y R R P Q I F P N V  
D T X A L B U R U A X M Z J T  
U E D N D D X U W B K G P V X  
W C U Z M Z K T V Z U U V C Q  
A T T O N K A X K U A Q A V V

# Zein da zuzena?

'Bidasoko' ala 'Bidasoako'? Dantxarineko ala Dantxarineako?

Zein da zuzena?

Horien gisako eta bertzelako zalantzak argitzeko atala duzu hau.

Zuk ere bota lasai zure galderak eta proposamenak [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

helbidera idatziz edo

Whatsappez **744 48 43 61**

telefonora idatziz, eta

TTPI-TTAPAN gibeletik

dugun profesionalen

taldearen laguntzarekin

zure zalantzak argitzen

saiatuko gara.



Eta atzendu gabe,

'BIDASOKO' eta

'DANTXARINEKO'

dira zuzenak.

~~'BIDASOAKO'~~

~~'DANTXARINEAKO'~~

### Kalko ustelak

Maitane Maritorea aniztar gure kolaboratzailearen errana gure eginez, kalko ustelak izena paratu diogu atal honi. Berak dioen bezala, «kalkoak, bertze hizkuntzetatik kopiatzen ditugulako, eta ustelak, txarrak direlako, eta gainera bertzeak ere usteltzen dituztelako».

#### 1. \*EZ DU PENA MEREZI HARAINO JOATEA

EZ DU MEREZI HARAINO JOATEA

Erdarakada nabarmena da; aski da *merezi du* erratearekin; *pena* hori sobran dago euskaraz, *merezi* erabiltzen badugu. Horrela behar luke: **>Ez du merezi haraino joatea.**

#### 2. \*BIHARKO BILERAN IKUSIKO GARA

BIHARKO BILERAN IKUSIKO DUGU ELKAR

Gaztelaniako *nos vemos* esamoldeetik hartua da. Euskaraz, egoki idatzita honela da: **>biharko bileran ikusiko dugu elkar.**



Urte hasierarekin batera, Euskal Herriko txapelketarako «gogor» entrenatzen hasia da Mitxelena. N. BAZTERRIKA

## «Hemendik aitzinera bizikletaz gozatzea da helburu nagusia»

**LUZIANO MITXELENA IRATZOKI** LESAKAKO TXIRRINDULARIA

Hogei urteko ibilbidean, beteranoen mailan, dozena bat aldiz irabazi du Quebrantahuesos proba, borts aldiz Euskal Herrikoa eta hirutan Espainiakoa. Apirilean Mallorcan izanen dena begiz joa du

**N. BAZTERRIKA** LESAKA

47 urte zituela eman zituen lehendabiziko pedalkadak Luziano Mitxelenak (Lesaka, 1952). Hasi bazen hasi, ez du bizikleta bazterrean utzi: «kamioilari aritzen nintzen eta bizikleta nirekin eramaten nuen, tarte bat nuenean ibil nedin». Bizikletari lotua bizi izan da azken hogei urteetan eta agerikoa da hori bere emaitzetan. Hamaborts aldiz parte hartu du Quebrantahuesos proba ezagunean eta hamabi aldiz irabazi du. Euskal Herriko zein Espainiako txapelketetan punta-puntan ibili da beti, «lehendabiziko, bigarren eta hirugarren» postuetan. Eroriz gero altxatuz eta lesioen

aurka gogor borrokatuz egin du aitzinera, eta sasoi onean gainera: «momentuz minikez dudanez, irabazi edo galdu, gozatzen segitu nahi dut».

**Noiz hasi zinen biziketan?**

Berandu samar, 47 urte inguru nituela. Ameriketara nintzela eta bertatik bueltatzean pilotan aritu nintzen, Bidaso-

### Motzean

**Txirrindularitza ez den kirolen bat?**

Esku pilota, partida guztiak ikusten ditut.

**Kirola ez den bertze zaletasunen bat?**

Lagunekin afari ederrak egitea (irri artean).

**Miresten duzun txirrindulari bat?**

Indurain, profesionala izateaz gain, beti laguntzeko prest dagoelako.

**Aurkari gogorrena?**

Esprintean ia edozein.

**Egun bereziarena?**

Galdakaoko garaipena.

**Zer eman dizu bizikletak?**

Fisikoki ongi egoteko aukera.

ko eta Nafarroako txapelketetan parte hartu nuen. Bidasoan txapeldun izan nintzen urte batez eta Nafarroakoan finala jokatzera ailegatu ginen Oiarzabal beratarra eta biok baina ez genuen irabazterik izan. Igantzin, besta batzuetan jokatzen ari nintzela, disko-hernia izan nuen... Ondotik, palan aritu nintzen baina, ezinean nenbilenez, utzi behar izan nuen. Logroñora ozonoterapia egitera joan nintzenez eta espezialista hark bizikletan ibiltzea aholkatu zidanean hasi nintzen.

**Afizioz bazenuen lehendik edo hasi ahala piztu zitzaizun grina?**

Gustuko nuen ikustea. Orduan Indurainen denbora zen eta ikusten genuen... Hala ere, niri hark erran arte ez zitzaidan burutik pasatu ere egin hastea.

**Nola oroitzen dituzu lehendabiziko urte horiek?**

Pixka bat hasi nintzenez, Donamariako Joxe Mari Mikeltoarena eta biok apustu bat egin genuen. Bera orduko ibiltzen zen. Beratik abiatu ginen eta Zigan barna Elizondora joan ginen. Gero, Otsondon beheiti Sarara, hortik Lizarietara, Lizarietatik Etxalarrera eta Etxalartik Berara buelta egin genuen. Lizarietan behetik goiti gindoazela hankak kalanbreak eman zizkion eta irabaztea lortu nuen. Ondotik bazkari bat egin genuen. Horrelaxe hasi nintzen...

**Gaur egun aski ezaguna duzun Quebrantahuesos proba izanzen lehendabizikoetarikoa, ezta?**

Bai, halaxe da. 15 urtez behin baino ez dut huts egin. Femuurraren burua hautsi nuenean, errekupeatzeko zazpi hilabete behar izan nituen eta... Lehendabiziko urtean gizen samar nengoen eta gaizki pasatu nuen. Zazpi ordu pasatotan egin nuen. Hurrengo urterako ongi prestatu nintzen. 60 urte nituelarik 05.50.33 behar izan nituen, ordura arteko marka hobetu nuen. Beteranoen mailan hamabi urtez segidan irabazi dut eta azken aldian ongi nabil.



## 2012an Transportes Bidasoa veteranoen txirrindulari taldea sortu zenuten. Nolatan?

Kasualitatea izan zen. Iñaki Villoria izan zen bultzatzaile nagusia eta haren arrimuan zortzi laguneko talde bat sortu genuen. Pixkanaka batzuek utzi zuten eta bertzeak sartzen joan ziren. Hasieratik hor dagoen bakarra ni naiz. Momentu honetan bi leitzar, Iruñeko bat, elizondoar bat, Doneztebeko bat eta ni gaude. Txapelketetara elkarrekin joateko moldatzen gara. Gure artean hagitz harreman ona dugu. **Taldea sortu zenutelarik, lasterketetan hasi zinen...**

Bai, ordura arte ez nekien masterreko lasterketak bazirenik ere. Lehendabikoa 60 urte nituela egin nuen, taldekideak joan ginen. Solaresen (Kantabriar) izan zen eta hirugarren izan nintzen. Urduri nengoe-la oroitzen dut, hasiberria nintzen eta... orain maltzurkeria gehiago dugu (irri artean). Esperientziarekin tropelean ibiltzen, bertzeen gurpilari itsatsita joaten... ikasi dut.

## Berehala Euskal Herrikoa irabazi zenuen zure mailan...

Galdakaon izan zen eta, hasiberria nintzelako segur aski, irabazteak ilusio berezia egin zidan...

## 2013an Espainiako iraupen txirrindularitzako txapelketa irabazi zenuen master 60 mailan...

Murtzian izan zen. Oroitzapen ona dut, portuan aitzina hartu eta gazteagoekin elkartzea lortu nuen. 2018an berriz ere Sorian irabazi nuen eta joan den urtean Asturiasen. Malda dagoenean irabaztea lortzen dut, zelaian, esprintetan, berriz, ez naiz gehiegi sartzen, gibelerak egiten dut... Lasterketak ditugunean, normalean aste-bete lehenago joaten gara ibilbidea ikustera eta orduan gutxi goiti-beheiti nola ibiliko naizen jakiten dut. Hala ere, aurrean 68 urte egin behar ditut eta gazteak pasatu ahala ezin jakin zer gertatuko den, igual gorriak ikusi beharko ditut.

2018an mundialean izan zinen...



Luziano, erdian, taldeko bertze bi kiderekin Guardian (Araba). UTZITAKOIA



Galdakaon (Bizkaia), Euskal Herriko txapelketa, 2018an. UTZITAKOIA

Bai, Varesen (Italian). Orduko oroitzapen txarra dut. Jendea hagitz nerbioso zegoen, abiatu aitzinetik bulkaka aritu zen... portura ailegatu arte gaizki pasatu nuen, erorka ibili nintzen. Gero, ongi samar nenbilen baina gurpil bat xehatu zitzaidan. Gurpila eskatu nuen baina ez zidaten utzi eta erratz-autoa bi orduren buruan etorri zen... Ez nuen bukatzerik izan.

## Joan den urtea ona izan zenuen...

Bai. Errioxako itzulia eta Espainiako txapelketa irabazi nituen, baita kronoeskaladako etapa bat ere. Euskal Herriko txapelketa, berriz, bigarren postuan gelditu nintzen, esprintean aitzina hartu zidaten eta...

«**ENTRENATZEA  
BEZAIN  
INPORTANTEA DA  
ATSEDEN HARTZEA»**

## Noiz hasten zara entrenamenduetan eta zenbatero egiten dituzu?

Urte hasieran ez dut lasterketarik egiten. Urritik urte hasierara geldialdi bat egiten dut eta urtarrilean hasten ditut Quebrantahuesoserako eta Espainiako txapelketarako entrenamenduak. Astean bi egunez ez dut bizikletarik hartzen. Nahiz astia izan badudan, gorputza nekatzen da eta ez da ona. Atsedean hartzea entrenatzea bezain inportantea dela erranen nuke. Hortaz, entrenamenduak sentsazioen arabera egiten ditut. Anitzetan buelta koskorra egiteko asmotan atera eta nekatuta nagoe-lako buelta txikia egiten dut edo alderantziz. Lasterketetan

«**NEURE BURUARI  
GOGOR EGITEAK  
IRABAZTEN  
LAGUNDU DIT»**

sufritzen badakit eta horrek alde ematen didala erranen nuke. Portuan goiti noala helburu bat bilatzen dut, neure buruari helmuga hori dela sinetsaraziz gogor egiteko, ez etsitzeko.

## Taldean ibiltzeko biltzen al zarete?

Lasterketetarako norberak entrenatzea da hoberena, bertzeen arrimuan batzuetan gehiegi bortxatzen dugu eta... Dena den, asteen behin, aste-buruan, ingurukoak biltzen gara eta goiz osoko buelta egiten dugu. 20-30 lagun inguru elkartzen gara, geroz eta afizio handiagoa dago. Masterretan ere 200 parte-hartzaileko muga paratzen dute eta izena emateko erne ibili behar da. Gure adinean Euskal Herriko txapelketa 15 inguru izaten gara, Espainiakoan 100 lagunetik goiti. Inguruan zikloturistak egitera ere anitz animatzen dira. Gu hasi ginelarik ez ginen horrenbertze.

## Nola ikusten duzu zeure burua?

Orain ongi nago. Hemendik aitzinera minik ez bada kontent nago, irabazi edo galdu, gozatzeari dut helburu. Golpe saila izan ditut (bi aldiz klabikula, omoplatoa zazpi tokitatik, femurreko burua... hautsi ditut) baina minik ez dut. Horrekin kontent nago.

## Zein da adinean goiti joanagatik sasoiko mantentzeko gakoa?

Elikadura inportantea dela erranen nuke eta hori dietista baten esku uzten dugu. Lasterketa bakoitzerako zer eta zenbat jan zehazten dugu.

## Orain zer lasterketa prestatzen ari zara?

Doneztebe eta Elizondoko bertze lagun batzuekin batera, Mallorcan egiten duten 3,2,1 izeneko lasterketa batera joatekoak gara apirilean. Taldekideek beraiek apuntatu didate eta hori da buruan darabilguna. Euskal Herriko lasterketa ere apiril aldera izaten da eta horretarako ere entrenatzen hasi naiz. Joan den urtean bigarren izan nintzen eta ea aurrean irabaztea lortzen dudana!

## Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko greba

Lan-baldintza, pentsio eta bizitza duina aldarrikatuz Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak greba deitu du urtarrilaren 30erako. Eskualdean hainbat mobilizazio antolatu dituzte greba batzordeek, horien artean, Donezteben eta Leitza manifestazioak egiten dituzte arratsaldez

### G. PIKABEA

Greba egiteko «hamaika arrazoi» daudela iritzita, «karrikara atera» eta «eskubideak aldarrikatzeko» deia egin du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak. Urtarrilaren 30ean jarria dute lan-baldintza, pentsio eta bizitza duinen aldeko hitzordua Karta Soziala osatzen duten sindikatuek (ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde, EHNE eta Hiru) eta eragileek (pentsiodunak, feministak, ekologistak, gazte taldeak, bazterketa sozialaren aurkako taldeak...).

Eskualdean ere lanean ari dira eta greba batzordeak sortu dituzte. Bortzirietan emakumeen mugimendua, Ernai, Pentsionistak Martxan, LAB eta hainbat herritar bildu dira batzordean; Malerreka-Bertizaranan emakume taldea, LAB, Ernai eta herritar batzuk; Baztanen Pentsionistak Martxan, emakume taldea, Ernai, LAB eta gaztetxeak eta Leitza ELA, LAB, Pentsionistak Martxan, Ernai, Gazte Asanblada, Sastrakak talde feminista, Ikasleok Borroka taldea eta Ikasle Abertzaleak.

### Mobilizazioak

Greba egunerako mobilizazioak prestatu dituzte. Leitza, 09:00-etan, kotxe-karabana egiten dute Herriko Plazatik abiatuta, Aresora joan eta buelta. Eta eguerdian Iruñean eta arratsaldean eskualdean egiten diren manifestazioetara joateko deia luzatu dute. Baztan-Bidasoaldean, Donezteben izanen da, 17:00etan, Avia gasolindegitik abiatuta; Leitza 18:00etan hasiko da Herriko Plazan.

### Pentsiodunei erantzunez

Pentsiodunen eskaerari erantzunez antolatu dute greba, haien borrokari bertze kolektibo batzuk gehituz eta gisa honetara, pentsiodunen aldarrikapenei enpleguari eta eskubide sozialei lotutakoak gaine-

ratuz. Hala baieztatu dute Asier Calderon (Bera) Baztan-Bidasoaldeko LABeko arduradunak eta Iñaki Zabaleta (Leitza) ELAko ordezkariak. «Pentsiodunek bi urte daramatzate astero mobilizatzen eta horri tiraka beste pauso bat emate-



Abenduan eskualdeko hainbat lagunek grebarako deialdia egin zuten.

ko eskatu zuten. Karta Sozialak horregatik deitu du greba», dio Zabaletak. Calderonek gaineratu digunez, «duela urte batzuk ezarri zituzten murrizketak ahantzi gabe, krisiaren aitzakian etor daitezkeen neurrien aitzinean eta pentsiodunen borrokaren osagarri, urrats ofentsibo bat egiteko unea da».

### Aldarrikapenak

Leitzarrak hiru multzotan banatu ditu grebarako arrazoiak azalduz Karta Sozialak osatu duen neurrien zerrenda: «pentsioei, lanari eta eskubide sozialei lotuak dira». Pentsioen inguruan, bertzeakbertze, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzen dute. «Hori ez da estatuari bakarrik eskatu dakiokeena. Nafarroako Gobernuaren esku dago ere badago», azaldu du Zabaletak. Lanaren arloan, 1.200 euroko gutxieneko soldata, generoaren araberrako soldata arrakala amaitzea eta 35 orduko lanaldia eskatzen dituzte. Eskubide sozialei lotuta, «alokairu sozialeko etxebizitzak bermatzeko eta menpekotasuna dutenen aldeko edo prestazio sozialen inguruko aldarrikapenak» egin dituzte. Beratarak «bertako sistema eta marko laboral propioa izateko eskaerak» gehitu ditu.

«Bizitzarekin zerikusia duten hainbat arlotako greba» izanen dela aipatu du ELAkoak: «laneko greba, zaintzarena, pentsiodun, ikasle eta langabeena eta kontsumo greba izanen da». LABekoak «erantzun ona» izatea espero du: «batzordeek sindikatuok presentzia dugun lantokietatik haratago bertze eragile sozialetara ailegatzeko balio izan dute eta zaila iruditzen zait halako aldarrikapenekin bat ez egitea». Argi du gobernuak mugiarazteko gakoak «karrikan presioa egitea» izanen dela eta hortik etorriko direla lorpenak: «governuek zerbait egitekotan, hori presio sozialaren eta langileriaren mobilizazioen bitartez izanen da». Hala, greba tresna eraginkorra izanen dela sinetsita daude.

### Aldarrikapen nagusiak

- **Neurri murriztaileen aurka:** erretiroa 65 urterekin; 30 urte kotizatuz gero erretiro aurreratua 61ekin...
- **Diru-sarrera duinak:** Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa eta soldata 1.200 eurokoa izatea.
- **Soldata arrakala amaitzea:** Gizonezkoen eta emakumezkoen soldata eta pentsioetan dagoen aldearekin akitzea.
- **Lanaldia 35 ordu jaitea,** soldata murriztu gabe.
- **Azpikontrazioetan lan-baldintzak bermatzea.**
- **Zigorrik gabeko pentsioak.**
- **Zerbitzu publikoak garatzea.**
- **Etxeko lanak eta zaintza lanak duintzea.**
- **Eskubide sozialak:** Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta errenta bermatua gutxieneko soldataren parekoa izatea.
- **Menpekotasuna dutenei laguntza-zerbitzu publiko, unibertsal eta doako bermatzea.**
- **Alokairu sozialeko etxebizitza eskubidea bermatzea.**
- **Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioa izatea.**



## Greba deialdiarekin bat egingen duzu?



**AIDE TXOKARRO EZKURRA**  
IRAKASLEA | NARBARTE, 1994

### «Ea aldaketa gure esku dagoela sinesten dugun»

«Gaizki» ikusten du jendartea, «gutxi batzuen mesedetan masa akritiko bezala funtzionatzen duelako, erabat manipulagarria». Hori «lan eskubideak urratuz, ustezko bizitza duina mehatxatuz» lortzen dutela dio, eta «ezin dela bizitza duintzat hartu». Argi du pentsioak «egonkortzeko» lan baldintzak «hobetu» behar direla eta bizitza duinak «zapalkuntzarik gabea» behar duela. Greba «beharrezkotzat» jo du: «gaur borrokatzen ez duenak bihar ez dezala negar egin. Ea jendarteak aldaketa gure esku dagoela sinesten duen».



**OLATZ JUANENA SAEZ**  
Merkataria | Doneztebe, 1988

### «Pentsiodunak egoera larrian daude»

Bere hitzetan, «pentsioak eta pentsiodunak egoera larrian daude eta urteak daramatzate borrokan». Gehiago ere bai: «Lan eta bizi baldintzak gero eta okerragoak dira eta gaur egungo eskubide sozialak ez dira nahikoak». Dioenez, «gizartea gero eta kontzienteago da geldirik geldituta, ez dela deus ere lortuko». Horregatik grebak «erantzun ona» izatea nahi luke. Gaineratu digunez, «familiar pentsiodun ugari ditut eta beraien eskubideen alde borrokatu nahi dute».



**MAITE OTEIZA APEZTXEA**  
IRAKASLEA | IRURITA, 1966

### «Arazoa oraingoena eta etorkizunekoena da»

«Pentsio baxuak, gehienbat andreen kasuan, jubilatzeko gero eta baldintza zorrotzagoak, gero eta aberats eta behartsu gehiago eta bien arteko tartea gero eta handiagoa...». Egoera «gaizki» ikusten du eta argi du «arazoa ez dela egungo pentsionistena bakarrik; denona da, oraingoena eta etorkizunekoena». Klase politikoa «herriarengandik urrun» dagoela dio, eta garbi du «denok bat egin beharko genukeela, presioa eginez zerbait lortzeko». Hortaz, grebak «erantzun ona edo bikaina» izatea espero du.



**JOSEBA INDABERE OTZANDORENA**  
ALTZAIRUGINTZA | LEGASA, 1977

### «Gizartea haserre eta nekatur dago»

«Kapitalismoak gizarte kohesioa eta erreibindikatzaila aurrean izatea exijitzen» duela irizita bat egin du grebarekin. Gizartea «haserre eta nekatur» ikusten du, «azken aldi politikariek patronalarekin lerrotuta egin eta egiten dizkiguten politika antisozialak soilik elitearen interesekoak» direlako. Eskualdean «iniziatiba eskasa» dela badio ere, «batzordeak martxan daudenez, erantzuna ona izatea» espero du. «Etorkizuna gure esku izan dadin, animatu greban parte hartzera».



**ESTEBAN AROZENA MITXELENA**  
Pentsioduna | Goizueta, 1956

### «Estatu mailako greba izan beharko luke»

Grebaren alde dago, batez ere, «pentsio murrizkak izanik zailtasunik dituztenei babesa» adierazteko. Baina «pena» du «Euskal Herrira mugatua» delako: «estatuko arazoa denez estatu mailakoa behar luke». Onartu digu «aspertu» dela «pentsio-funtsa bukatu dela eta lanean daudenek pentsioak ordaintzeko adina sortzen ez dutela aditzez. Zein baldintzatan ari dira? Zergatik sortu behar dute pentsioetarako dirua? Tanke eta abioiak estatuko aurrekontu orokorretatik ordaintzen badira, pentsioak zergatik ez?».



**JOXERRA INTXAUSTI BERISTAIN**  
Merkataria | Leitza, 1960

### «Egoera tristea da eta greba beharrezkoa»


«Tristea» bada ere, egoera zein den ikusita, greba «beharrezkoa» iruditzen zaio. «Ez dago esku-biderik», dio. Bera bezala autonomoak direnen etorkizuna «are okerragoa» dela uste du: «bizitza osoa lanean pasatu eta jubilatzeko garaia ailegatzeko beldurrez, batzuk enpresetan sartzeko aukeren bila ere bai, hilabete bukaerara ailegatzeko adina ez duten jubilatuak ikusten direlako». Hortaz, greba egingen du eta «inguruan jarraitzen handia» izan den delakoan dago, «kontu serioa delako».



**MIREN MITXELENA ETXEBERRIA**  
ERIZAINA | IGANTZI, 1985

### «Gizarteari lanerako kontzientzia falta zaio»

Lan, pentsio eta bizitza duina lortzeko «zer hobetua» ikusten du eta bere hurbilean, Osasun Publikoan, «kontratu aldetik hobetzeko aunitz» dagoela dio. Aldi berean, «eskubideak beharrezkoak» direlakoan dago, «baina betebeharez ahantzi gabe». Lanerako «kontzientzia falta» omen da: «Gizartea eroso bizi da. Gure belaunaldiak gehiena egin hartu du eta gutti dira euren kontu zerbait egitera ausartzen direnak eta zerbait lortzea zenbat kostatzen den ohartzen direnak». Mitxelena ez du grebarik egingen.




**ARRATE LEIZEAGA UNSAÍN**  
Merkataria | Zubieta, 1989

### «Zerbait lortzekotan denok batera behar du»

«Krisia aitzakiazat hartuta asko borrokatuz nahiko izan ez diren eskubideak egunetik gauera kendu dizkigutelako egoera itsusi» dago bere ustez eta bat egin du grebarekin. Gizartea «menperatua» eta «bizi-baldintza duinetik urruti» dagoela dio, «lanaren esklabo, beti lanean eta kalkulagailua eskuan». Grebak «izugarizko eragina» izatea nahi luke, baina «ziur nago ez dela hala izanen. Urruti ikusten dut fundamentuzko plantoa». Berak argi du: «zerbait lortzekotan, denok batera behar du».



Bi bikote Santa Barbarara ailegatzten eta eskalada tailerra kiroldegian, XIII. Mendi Egunaren baitan. UTZITAKO ARGAZKIAK



## Inoiz baino kirolari gehiago izan dira XIII. Mendi Egunean

Edurne Pasabanen dokumentalaren proiektzioan eta jendeak emandakoari esker mila euro bildu dituzte Nepalera

### TTIPI-TTAPA

300 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte ilbeltzaren 1 In Mendi Egunaren hamahirugarren edizioan antolatutako jardueretan. Goizez zein arratsalde, eskalada-tailerrak, orientazio-probak, mendi-irteerak, erlojuaren kontrako lasterketak eta Edurne Pasa-

banen dokumentalaren proiektzioak parte-hartzaile eta publiko ugari izan zituzten. Manttaiek eta Agerra Mendi Taldeak antolatutako jardunaldi eguzkitsu honetan, bertze urte batez, Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegi mendizaleak gogoratu zituzten.

Santa Barbarako erlojuaren kontrako lasterketak, 5,5 kilometroko luzerarekin, 61 bikote eta hirukote bildu zituen, Ricardo Baroja Eskolaren sarreratik minutuko tartearekin atera zirenak. Aitzinetik, zirkuitu beretik mendi-irteera abiatu zen, 50 pertsona baino gehiagorekin.

Aldi berean, 40 hurrek parte hartu zuten ttikientzako bikotekako lasterketan, Garmendikobordatik Ricardo Baroja eskolara. Bertan merienda zuten esperoan.

Erlojupeko lasterketaren ondotik, ibilaldian eta erlojupekoan parte hartu zuten guztiak merienda eta oparienezozko zozketa izan zituzten Ricardo Baroja Eskolako jantokian.

Goizean, 130 bat hurrek parte hartu zuten kiroldegian egindako eskalada tailerrean. Talde ttikitan banatuta, eskaladarekin lotutako hainbat jarduerara (boulderra, rappela, etab.) egin ahal izan zituzten.

Aurten, lehenengo aldiz, haur eta nerabeentzako orientazio-proba bat ere egin zuten. Bortz laguneko taldetan banatuta, mapa eta iparrorratz batekin Berako hainbat leku kokatu eta esaldi bat osatzeko pistak aurkitu behar izan zituzten.

### Mila euro Nepalera

Eguna bukatzeko Chhapudai. *Una expedición de Edurne Pasaban a la cara oculta del Himalaya* dokumentala eskaini zuten. Edurne Pasaban berak aurkeztu zuen pelikula gainezka zegoen kultur etxean. Pasaban ez ezik, Nepaldala GKEko kideak ere emanaldian izan ziren Nepalen emakumeen bizi-baldintzak eta hezkuntza hobetzeko egiten duten lana azaltzen.

Manttaiek eta Agerra Mendi Taldeak 1.000 euro bildu zituzten filmerako sarreraren salmentarekin eta kirolariek borondateak emandako diruarekin. Nepaldala GKEari eman zaio diru hori oso-osorik.

**JAIONE - LOXOTEGIA**  
Etxean egindako produktuak  
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

**Auzoa GO!**  
Etchez etxeko zerbitzua BERAn  
ESKAERAK:  
www.auzoago.com • T. 948 631 509

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel.: 948 630 735 M: 620 172 679

**MARITX**  
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK  
• BOLETIN INDUSTRIA  
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450  
Legia, 23 - BERA

**caser residencial**  
www.caserresidencial.es  
**Egonaldi motak**  
• Egonaldi iraunkorrak  
• Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako  
• Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak  
• Alzheimerra eta bestelako dementsiak dituzten gaixoentzako egonaldiak  
• Eguneko zentroak:  
• 365 egunetan irekiak  
• Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara  
• Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak  
**ANAKA** | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780  
**BETHARRAM** | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169



# Magia eta bertsoekin abiatuko da kultur agenda otsailean

Hilaren 2an Bardoak txapelketako eskualdeko lehen saioa eta Hodei magoaren 'Ezinezkoaren logika' ikuskizuna izanen dira

## TTIPI-TTAPA

Otsaileko kultur agenda magiarekin eta bertsoekin abiatuko da.

Bardoak txapelketako saioa otsailaren 2an, igandean, 18:00etan egingen dute Katakuko ostatuan. Berako *Lamixene* taldea (Ainhoa Larretxea, Aitor Elexpuru, Ekhiñe Zapiain, Estitxu Uranga, Julen Zelaieta eta Patxi Castillo) eta Auritz-Hendaia-Lesakako *Amortziaren elioabak* (Aimar Karrika, Josu Txoperena, Kristiñe Txoperena eta Maddi Ane Txoperena) izanen dira aurrez aurre. Egun eta ordu berean, Hodei

magoak *Ezinezkoaren logika* magia ikuskizuna eskainiko du kultur etxean. Sarrera lau euro ordaindu beharko da.

Baina otsailean sartu baino lehen, bertze hitzordu batzuk ere izanen dira. Urtarrilaren 27an, astelehenean, 18:00etan txistu entzunaldia antolatu du Isidoro Fagoaga udal musika eskolak, eskolan berean.

Urtarrilaren 31n, ortziralean, 18:00etan, liburutegian Blanche ipuin-kontalaria (Alexia Papantchev) frantsesez ariko da kontu kontari, zazpi urtetik goitiko neska-mutikoendako emanaldian.



Hodei magoak ikuskizuna eskainiko du otsaileko lehen igandean. UTZITAKOIA



UTZITAKO ARGAZKIA

## Juan Mari Iriarte ekintzaile onena

IFEMAK eta *Expansion* egunkariak XV. ETE Sariak eman dituzte, estatuko enpresa txiki eta ertainen ahalegina eta dedikazioa aitortuz. Jaione gozotegiko Juan Mari Iriartek jaso du ekintzaile onenaren saria, bere konpainia (Ekhi Gold) garatzeko gai izan delako, enpresa arrakastara eramanez.

## Toki Onako DBH4ko ikasbidaiarako loteen zozketa egin dute

Toki Ona institutuko DBHko laugarren mailako ikasleek ikasbidaiarako dirua biltzeko asmoz, Martikoren bi produktu-lote zozketatu dituzte. Zerbaki-sarituak 1.221 eta 1.292 dira. Saria biltzeko Toki Ona institutura joan behar da 08:00etatik 14:30era.

## Nahita piztutako sutea Larhun magalean

Kaule auzoan, Egiburu inguruko basoan sua piztu zen ilbeltzaren 14an. Alkatearen erranetan, «nahita» piztutakoa izan zen eta ez zen lehenbiziko aldia: «azken boladan hain zehazki dagoenean behin baino gehiagotan piztu dute nahita sua eta kezkatuak gaude».

**LABE ZAR**  
Astelehenetik ortziralean: 07:15etik aitzinera  
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera  
948 631 076 • BERA

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE  
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

**Anterola**  
Tekniko instalatzailea  
ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA  
Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa  
629 449 602

**Jauzena**  
Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantenu lanak

Etzetresnen salmenta, instalazioa  
eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak

**xuga**  
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

## Odolustearekin bukatzeko eskatu diote Gobernuari

Baztan-Bidasoaldeko udalek N-121-A errepiderako baliabide guztiak lehenbailehen jar ditzala exijitu diote irmoki

### TTIPI-TTAPA

Bortzirriak, Baztan eta Male-  
rrekako udalek idatzi bat igorri diote Nafarroako Gobernuari, eta irmoki exijitu diote «N-121-A errepidean bere esku dauden baliabide guztiak jar ditzala lehenbailehen odoluste honekin bukatzeko».

Baztan-Bidasoaldeko udalen idatziak dioenez, «berriz ere indargabe sentitzen gara errepide madarikatu honek eragindako enegarren tragediaren aitzinean. Ez dira bi hilabete pasa Azpilkuetako bi ama-alaben heriotzaren berri izan

genuenetik, eta asteburu honetan berriro odola gatzatu zaigu N-121-A errepidean gertatutako trafikoko istripuaren ondorioz Igantzi eta Donostiako bi gazte hauek bizia galdu dutela ikustean».

Hunkitutako familiei, «bihozmin sakoneko momentu hauetan» beraien dolumin bizienak adierazi ondotik, «atsekabe, tristura, sinesgaiztasuna eta, zergatik ez erran, gaitzespena» ere plazaratu dituzte. «Horiek denak dira egun hauetan atsekabetzen gaituzten sentimenduak».

Arrazoi horiengatik, Nafarroako Gobernuari irmoki exijitu diote bere esku dauden baliabide guztiak jar ditzala lehenbailehen odoluste honekin bukatzeko. «Halaber, eskatu nahi diogu, mesedez, guri aditzeko eta gure iritzia kontuan hartzeko». Honela, udalen proposamenen artean dago ibilbide luzeko ibilgailu astunak A15 autobidera biderratzea, Belate eta Almandozko tunelak moldatu bitartean egin zuten bezala.

Idatzia bukatzeko, udal ordezkariak diote jabetzen direla errepide honek dituen zailtasunez, baina herritarrak bidean hiltzen ari direla: «Batzuek hiru errei aipatuko dituzte, bertzeek autobidea, bertze batzuk finantzaketa dute gogoan, edo ondorio ekonomikoak, baina inork ez dezala aiantzi politikara jolasten garen bitartean herritarrak bidean gelditzen ari zaizkigula».

## Aisialdiaz aritzeko tailerra egingen dute Bortzirietako gurasoekin

### TTIPI-TTAPA

Sustantzien kontsumo prebentzioa indartzeko gurasoentzat bertze lan ildo bat martxan jarri du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Bortzirietako gurasoei zuzendua. Urtarrilaren 23an, ortzegunean, 17:00etan, Etxalarko Kultur Etxean aisialdiaz eta denbora libreaz arituko dira. Saioa gazteleraz eskainiko dute. Izen-ematea 636 22 36 59 telefonoan edo [info@bortziriakgz.eus](mailto:info@bortziriakgz.eus) helbide elektronikokoan egin daiteke. Ez bada gutieneko kopururik elkartzen bertan behera geldituko da.

Saio hauen helburua gurasotasunean beharrezko diren trebeziak sakondu, findu eta hausnartzea izanen da.

**Parte hartzetik parte izatera.**

**Eta zuk, zer egin nahi duzu?**

**948 63 00 09 + bera**  
**Aurre izen-ematearen epea otsailaren 3tik 7ra.**



## Erdi lesakarrak garaile taldekako bertso lehiaketan

Oihana Iguaran, Manolo Arozena eta Joanes Illarregi gailendu dira eta 13 urteko Amaieur Goñi Elortzak lortu du Kotto Saria

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako taldekako 21. bertso lehiaketa ilbeltzaren 4an egin zuten. Berako Xagu ostatuko buruz buruko lehen kanporaketan 27 bertsolari aritu ziren eta hemezortzi onenekin, sei hirukote osatu zituzten.

Katakuko lehen finalurrekoan hiru hirukote aritu ziren: Erdi lesakarrak (Oihana Iguaran, Manolo Arozena eta Joanes Illarregi), Haritz Kontent (Erika Lagoma, Aritz Mujika eta Xabat Illarregi) eta 3B-Belaunaldi (Jon Gurrutxaga,

Amaieur Goñi eta Bittor Elizagoien). Finalera zuzenean pasatu ziren Erdi Lesakarrak.

Lesakako Haizeguko bigarren finalurrekoan, Tarrina ta bixkotxo (Maddi Ane Txoperena, Eneko Lazkoz eta Beñat Iguaran), Eztakigu ze izen paratu (Eneko Fernandez, Saioa Alkaiza eta Adur Gorostidi) eta Forasteruk (Xabi Igoa, Julen Zelaieta eta Ane Zuazubiskar) taldeak aritu ziren. Hemen, Tarrina ta bixkotxo taldeak lortu zuen finalerako zuzeneko txartela. Puntuazioaren arabera, Haritz kontent izan



Joanes Illarregi, Manolo Arozena eta Oihana Iguaran txapelak. UTZITAKOIA

zen finalerako sailkatu zen hirugarren hirukotea.

Finalean, aipatu bezala, Erdi lesakarrak taldea nagusitu zen, Tarrina ta bixkotxo eta Haritz kontent taldeen aitzinetik. Saioa Mitxelena, Lide Igoa, Joseba Beltza eta, finalean, Izaro Mitxelena aritu ziren epaile lanean.

Amaieur Goñi Elortza bertarrak, parte hartu zuen bertsolari gazteenak, 13 urterekin,

eskuratu zuen bertso onenari emandako Kotto Saria, Xugan puntuari emandako erantzun batean. Bertsolariak ez ezik, gai-emaileak, epaileak eta musikariak ere Bortzirietako Bertso Eskolak jarri zituen (30 bat laguntzaile), eta inoiz baino giro ederragoa izan zen bai Arranoko afarian, 70 lagun baino gehiagorekin, bai finalean baita kanporaketak jokatzen zirenean ere.

## BERA LESAKA

### Agenda 2020

**URTARRILA  
OTSAILA**

[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)

LESAKAKO  
UDALA

KARTEL LEHIAKETA

### LESAKAKO INAUTERIETARAKO KARTEL LEHIAKETA 2020

**Aurkezteko epea** urtarrilaren 17a.  
**Erakusketa** Aurkezten diren lan guztiak erakusketa bat osatuko da Kultura eta Turismo bulegoan (Beheko plaza 5). Urtarrilaren 20tik 24ra (biak barne).  
**Irabazlea** Herri bozketak erabakiko du.

LESAKA

URTARRILA

## 24

ORTZIRALEA

SOLASALDIA  
**ZAZPIAK BAT:**  
Euskal Herriko  
armarrien historia

**Hizlaria** Andoni Esparza.  
**19:00** Udaleko pleno aretoan.

LESAKA

URTARRILA

## 26

IGANDEA

DOKUMENTALA  
**ZIZELKARIAK**

**18:00** Harriondoa Kultur etxean.  
**Antolatzailea** Arrano Elkarte

LESAKA

URTARRILA

## 27

ASTELEHENA

KONTZERTUA  
**TXISTU  
ENTZUNALDIA**

**18:00** Musika eskolan.  
**Antolatzailea** Isidorro Pagoaga Udal Musika eskola.

BERA

URTARRILA

## 31

ORTZIRALEA

IPUIN KONTALARIA  
Frantsesezko ipuin  
kontalaria: Blanche  
(Alexia Papantchev)

**18:00** Liburutegian. **Adina** 7 urtetik goiti.  
**Iraupena** 50 min.  
**Antolatzaileak** Berako herri liburutegia eta Berako Kultur Batzordea.

BERA

### OTSAILA

2

IGANDEA

ZINEMA  
**BALLERINA**

**16:30** Harriondoa Kultur etxean.  
**Sarrera** 2 €.

**Antolatzailea** Irain Eskolako Guraso elkarte eta Otxogorrienea Guraso Elkarte.

LESAKA

2

IGANDEA

MAGIA IKUSKIZUNA  
**EZINEZKOEN  
LOGIKA**  
(Hodei magoa)

**18:00** Kultur etxean.  
**Sarrera** 5 €.

**Argibide** gehiago  
[www.magohodeimagoa.com](http://www.magohodeimagoa.com)  
**Antolatzailea** Berako Kultur Batzordea

BERA

2

IGANDEA

MAGIA IKUSKIZUNA  
**EZINEZKOEN  
LOGIKA**  
(Hodei magoa)

**18:00** Kultur etxean.  
**Sarrera** 5 €.

**Argibide** gehiago  
[www.magohodeimagoa.com](http://www.magohodeimagoa.com)  
**Antolatzailea** Berako Kultur Batzordea

BERA

## Herriguneko auzotarrekin bilduko da udala otsailean

Auzo-bilerak deitu ditu otsailaren 7, 8 eta 9an, kezka aditu eta aztertze eta komunikazioa hobetzeko helburuarekin

### AITOR AROTZENA

Auzo-bilerak deitu ditu udalak otsailaren 7an, 8an eta 9an, auzotarren kezka aditu eta aztertze eta udalaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko helburuarekin.

**Otsailaren 7an**, ortziralean 18:00etan, Albiztur 41, Azkaine eta Otsangoko auzotarrekin bilduko dira lau bloketan; eta 19:30ean Antoiu, Koskontako bidea, Itturunzubi, Estrata eta Albistur 25ekoak Itturunzubi-plazoletan.

**Otsailaren 8an**, larunbatean 10:30ean, Albistur, Zarandia,

Arretxe, Ote eta Pikuzelaia karriketakoekin bilduko dira Biskantxeneko plazoletan (euria egiten badu, udaletxeko arkupeetan); eta 12:00etan, Beheko plaza, Plaza Zaharra, Plaza Berria eta Sumusakoekin plazan (euria egiten badu, Alondigako arkupeetan).

**Otsailaren 9an**, igandean 10:30ean, Bittiria karrikakoak (optika arte), Bittiriko plazakoak eta Garaikomendiko bidekoak daude deituak Bittiriko plazan; eta 12:00etan, Eltzeta, Arrantzubi eta Martxanpaitakoak Eltzetako plazan.

### 'Zizelkariak' lana aurkeztuko dute urtarrilaren 26an

*Zizelkariak* dokumentala eskainiko dute urtarrilaren 26an, igandean 18:00etan Harriondoan. Hainbat arlotan borrokan ari diren Euskal Herriko sei gazteri ahotsa ematen dio dokumentalak. Egileen artean daude Maddi Ane Txoperena eta Garazi Conde.

### Musikoterapia tailerra izanen dute jubilatuen elkarteak

San Fermin elkarteak antolatuta, *Musikoterapia, Musika zahartzaroaren sintonian* tailerra eskainiko dute otsailaren 3tik apirilaren 13ra, astelehenean 11:00etatik 12:00etara. Haizea Loira Matxiñena musikoterapeuta eta GIM terapeuta izanen dute gidari.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Fraindarrek 50. urteurreneko bazkaria

Fraindarrak taldeak 50 urte beteko ditu eta hori ospatzeko bazkaria antolatu du otsailaren 24an Kattun. Taldean atera diren guztiak gonbidatu dituzte. Bazkarirako txartelak 40 eurotan salgai daude urtarrilaren 31 bitarte Arrano ostatuan, Teltetxea argazki-dendan eta Haizea kafetegian.

### Urte bukaerako agenda bete-betea izan du Lesakako Abesbatzak

#### A. AROTZENA

Herriko abesbatzak 37 urte bete ditu eta urte bukaera eta hasiera mugituak izan ditu.

Azaroaren 16an Iruñeko Juslarrotza entzunaretoan emandako kontzertuarekin hasi zen, Nafarroako Abesbatzen zikloaren barrenean. Ondoko astean, Santa Zezilia ospatzeko, Lesakako soinu-lariak, trikitilariak, txistulariak eta Lesakako Musika Bandarekin batera parte hartu zuen. Abenduaren 15ean Aiegiko elizan abestu zuen, herri horretako abesbatzak lehendik

Lesakara egina zuen bisitaren ordainetan.

Eguberrietako egun berezietan elizan egindako mezetan abestu zuen; abenduaren 28an Andra Mari egoitzara urteroko bisita egin zuen eta han Errege eguneko mezan kantatu ere egin zuen; abenduaren 31n egiten den kalejiran parte hartu zuen, baita Errege Magoen kabalkadan ere. Interesa duen orok abesbatzaren informazio gehiago eskura du haren web orrian: <https://lesakako-abesbatza.wixsite.com/lesaka2>.

Denak Bat  
Hemen erabili  
kattagorria  
LESAKA  
948 627 514  
www.kattagorria.com

IRU-BIDE  
OSTATU • JATETXEA  
Arratzubi Kalea 3  
31770 LESAKA  
T. 948 63 71 27

Dia %  
LESAKA  
Ateak itxiko ditugu urtarrilaren 27an. Eskerrak eman nahi dizkiogu urte hauetan gurekin egon diren guztiei eta Otsailaren 7an espero zaituztegu gure proiektu eta eskaintza berriei. Laster bueltan gara!  
Sumusa, 4 • 948 637 335

EDARIAK  
MANUEL TABERNA S.L.  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
www.tabernaedariak.eus



## Feminismoa ardatz duen dokumentala urtarrilaren 24an

Urte hasiera magia ikuskizunarekin hasi dute eta hurrengo hitzordua dokumental emanaldia izanen dute

### IRUNE ELIZAGOIEN

Urteroko ohiturari eutsiz Errege egunean Larraburuan txokolatada eskaini zuten. Aurten, berrikuntza moduan, Maksim magoaren ikuskizuna ere izan zuten. 60 haur eta 40 heldu inguru bertaratu ziren emanaldi ikusgarriaz gozatzera.

Hurrengo hitzordua gazte eta helduentzako izanen da. *Que coño está pasando* dokumentala eskainiko dute urtarrilaren 24an, hau da, hondarreko ortziralean, kultur etxean. Feminismoari buruzko dokumentala ikusteko hitzordua 18:30ean zehaztu dute.



ARANTXA SANSIÑENA ETA FERNANDO IRAZOKI

## Etxalartarrak Bortzirietako finalean

Abendu hondarrean Bortzirietako txapelketako finalak jokatu zituzten Etxalarren. Ttikien mailan, Unai Irazoki eta Erik Igoa eta infantiletan Lander Lasaga eta Arantzako Ekai Madariaga txapeldun izan ziren. Julene Danboriena gutxigatik ez zen finalera sailkatu (18-17 galdu zuen finalaurrekoa).

## Mendi federazioko txartelak eskuragarri daude

2020an mendi federazioko kide izan nahi dutenek Altxata elkartean egin dezakete txartela eskuratzeko eskaera (zein modalitatetan federatu nahi den adieraziz 630 21 82 20 telefonoan). Internetez ere egin daiteke. Dena dela, Altxatari jakinaztea eskatu dute.

## Frontoi ondoko komun publikoak berritu dituzte eta erabilgarri daude dagoeneko

Frontoi ondoko komun publikoak berritu dituzte eta erabilgarri daude dagoeneko. Aitzinekoek ez bezala, sarrera bi aldetik dute eta sartu eta atera erraztasunez egiteko egokituak daude (eskailerarik gabe). Orain herritarren lana da txukun eta garbi edukitzea.

## 14 bikote mus txapelketako kanporaketan

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketan 14 bikote aritu ziren. Ander Gonzalez eta Xabat Matxikote izan ziren txapeldunak; Lurdes Galarregi eta Nerea Mitxeltorena bigarren. Irabazleek otordua izanen dute saritzat.



IRUNE ELIZAGOIEN

## 24 urteren ondotik Elutsa ostatua itxi dute

Urtea bukatzearekin batera Elutsa osatua itxi dute. 1995ean hasita 24 urtez eskaini dute zerbitzua. Gerturatu diren guztiei eskerrak eman dizkiete eta herritarren ahotan pena eta esker oneko hitzak bertzezik ez dira aditu.



ELUTSA OSTATUA

## Lehen jaunartze eguna

Menu ezberdinak  
Haurdientzako animazioa

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu, **animatzaile** baten eskutik. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.



ETXALAR | T. 948 63 50 00 | [www.etxalar.com](http://www.etxalar.com) | [info@etxalar.com](mailto:info@etxalar.com)

KONTSULTATU GURE ESKAINTZAK



# IGANTZI

## Biltoki elkarteak otsail hasieran egingen du batzar nagusia

Hilaren 1ean edo 8an egingen den erabakitze dago hau idazterakoan eta ohiko gaiak landuko dituzte

### TTIPI-TTAPA

Otsail hasieran izanen da Biltoki Elkarteak urteko batzar nagusia. Agenda kontuak dira eta, erabakitze dago oraindik 1ean edo 8an izanen den. Ez da gai berezirik izanen, juntakideen erranetan, eta, ondorioz, urteko ekintzak, kontuak, bazkideen gorabeherak... izanen dira bilkuran jorratuko dituzten gaiak.

Bertzalde, elkarteak antolatutako adimen emozionaleko ikastaroaren zerranda bete egin da azkenean, 20 lagun bilduko dira ilbeltzaren 25ean eta otsailaren 1ean, 22an eta 29an. Donna Apelaniz izanen da ikastaroen gidatzailea.



Dantzari tikiak. OSKAR TXOPERENA

### Haurren dantza ikastaroak hasteko zorian

Laster hasiko dituzte dantzari gazteenek euskal dantza ikastaroak. Bazkalondoko eguerdiko tartetxoak aprobetxatuko dituzte astean hiru egunez: astelehen, asteazken eta ortziraletan.

## Xabier Taberna Telletxearen heriotzak atsekabea ekarri du herrira

### TTIPI-TTAPA

Goibel eta atsekabeturik segitzen du herriak Xabier Taberna gaztearen zorigaitza dela medio. Hotzikara zabaldu zen herrian bere istripua-

ren berriarekin eta jende andana hurbildu da familieren ingurura unelatz hauetan, gazteak bereziki. Besarkada handi bat familia eta lagunei hemendik ere.



BILTOKI ELKARTEA

## Euskal Herriko mus txapelketa

Biltoki elkarteak jokatu Euskal herriko mus txapelketako kanporaketan Ramontxo eta Xeberino Retegi izan dira irabazleak, Karlos Sein eta Imanol Retegi finalean garaituta. Ondorioz, bi bikoteak sailkatu dira Iruñean egingen diren herrialdeko txapelketan jokatzeko.



OSKAR TXOPERENA

## Inauteriak otsailaren 14 eta 15ean

Otsailaren 14 eta 15ean izanen dira inauteriak. Ohiturari eutsiz, ofizialak baino aste bat lehenago egingen dira. Ortzirale goizez Berrizaundik hasiko dute moztarok eskea, arratsalde herrian ibiliko dira, eta larunbata baserriak bisitatzu hasi eta herrian akautuko dute. Hurrengoan zehaztasun gehiago.

## AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

### GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

## USOA

Nekazari kooperatiba

## ORAIN GASOLINA ERE

T. 948 635 214 ETXALAR

## TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA

T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046



# Liburutegia larunbat honetan inauguratuko dute

Udalak, herritarren laguntzarekin, Baskula liburutegi izateko egokitu du

## NEREA ALZURI

Liburuentzako apalak, irakurketarako txokoa, ordenagailua, lanerako txokoa... Hainbat egokitzapen egin ditu azken hilabeteotan Udalak herritarren laguntzarekin, eta lan horren emaitza larunbat honetan, ilbeltzak 25, ikusteko aukera izanen da.

Liburutegiko atea beste besta giroan irekitzeko inaugurazio ekitaldi xumea antolatu dute. 12:30ean egin dute hitzordua Baskulan bertan. Dabid Iturria alkateak eta Joseba Pikabea zinegotziak hartuko dute hitza,

baina eurekin batera, herriko bertsolari gazteek, Jaione eta Jon Mazizor eta Maddi Larralde musikariak eta Mentxu Peña kontalariak parte hartuko dute. Inaugurazio ekitaldia borobiltzeko luntxa eskainiko du Udalak hurbiltzen diren guztientzat.

Heldu den astetik aitzinera izanen dute herritarrek zerbitzua eskura. Astean bi aldiz irekiko dute liburutegia, bi orduz: astelehenetan eta asteazkenetan, 16:30etik 18:30era. Auzolanaren bitartez funtzionatuko du.

## Ezbehar larria gertatu da N-121 errepidean

Ilbeltzaren 11ko ilunabarrean, Olaguen izandako istripuan, Bordaxuriko Mikel Manzano Altuna zendu zen. Lerro hauen bidez, doluminak adierazi nahi dizkiegu familiari, baita berekin autoan zegoela zendu zen Xabier Taberna Telletxea igantziarren familiari ere.

## Metrobaserri plakak hartzeko deia egin du Udalak

Larrialdi kasuetan, medikuak, suhiltzaileak eta oro har zerbitzu publikoak baserrietara ahalik eta lasterren ailegatzeko garrantzitsua izan daitekeen identifikazio plaka Herriko Etxetik hartu eta gero etxe ondoan paratzeko eskatu du Udalak.

## Simonenborda baserriaren alde dirua biltzeko kontu zenbakiak ireki dituzte

### NEREA ALZURI

Joan den ilbeltzaren 3ko arratsuan erre zen Eguzkialdeko Simonenborda baserria. Zorionez, barrenean zeuden Xalbador eta Xekundina ez ziren zaurituak izan. Baina kalte materialak handiak izan dira eta horri buelta eman nahian ari dira. Ilbeltzaren 10ean, 11n eta 12an, erraterako, auzolanean hainbat lagun aritu ziren hondakinak biltzen. Kontu korronteak ere ireki dituzte lagundu nahi duenak aukera izan dezan: Rural Kutxan ES12 3008 0086 2341 4342 3715



Simonenborda ilbeltzaren 3an erre zen.

eta Caixan ES69 2100 5382 3002 0002 5423. Jasotzen ari diren elkartasun keinuak direla eta, modu batera edo bertzer lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie familiak.



HERRI ESKOLA

## Inauteriak otsailaren 6tik 8ra

Gain-gainean ditugu inauteriak eta Mozorro Zuriek egitaraua prest dute. Ohitura den bezala, baserri baserri eta etxe etxe puska biltzeak egingen dituzte Mozorro Zuriek eta eskolako lagunek, baina gainerako jarduerak ere ez dute hutsik egingen. Guztiaren berri gehigarrian ikusgai dago.



T. 948 634 179 | ARANTZA  
www.arantza.net



**aterpe**  
albergea jatetxea ostatua



INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

**DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK**

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA



**LARRALDEA**  
eta  
**LINDDURRENBORDA**  
Baztan Bidasoako sagardotegiak

**Dolarea**

**Eskualdean egindako sagardoa**

**Txotx denboraldiaren irekiera**

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212



Aurten ere eskolan abiatuko dituzte inauteriak. ARTXIBOKOA

## Eskolan ere ortziraletan abiatuko dira inauteriak

Mozorroto ondotik, 15:00etan frontoian elkartu, kantak abestu eta karriz karriz ibiliko dira ikasle, irakasle eta gurasoak

### MAIDER PETRIRENA

Eguberrietako oporretatik bueltatu berriak eta jada berriro ere besta giroan murgiltzeko prest daude eskolako ikasle eta irakasleak, ortzirale honetan ospatuko dituzten eskolako inauteriak prestatzen hasiak baitira.

Aurtengo gaia inauteriak Sunbillara datozela iragartzen duten kaldereroak izanen da.

Egitarauari dagokionez, ortziraletan 14:20ean etxean bazkaltzen dutenak eskolara jantziak etorriko dira. Jangelakoak, berriz, eskolan prestatuko dira bakoitza bere ge-

lan. 15:00 aldera, ttikiak eta handiak, frontoian elkartuko dira. Bertan kantak abestu eta jo eta kalejira hasiko dute. 16:00 aldera frontoian akituko dute.

Eskolatik aipatu dutenez, «gurekin ongi pasatzeko gogo duen guztia etor daiteke, gurekin batera kantuan ibili eta zarata egitera (mozorrotoak etortzera animatzen zaituztegu)».

Ttikiak ez ezik, gazteek eta nagusiek ere ospatuko dituzte inauteriak, igandeko karroza desfilera arte. Egitarauaren berri, aldizkari honetako gehigarri berezian duzue.

## H2O Gurea proiektuak hiru urte bete ditu Bidasoa, Urdazuri eta Urumea kudeatzen

### TTIPI-TTAPA

Joan den abenduaren 31n bukatu zen H2O Gurea europar proiektuak hiru urte bete ditu Bidasoa, Urdazuri eta Urumea ibaien mugen elkar arteko kudeaketa landuz, Interreg POC-TEFA lankidetzaren programaren esparruan. Proiektuaren azken ondorioek lankidetzaren emaitza positiboak baieztatu dituzte, hala nola, uren kalitatea, espezieen babesa, ibaien arroetako gobernantza edo uholdeen kudeaketaren inguruko gaietan.

H2O Gurea proiektua 2016ko maiatzean hasi zen, Nafarroako Gobernuak GAN/NIK Nafarroako Ingurumen Kudeaketa elkartearen bidez eta bertze bortz erakunde parte hartuta: Euskal Hirigune Elkargoa (proiektuaren lerroburua), Urdazubiko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, URA Agentzia eta Txingudiko Mankomunitatea.

Proiektuak abian jarritako ekintzen azken ebaluazioan (abenduan egin zuen Bertizko Pilotaje Batzordearen azken saioan), bazkideek bereziki baloratu zuten hiru urte horietan sortutako tokiko aktoreen sarea finkatzea, eta horrek erantzun bateratua ematen die partekatutako ibai-arroetako uraren kudeaketari buruzko Europako zuzentzaruei: Uraren Esparru Zuzentzaraua eta Uholdeen Zuzentzaraua.



Ibaitan egin diren lanetako bat.

Bidasoa, Urdazuri, Errobi, Oria eta Urumea ibaien arro partekatuetan ura kudeatzeko eskumena duten Hegoaldeko eta Iparraldeko agintariek 2014an sinatu zuten Ur Partekatutako Kudeatzeko Mugaz gaidiko Gutuna abian jartzean datza proiektua.

Proiektu horren %65 Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (FEDER) finantzatu du, Espainia, Frantzia eta Andorra arteko Lankidetzarako Programa Operatiboaren bidez (POCTEFA 2014-2020), eta 3.744.733 euroko aurrekontua du guztira. Horietatik 375.086 euro Nafarroako Gobernuari dagozkie, GAN bidez, eta 984.320 Urdazubiko Udalari.

Edateko uraren hornidura ziurtatzeko xedearen barruan, H2O Gurearen lana Ainhoa eta Urdazubian egin da, bi udalerrien arteko edateko uraren banaketa-sareen lotura eta ur-hornidura zerbitzua abian jarritz. Hamar urterako hitzarmena ere sinatu dute 2018an.

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrizka · BERA  
zubiondojatetxea.com

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

**TXOTX GARAIA IREKIA**

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**

Jarrai gaitzazu!

**facebook**

[www.facebook.com/ttapi.ttapa](http://www.facebook.com/ttapi.ttapa)

**Carnes Sein Haragiak, S.L.**

Industrialdea, 27 · MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 · carnessein@bordako.com



## Kontsumitzailearen bulegoko egunak zehaztu dituzte

Matxora bitarteko harrera egunak zein izanen diren jakinarazi du Malerrekako Mankomunitateak

### MARGA ERDOZAIN

Malerrekako Mankomunitateko kontsumitzailearen udal bulegoaren urte hasierako harrera egunak zein izanen diren jakinarazi dute: urtarrilean 24an, otsailaren 7an eta 21ean eta martxoaren 6 eta 27an zabalduko dute Male-  
rrekako erabiltzaileentzat.

### Laguntza juridikoa eta bitartekaritza

Zerbitzu hau erabiltzeko 948 45 17 46 telefonora deitu behar da hitzordua eskatzeko. Nafarroako Kontsumitzaileen

Elkartea Iratxeren esku dago eta doako bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen du. Erabiltzaileek hainbat alorretan eskatzen ahal dute aholkularitza: etxebizitza, aseguruak, banku eta aurrezki kutxak, etxeko zerbitzuak (gasa, telefonoa, ura, argia...) tailerrak eta zerbitzu teknikoak, komertzioa (bidai agentziak...) administrazioa (zergak, tasak...) eta kontsumoari buruzko guztia. Hilean bi ortziraletan eskaintzen duten zerbitzua Mankomunitateko bulegoetan ematen dute.

## Euskaltegiaren bigarren matrikulazio epea zabalik da

### MARGA ERDOZAIN

Malerrekako IKA euskaltegiak, aurreko urtetan bezala, bigarren matrikulazio epea zabalik du. A2, B1, B2 edota C1 edo EGA ikastaroetan izena ematen ahal da, martxan dauden taldeetan sartuz. Klase presentzialez gain, autoikaskuntzaren

bidez ere ikasteko aukera bada. Interesatuak 948 451555era deitzen ahal dute edo *malerreka@ika.euskaltegiak.eus*-era idatzi. Bigarren urtez Malerrekako Mankomunitateak bul-tzatutako doakotasunaren barne emandako ikastaroak dira bertan errolatuendako.

## Atezain berria institutuan eta eskolan

Ruben Gallego Biurrun da Txomin Mindegiaren lekukoa hartu duen atezaina. Azaro eta abenduan burututako hautaketa probak gaindituta, poliki-poliki Txominen giltza mukurua, hesiaren ardura eta bertze hainbat lanen kontrola hartzen ari da.

## Hurrengo zinema emanaldiak igande honetan

Urtarrilaren 12ko zinema emanaldien ondotik, urteko bigarren hitzorduak finkatu dituzte. Igande honetan, urtarrilak 26, izanen dira: 16:30ean *Copito de Nieve* filma euskaraz pantailaratuko dute eta 18:30ean, zaharragoentzako bertze pelikula bat eskainiko dute.



ARTXIBOA

## Inauteriei begira lanean

Otsailaren 20ko asteburuan ospatuko diren inauteriei begira lanean hasiak dira. Dagoeneko, Udalak deituta, bi bilera egin dituzte inauteriak eta herriko bestak antolatzen hasteko. Lan taldeak martxan badaude ere, proposamenak luzatzeko aukera badute edozein adinetako herritarrek.



Eguberrien atarian, omenaldi beroa jaso zuen Mindegiak lantokian. ZALDUA

## Merezitako omenaldiekin agurtu dute herritarrek Txomin Mindegia

### MARGA ERDOZAIN

Txomin Mindegia *Etxegorrik* pasa den abenduaren bukaeran hartu zuen erretiroa eta irakasleek, lankideek, udal ordezkariak, ikasleek, gurasoek, lagunok... Aunitz izan gara merezitako agurra egin nahi izan diogunak. Agur horietan gure atezaina hunkitzea lortu dugu, bai horixe.

Badakigu ez zaizkizula ospakizunak gustatzen, ezta opariak ere, baina badakigu zure motxilan opari ederra bilduta joan zarela (guztion maitasuna bertso, errima, abesti, bazkari eta topa moduan

eginda). Hezkuntza komunitate osoak zure ibilbidea saritu nahi izan du.

Mila esker *Txomintegian* beti-beti egoteagatik eta gure seme-alabak errespetuz tratatu dituzulako. Mila esker atzendutako liburuak hartzeko ikasgeletako atek irekitzeagatik... Esker mila hainbertze tirta paratzeagatik, mila esker egunero ikastetxeetako atek eta karririk hain ongi zaintzeagatik. Ireki azkeneko atea, zure bizitza berriari ireki leihoak, zure erronka berrien atek zabalik dituzu. Zorte on *Etxegorri!*

## Joaldun eta mozorroak prest inauterietarako

Igandean gaztetxoak herrian barna ibiliko dira eta merienda izanen dute. Izen-ematea ostiralera arte okindegian 3 eurotan

### FERMIN ETXEKOLONEA

Herritarrek urteko hitzordu garrantzitsuenetakoa ate joka dute dagoeneko. Joareei hutsak kentzen ari dira batzuk eta, irudimena martxan dutela, mozorroak prestatzen besteak. Larunbatean hasiko dute ospakizuna eta asteazkenera bitarte mugimendua izanen da herrian.

### Asteburua

Larunbatean afaria izanen dute; igandean, berriz, goizeko puska bildu eta gosaltzeko elkartuko dira. Bazkariak eta afariak ez dute hutsik egingen, eta, ohi bezala, Modesto akordeoilaria izanen dute giroa goxatzeko. Bien bitartean, 17:00etan gaztetxoak herrian barna ibiliko dira. Ondotik, guraso elkarteak antolatutako merienda izanen dute. Izena emateko zerrenda

okindegian dago eta ostiralera arte apunta daitezke hiru euro ordainduta (epezkantxo bost). Jendea animatzeko haur eta heldu baten mozorroa sarritu dutela jakinarazi dute.

### Astlehena eta asteartea

Astlehenean goizik gosalduko dute, joareak jantzi eta Aurtitzera abiatzeko. Elkartean salda hartuta, Iturenera joanen dira. Mahaiaren bueltan elkartuko dira, bazkaltzeko lehen-dabizi eta afaltzeko gero.

Asteartea izanen dute egun handia. Herritarrek beso zabalik hartuko dute aurtiztar eta iturendarren bisita. Ohiko otorduen bueltan giro ederra izanen dute eta festa luzatu nahi dutenek aukera izanen dute. Asteazkenean inauteriak agurtu eta zorrak inatatzeko eguna izanen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Malerreka Kantuz herrian

Martxan da berriz ere Malerreka Kantuz egitasmoa. Aurtengo lehen-dabiziko geldialdia herrian izan zuen urtarrilaren 4an. Herrikoek eta ingurukoek osatutako talde polita bildu zen euskal kantan kantatuz herria girotzeko. Plazatik abiatu eta karriz karriz ibili ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Saharara egindako bisita

Urte batzuk herrian pasa zituen Duba sahararra bisitatu zuten Mikele Etxekoloneak, Naroa Elizaldeak, Maritxu Santxezek, Olatz Baleztenak eta Olaia Loiartek abendu hondarrean. Hiru eguneko bidaiak gozatu bitartean, orduko kontuak oroitzeko eta egungo solastatzeko aukera izan zuten.



IZASKUN ZUBIALDE

## Joare hotsek piztu eta itzalitako festa

Urteroko joare hotsek ez zuten hutsik egin Errege bezperan. Neska-mutil talde ederra bildu zen etxez etxe eta baserri baserri eskean ibiltzeko. Gauean, ohi bezala, herriko estalpean afaldu zuten eta goizaldeko joare hotsekin batera itzali zen festa.



## Otsail hasiera arte inauteri giroa nagusituko da

Iturenen otsailaren 1ean kontuen eguna eginen dute eta biharamunean, Aurtitzen, xaharren afaria

### ARKAITZ MINDEGIA

Hementxe ditugu herrian hain maiteak ditugun inauteriak. Urtarrilaren 23tik otsaileko lehenbiziko egunak bitarte herriko zoko guzietan besta izanen dugu. Egun haundienak urtarrilaren 27a eta 28a izanen dira. Egun horietan aterako dituzte herritarrek mozorroak eta karrozak, eta joaldunek ere protagonismo handia izanen dute. Gainerakoan, ohi bezala, puxka biltzen ibiliko dira herritarrek eta otordurik ere ez da faltako. Aurtitzen elkarrean bilduko dira eta Iturenen Herriko Etxeko ganbaran, musika eta giro onak lagundurik.

### Eskolan ere inauteriak

Pulunpa eskolako haurrek ere inauteriak ospatuko dituzte. Ortziralerako, urtarrilak 24, egun polita antolatu dute; goi-

zean, lehenbiziko bi saioak eskola eman ondotik, maskara tailerra eginen dute eta hirugarren mailako haurrek inauterietako pertsonaiei buruzko erakusketa ere azalduko dute. Eskularen tailerren prestatutako *lipdub*-aren aurkezpenak, inauterietako bideoaren emanaldiak, haurren bazkariak musikariaren doinuek eta joaldunen desfileak borbilduko dute ortziraleko hitzordua.

Ondoko egunetako mozorro besta eta pulunpa doinuek Iturenen otsailaren 1ean Zubeldia eta Soto bertsolarien arrimuan eginen den kontuen egunarekin eta Aurtitzen otsailaren 2an eginen duten xaharren afariarekin borbilduko dituzte.

Inauterietako xehetasun gehiago gehigarrian dituzue.



UTZITAKOIA

## Herritarrek basurde ehizean

Asteburuak joan eta asteburuak etorri, herriko ehiztariak punteria zorrotz-zorrotz dutela erakusten ari dira denboraldi honetan. Batzuetan herritik hurbil eta bertzeetan gehiago ibiliz, basurde andana bota dituzte azken bolada honetan.

## Goiti-beheitiak Pulunpa eskolako obretan

Zimenduak paratu dituzte Pulunpa eskolan, baina dena ez da berri ona; lur mugimenduen ondorioz, erortzeak izan dira eta Ameztirako pista arriskuan dago. Kamioiei pasabidea debekatu diete. Udala eta Nafarroako Gobernua arazoari atarabidea eman nahian ari dira.

## Oihana Mindegia sokatiran eta telebistan

Lesakako Beti Gazte sokatira taldean aritzen da Oihana Mindegia eta azken urteotan fin dabilta, txapelak buru ganean jantziz. Baina ez dira beti sokatiran aritzen. Urtarrilaren 15ean EITBko Gure Kasa programan izan ziren gonbidatu gisa.

## Hiru herritarrek Bardoak egitasmoan parte hartuko dute

Laster abiatuko da Bardoak taldekako bertsolari txapelketa eta edizio honetan herriko bertsolariak hor izanen ditugu: Alazne Untxalok eta Iker eta Egoitz Gorosterrazuk taldea osatu baitute bertze hainbat lagunekin, Bertsonauta. Gaurero buru-belarri ariko dira saioak prestatzen, otsailaren 7an Elgorriagako Herriko Ostatuan izanen baitute lehenbiziko saioa, eta bi egun beranduago, otsailaren 9an, Barañaingo Akelamendi elkartean ari ondotik akituko dute lehenbiziko fasea.



MARIA LARRETXEIA

## Errege bezperaren ondotik inauteriei begira

Joaldunentzat eta joaldun ez direnentzat ere egun berezia izaten da Errege bezperakoa Aurtitz eta Iturenen. Goizean herriko txikienek joareak paratu zituzten eta iluntzean helduei pasa zieten lekukoa.

## Otsailaren 7an eta 8an izanen dira Urrozko inauteriak

Larunbatean eskean ibiliko dira; gazteak baserrietan eta haurrak herrian barna

### TTIPI-TTAPA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, inauteriei eguna jarri diete gazteek. Urteetan inauteri ofizialekin bat etorritz ospatu izan badira ere, aurtan, joan den urtean irekitako bideari segituz, lehenagotik izanen dira: otsailaren 7an eta 8an izanen dira, ortziralean eta larunbatean.

Bi egunetako egitaraua aitzineko urteetakoaren berdintzua izanen da. Ortziralearekin afaltzeko bilduko dira Herriko Ostatuan eta horrela emanen diete mozorro bestari hasiera.

Larunbata izanen da egun handia. Goizean gazteak karroran sartuta baserrietarako bidea hartuko dute eta egun osoa eskean pasatuko dute. Arratsaldean, berriz, haurrak herriko etxeetan ibiliko dira eskean. Etxez etxeko itzulian musikariak izanen dituzte bidelagun.

Inauteriak borobiltzeko, larunbat arratsean herri afaria egingen dute Herriko Ostatuan eta nahi duten guztiek, baita eskean ibili ez direnek ere, parte hartzeko aukera izanen dute.



Oraingoz herriarena den materiala gordetzeko erabiliko dute. UTZITAKOA

## Lehenagoko errota zaharberitu du Herriko Etxeak

### JAIONE ARIZTEGI

Duela gutxi arte herriko zenbait etxerena zen errota zaharra erosi zuen Udalak aitzineko urtean. Erosi ondotik, errotari gaur egun erabilerarik emanen ez zitziola ikusita, zaharberitzea erabaki zuen joan den abenduan kargua utzi berri duen udal taldeak.

Hasteko teilatua konpontzea erabaki zuten eta horren ondotik, leihoak moldatu eta bertze hainbat lan egin zituzten. Zaharberitze lan horiek eginda, itxura ederra hartu du oraingoz herriarena den materiala gordetzeko erabiliko den lehenagoko errota zaharrak.



Aurtan ere gisa aunitzetako mozorroak ikusgai izanen dira. JAIONE MINDEGIA

## Oizko inauteriak otsailaren 15ean ospatuko dituzte

### TTIPI-TTAPA

Inauterien aitzakian, aurtan ere mozorroak jantzi eta bestararako prest dira oiztarrak. Otsailaren 15ean ospatuko dituzte, larunbatarekin, eta egun bakarra izanagatik, egun osoko egitaraua prestatuko dute.

09:00etan elkartean gosaltzeko bilduko dira eta indarrak hartu ondotik, haurrak eta helduak elkarrekin etxez etxe puskak biltzen ibiliko dira. Agerralde donamariar akordeoilaria izanen dute etxez etxeko itzulian bidelagun. Goizeko harat-honaten ondo-

tik, 14:00 aldera mahaiaren bueltan bilduko dira. Elkartean bazkalduko dute eta arratsaldean goizean gelditzen diren etxetara bisita egingen dute inauterizaleek.

Gauean, 21:00etan, berriz, afaltzeko elkartuko dira, aldi honetan Herriko Ostatuan. Nahi duenak izanen du afarira joateko aukera, baina aitzinetik ostatura deitu beharko du izena emateko. Afalondoan besta luzatu nahi duenak ez du aitzakiarik izanen, gorpuzta astindu bidenabar, Agerralderen doinuekin dantzarako aukera izanen du.



ARTXIBOA

## Beintza-Labaienen mozorroak prestatzen

Eskualdeko beste hainbat herritan bezala, Beintza-Labaienen ere zehaztu dute aurtengo mozorro besta noiz izanen duten. Otsailaren 14an eta 15ean ospatuko dituzte inauteriak, ortzirale eta larunbatarekin. Xehetasun gehiago hurrengo TTIPI-TTAPAN emanen dugu.



## Bidasoko izokinaren babesleen lehen emaitzak Oronozen

Boluntario-programarekin bat egin duten arrantzaleen lehen borts izokinak haztegiara eraman dituzte

### TTIPI-TTAPA ORONOZ

Nafarroako Gobernuko Oronoz-Mugairiko arrain-haztegiaren borts izokin (lau eme eta ar bat) sartu zituzten urte hasieran, *Izan zaitez Bidasoko izokinaren babesle* boluntario-programaren barnean.

Errunaldiaz instalazioko teknikariak arduratu dira. Halaber, ilbeltzaren 3an egindako ekitaldian egon dira bertze horrenbertze ale babestutako borts arrantzaleak.

Programa Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak sustatu zuen LIFE IREKIBAI

proiektuaren bitartez; proiektu hori Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (GAN / NIK) enpresa publikoak koordinatzen du herrialdean, izokinaren arrantzaleen eskaerari erantzutearren. Bidasoko arroko hainbat arrantzale-elkartek eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ibaia zaintzeko sinaturiko protokoloan kokatzen da ekimena, eta horren bitartez, Nafarroako Gobernuak beharrezko babesa eskaintzen du horrela nahi duten arrantzaleek bizirik harrapatutako izokinak beren bo-

rondatez Ingurumeneko Bazoaintzari eman ahal izateko.

Borts babeslek izokinak arrain-haztegiara eramatea hautatu zuten, eta, infekzioen kontrako prebentzio-tratamenduak jaso eta zauriak sendatu ondotik, behar bezala osatu ziren.

Nafarroako Gobernuak programaren lehen kanpainaren inguruan balantze «hagitz positibo» egin du. Arrantza-denboraldian harrapatutako 47 izokinetatik borts bizirik eman zituzten (harrapatutakoen %11), baina bertze batzuk ezin izan zuten arrantzalditik bizirik atera, nahiz eta arrantzaleak bizirik arrantzatzen saiatu.

Aleen pisua eta tamaina dela-eta, 40.000 arrautza inguru ekoizteko gai izanen direla uste da, eta arrainkumeak Bidasoa ibaian botako dira datorren udaberritik aitzinera, horretarako behar adinako tamaina eta pisua hartzean.



Andoni Esparza, heraldikan aditua.

## Euskal Herriko armarren historiak solasaldia izanen dute Lesakan

### TTIPI-TTAPA LESAKA

*Zazpiak bat: Euskal Herriko armarren historia* solasaldia eskainiko du Andoni Esparza heraldikan adituak urtarilaren 24an, ortziralean 19:00etan Lesakako udaletxeko pleno-aretoan. Esparzak errana da Europako landa-eremuan ez dela Baztan-Bidasoaldean adina armari dituen bertze eskualderik.



PROMOCIONES  
**MALERREKA**

Informazioa: **629 951 170** (Aitziber)



**AUKERA  
BIKAINA  
Sunbillan!**

**9 ETXEBIZITZA:**

**115m<sup>2</sup> arteko etxeak**

**3 atiko**

**3 edo 2 logelakoak,  
sukaldea, egongela,  
2 bainu, trastelekuak  
eta lurpeko garajeak**

**Lokal komertzialak**



**EZKAIN  
ERAIKUNTZAK-ek  
eraikiak**



✓ Zure beharren araberako finantziarioa,  
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

## 2019a urte emankorra izan da elkartearentzat

Otsailean kobratuko dute urteko kuota. Hortaz, norbaitek elkartetik atera nahiko balu urtarrilean egin beharko luke

### PABLO IRASTORTZA

2.922 bazkideentzat eskaini zituen bidaia, jarduera, lehiaketa eta bertzelako aferengatik eta kideen parte-hartzeagatik, urte emankorra eta borobila izan zen 2019a elkartearentzat. Lau urteko ibilbidearen ondotik, ekainean zuzendaritza batzordea berri zuten eta hiru ordezkari sartu ziren: Maritxu Telletxea Sagaseta, Fermin Azpiroz Martinikorena eta Pablo Irastortza Ugaldebere, luze eta gogotsu lan egin duten Maria Eugenia Arozarena Sanzberro, Jose Ignacio Telletxea Inda eta Fernando Etxeberria Mariezkurrenaren ordez.

### Bidaia, irteerak eta mendi bueltak

Hagitz gustagarriak izan dira 2019an egin zituzten 17 irteera eta egonaldiak. Guztira 2.373 bazkidek hartu zuten parte eta jendetsuena urtero egiten den bazkide-eguna izan zen (590 kide bertan elkartu ziren). Dantxarinear ospatzen duten Euskal Kantu Zaharren Eguna ere kide andana joan zen (363 lagun), bazkari eta kantu zahar ederrez gozatzeraz. Badiara urtero huts egin gabe egiten dituzten bertze ateraldi arraskatsu batzuk ere. Adibidez, 223 bidaiari joan ziren uztailean Aralarra eta bertze 210 lagun abuztuan egiten den Arantzazukora, 142 Lezora, 117 Iruñera, 112 Xabiererra, 107 Bilbora... Horiez gain, elkarteko zortzi lagunek, bi urtez, guztira 29 egunez, Santiagoko Bidea akitu zuten.

Hamahiru izan ziren 2019an egindako mendi bueltak, gehie-

nak inguruko herrietan. Horiak gero eta arrakasta handiagoa dute. Urtean zehar, 730 mendizale izan ziren hilabetero mendiz mendi zangoak astindu zituztenak. Etxalarko Aitxuri mendian izan zen parte-hartzaile gehien (75 lagun). Erran behar da, aldiro 50 lagunetik goiti elkartu zirela hilabetearen hirugarren astearteroko hitzordu xarmentetan, lagun-giro, umore eta adiskidetasun jatorrean. Dena zuzen ateratzeko herri edo irteera bakoitzeko arduradun edo antolatzaileek lan handia egin dute: «mila esker eta benjondeizuela denoi!».

### Mus txapelketa

Zaletuek gogotsu hartzen dituzte mus txapelketa egunak. Denera 1.000 bat lagunek parte hartu zuten 2019ko hitzorduetan. Juanito Deskarga eta Migel Baleztana izan ziren iazko txapeldunak.

Ezin dira aipatu gabe utzi, nekerik gabe kirol ariketetan ibili diren 750 gizon eta emakumeak, herriz herri solasaldietara joan ziren 220 lagunak, marrazki eta pintura, argazkilaritza edo literatura lehiaketetan aritu ziren artistak edota urtean zehar Doneztebe, Elizondo eta Leitzako azoketan beraien esku lanen erakusketak egiten zituzten guztiak.

### Urteko kuota

Urte hasierarekin batera, otsailean urteko kuota kobratuko dutela (12 euro) eta elkartearen utzi nahi dutenek urtarrilean egin beharko dutela jakinarazi dute.



Italiako bidaiak ikusmira handia eragin zuen.



Atxuria mendira egin zuten irteeran bildu ziren mendizale gehien.



Kantu Zaharren Eguna 363 lagun joan ziren.



Elkarteko kirolariak Soinketa Egunean.



# inauterialak 2020



## Sunbilla

### egitaraua

#### Ilbeltzak 24, ortziralea

**09:00etan** Ariztigain kanpinean gosaria. **Ondotik** herriko gazteak bi taldetan banatuta baserrietako eskea egingen dute Modesto eta Joxe Angel akordeolariekin. **Eguerdian** bazkaria egingen dute Exkernekobordan Mendaur aldekoek eta Bustitzen bertzeek. **Arratsaldean** txokolate jatea. **16:30etatik 19:30era** dantzaldia frontoian Alberto Djaren eskutik. **21:30ean** eskean dabiltzanen afaria Fondan eta emakumeen afaria Ulibeltzak Elkartearen. Emakumeek **afalondoan** sorpresa izanen dute.

#### Ilbeltzak 25, larunbata      ilbeltzak 26, igandea

**10:00etan** Bustitz ostatuan gosalduta, eskean ibiliko dira gazteak Beñat akordeolariak lagunduta. **Ondotik** bazkaria egingen dute Fondan. **17:00etatik 20:00etara** Disko Festa izanen dute Ulibeltzak Elkartearen Alberto Djarekin. **Gauean** gazteek Elortxuri jatetxean afalduko dute.

**11:00etan** karrozen desfilea. Desfileko denboran opilak, gaztainak, tortilla eta ardoa banatuko dituzte. Desfilea bukatutakoan, bi magren eta bildotsaren zozketa. **14:30ean** bazkaria Ulibeltzak elkartearen eta **bazkalondoan** dantzaldia Santxotenarekin.



Ongi pasa inautiak!

**Bustitz**  
ostatua

T. 948 627 919  
Leku Eder - SUNBILLA

PINTXOAK • RAZIOAK  
HAMAIKETAOKAK  
KAXULAK • BOKATAK

INAUTERIETAKO  
MENU BEREZIA

JANARI - JENDA

**MARISOL** SL ONGI PASA INAUTEAK

JANARIAK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA  
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

IDIAZABAL

**Lizun**  
GAZTANDEGIA  
ONGI PASA INAUTERIARIKI!

Sunbilla - Tel: 948 450 862

**SASOI**  
eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA  
T. 948 451 596 F. 948 456 168  
info@sasoi.es

Ongi pasa inauterialak!

**larreta** lanak sl

IGELTSU PROIEKTUA  
PLADUR LANAK

Bera - Nafarroa  
larretaigeltsua@gmail.com  
larretalanak.com

Gorka Arretxea 627 225 514    Juanen Saralegi 637 921 299



**ALTZURI**  
ONGI PASA INAUTERIAK!

MENDI LANAK  
EGUR ATERATZEAK  
ESKABAZIOAK  
GARRAIOAK  
GARBITZE MEKANIKOAK  
ITXITURAK

Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA  
altzuris@yahoo.es - Tel. 948 450 504  
M. 659 867 287 - 699 461 394

SU EGURRA ETA  
PIKETEAK SALGAI

**INAUTERIETAN**  
zure gosari eta bazkariak  
**ARIZTIGAIN**  
KANPINEAN!!

ONGI PASA INAUTERIAK!!

SUNBILLA • 948 450 540  
info@campingariztigailain.com  
www.campingariztigailain.com

**HARATEGIA  
CARNICERIA**

**M<sup>a</sup> JESUS**

Karrika Nagusia, 11 · SUNBILLA  
T. 948 451 530 · M. 686 279 252

ONGI PASA  
INAUTERIAK

ZONALDEKO KALITATEZKO HARAGIA  
ETXEKO PRODUKTU PRESTATUAK  
ZONALDEKO GAZTAK

**SUNBILLAKO UDALAK**

Inauteri zorionsuak  
opa dizkizue  
sunbildar eta bisitari guztioi

*Sunbilla*



## «Urteko ospakizunik hoberenak dira inauteriak, laburrak baina intentsoak»

**Ekaitz BERTIZ APEZETXEA**  
Sunbillako gaztea

**K**ameraren gibeletik, munduari begira. Halaxe, irudikatzen du bere burua Ekaitzek etorkizunean. Hamasei urte bertzerik ez izan arren, argi du etorkizunean zertan aritu nahi duen: «argi daukat zinemaren munduan lan egin nahi dudala, eta horretaz gain argazkiak ateratzen eta bideoak egiten aritu».

### Autodidakta

Txikitatik gustatu izan zaio argazkiak ateratzea, baina duela pare bat urte piztu omen zitzaion interes berezia: «amak kamera bat erosi zuen eta momentu horretatik aurrera, nire kabuz Interneten irakurtzen, bideoak ikus-

ten... hasi nintzen». Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago nahi; harra barru-barruraino sartzen joan zitzaion: «denean bezala praktikatu egin behar da hobetzeko eta pixkanaka ikasiz, argazkilaritzarekiko interesa eta ikasteko gogoak handitu egin zaizkit».

### Kamera lepotik zintzilik

Beraz, ez da harritzekoa, doan tokira doala, kamera lepotik zintzilik ibiltzea. Argi dio gainera, «kamera eta ez mugikorra. Argazkiak ateratzeko orduan kamera erosoagoa iduritzen zait eta irudien kalitatean ere nabarmena izaten da batzuen eta bertzeen aldea gehienetan».

**«Pixkanaka nire kabuz ikasiz, argazkilaritzarekiko interesa eta ikasteko gogoak handitu egin zaizkit»**

**«Inauterietako hiru egunetan kamera bere poltsan gordeta utziko dut deskantsatzeko»**

**Bidasoa** 24h

Gurpil salmenta · Tailerra · Gasolio banaketa · Gasolindegia

Tel.: 948 625 663 · 609 446 693  
e-mail: nbidasoa@gmail.com

Aikaiaga Industriaidea  
Ziobi Kalea 6  
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industriaidea  
Y Kalea 10  
31110 Noain (Nafarroa)





Batez ere, bidaien bideoak egitea gus-tuko duela erran digu: «leku batera bidaiatzen badut, bertako txokoak, paisaiak... modu originalean, musika eta efektu desberdinak erabilia, irudikatzen saiatzen naiz». Ez hori bakarrik, gidoilari eta zuzendari lanetan ere aritua da dagoeneko: «lehen-gusuekin hainbat film labur eginak ditut». Argazkilaritzari dagokionez, berriz, pertsonen erretratuak ditu gustukoak: «aldi berean, gehien praktikatu dudan modalitatea da, baina paisaia argazkilaritza ere oso gustuko dut». Sunbillan argazki bat atera beharko balu, badaki non eta nola: «Oteixon menditik aterako nioke herriari argazkia, goizean behe lainoaren presentzia pixka bat dagoenean».

### Inauterietan salbuespena

Urtean gutxitan ematen dio atsedena kamerari, baina inauterietan izaten da hori: «nire herriko inauteriak ez balira seguruenik hartuko nuke tarte bat argazki edo bideoen bat egiteko, baina hiru egun horietan kamera bere poltsan gordeta utziko dut deskantsatzen». Izan ere, data seinalatuak dira beretzat: «inauteriak oso gustuko ditut, niretzako urteko ospakizunik hoberenak dira; laburrak baina intesoak». Orain arte, «inauterietako ortzirailean eskolara joan eta gauean

parranda egitera ateratzen ginen. Larunbatean berdin eta azkenik igandean, karrozen desfilean ateratzen ginen». Aurten, ordea, aldaketa heldu da: «hamasei urte bete ditugunez, eskean ateratzeko aukera izanen dugu». Gogotsu dago: «urteko egunik politena dela entzun izan diegu hainbat herritarri eta aurten guk ere probatzeko aukera izanen dugu». Ongi ikasia du eguneko plana: «goizean denok elkarrekin gosalduko dugu eta ondoren bi taldeetan banatuko gara eta baserri baserri ibiliko gara. Jatekoa eta edatekoa eskainiko digute baserriarrek eta parranda ederra izaten omen da. Bukatzeko afaria egiten da».

### Karroza desfilea

Larunbatean ere bueltaxka egin eta igandean mozorroa soinean jartzeko eguna izaten dute: «hiru urte dar-matzagu kuadrillan karroza egiten, baina ez gara asko. Gurea izanen da beharbada karrozak egiten dituzte-netatik talderik txikiena. Horregatik, aurten beste kuadrilla batekin elkar-tzea erabaki dugu».

Inauteriak baino hilabete bat lehenago edo hasi ziren mozorroa eta karroza prestatzen: «baina mozorro guztiek ez dute lan berdina, eta batzuk denbora laburragoan egiten ahal diren bezala, beste batzuk denbora gehiago behar dute». Orain arte jantzi izan dituen mozorroen gainean gal-detuta, «duela bi urte, Jack Sparrow pertsonaiaz mozorrotu nintzeneko» azpimarratu digu: «Piratas del Caribe filmetako protagonista, oso pertso-

### «Inauterietako eskea, urteko egunik politena dela entzun diegu hainbat herritarri eta aurten guk probatzeko aukera izanen dugu»

naia xelebrea eta barregarria iruditzen zait eta ederki pasa nuen bere paperean sartuta». Gustura zein mozorro jantziko ote lukeen galdetuta, berriz, «Mexikoko hildakoen eguneko mozorroa» aipatu du.

Ez dakigu, aurten lagunartean jantziko duten mozorroa hori izanen den. Isilean gorde du sekretua. Jakin nahi duenak igandean Sunbillara joan bertze aukerarik ez du izanen. Eta joaten denak argazkiren bat aterako balu ere, gaizki ez, herriko argazkilaria gazteak pestarako egun libreak hartu ditu-eta.

## JAVIER IBARRA

ERAIKUNTZAK • GREMIOEN KOORDINAZIOA  
MOTA GUZTITAKO IGELTSERITZA LANAK

ONGI PASA  
INAUTEAK!!

- Etxe bizitza berriak
- Zahar berritzeak
- Erreformak • Teilatuak
- Komun eta sukaldeak
- Lur zoruak
- Harri lanak orokorrean
- Hormigoia lanak

T. 699 122 815  
31791 - SUNBILLA  
(Nafarroa)



## IRURI MOTOR

Aukerako autoak  
Turismo eta furgoneten salmenta  
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA INAUTERIAK!

T. 948 450 399 • 620 950 687  
Iruña-Iruñ errepub. zaharra | SUNBILLA



## MENDEBERRIA

eskabazioak S.L.

ONGI PASA INAUTERIAK



GARRAIOKO OPERADOREAK  
KAMIOIAK TRAKZIOAREKIN ETA BAINERA

LEKU EDER 13 • 31791 SUNBILLA

675 266 027 (ANDONI) 657 580 551 (JUAN LUIS)  
BULEGOA 948 450 108 • 672 098 384



**abarun**  
AURTIZKO ATERPEA

Gosariak  
Pintxoak  
Menuak  
Telf: 948 45 00 67

ileapaindegia  
**EIDERA**  
Estetika

Asteartea, ortzeguna  
eta larunbata GOIZEZ  
Asteazken eta ortzirala  
ARRATSALDEZ

Kontsejo, 6 · ITUREN  
T. 630 633 445

# Ituren zubietan aurtitz



## egitaraua

### Ilbeltzak 27, astelehena

Goizean gosaldu eta indarrak harturik, **Zubietako** joaldun, mozorro eta karrizek **iturendarrak bisitatuko** dituzte. **Bide erdian, aurtiztarrekin elkartzeko** eta salda beroa hartzeko geldialdia egingen dute. Iturenen bertakoekin bilduta, mozorro artean eta joareen soinupean ibiliko dira herritar eta bisitariak. Zubietan Modestok girotuko ditu otorduak (egunero) eta Iturengo estalpean Olakorekin dantzaldia izanen dute.

### Ilbeltzak 28, asteartea

Bezperako bisita itzuliko diete **auriztar eta iturendarrek, Zubietako plaza hankaz goiti** paratuz. Arratsaldean Iturenen Bixente ariko da.

### ilbeltzak 29, asteazkena

**Zubietan**, Ituren eta Aurtitzen ez bezala, **kontuak** egiteko eguna izaten da. Goizean goiztik puskak biltzen ibili ondotik, gosaria izanen dute. Bazkaldu ondotik, berriz, kontuak egingen dituzte. Arratsaldean joareak jantzi eta harat honatean ibiliko dira joaldunak. **Aurtiztar eta iturendarrak** ere ere **etxez etxe** ibiliko dira joaldun eta trikitilariekin. Iluntzean afariak izanen dituzte elkarreetan. Iluntzea girotzeko Iturenen Kristianen eskutik musika izanen dute.

### Otsailak 1, larunbata

**Kontuen eguna** izaten da **Iturenen**. Zubeldia eta Soto bertsolariak lagun dituztela Herriko Etxeko ganbaran bazkaria izanen dute. Bazkaldu ondotik, afarira bitarte dantzaldia izanen dute Hauspolariet taldearekin.

### Otsailak 2, igandea

**Kontuen eguna** izanen dute **Aurtitzen** eta xaharren afaria egingen dute.

**Pitti** MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK  
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

**ALTXUNEA**erretegia

ongi pasa inauteriak!

IREKITA: ostegun eguerditik igande eguerdira,  
besta egunetan eta besta bezperatan

Tel. 948 450 410 | ITUREN | NAFARROA

Iturengo eta Zubietako Udalek inauteri zorionsuak opa dizkizute herritar eta bisitari guztiei

ITURENGO UDALA ZUBIETAKO UDALA

**BEROTZA** PELLET

Berogailua, Galdara, Sukaldea, Galdara Mistoa

**Pellet banaketa ETXERAKO ZERBITZUA**

ZAKUETAN (15 kg), GRANELEAN

T. 948 450 063- 620 886 443 • info@berotza.es • www.berotza.es • 31745 ITUREN (Na)





## «Urtero urtero beztitu naiz mozorro, tapa-tapa egin eta martxa festara»

**Maribel ELIZALDE MINDEGIA**  
Labaienen sortutako zubietarra

**B**izitzaz gozatzen ari dela nabari zaio Maribel Elizalderi, «urte sail ederra lanean aritu ondotik, espezial bizi naiz lanea joateko erlojuari begiratu gabe». Paseoan ibili, etxekoekin egon, lagunarteko momentuetaz gozatu eta batetik bestera bidaitzeko baliatzen du denbora. Kanpoan da orain eta inauterietarako justu-justuan bueltatuko da herrira: «astelehenean heldu gara bueltan eta Zubietako egunean behintzat herrian izanen gara. Pena nuen, ez baitugu behin ere hutsik egin inauterietan». Aurren, prestaketa askorik gabe «maleta desegin gabe utzi, mozorroa beztitu, tapa-tapa egin eta martxa festara!».

### Inauterizalea

Labaiendarra da sortzez, baina aitortu digu: «berrogeita sei urtez bizi naiz hemen eta dagoeneko zubie-tartu naiz». Bere eginak ditu herriko ohiturak ere: «inauterizalea naiz oso, otordu guztiak egiten ditugu». Eta noski, mozorrorik gabe ezin inauteriarik ulertu. Beztitzeko ganbarako altxorak erabiltzen dituela azaldu digu: «etxeko trapu-zaharrak, gitarra, fregona, karraka, maleta zaharrak... urtero asmatzen dugu zerbait». Helburua, inork ez ezagutzea izaten da, «baina baten pausoa dela, bestearen gorpuz-

kera... tankera hartzen diogu elkarri. Bazkaltzeko denborarako hizketagaia izaten dugu».

Otorduak borobiltzeko, Maribelek egiten dituen piper opilek ere badute sona: «herriko amona batek erakutsi zigun egiten. Frankoren garaian, ez zen zilegi inauteriak egitea. Altxaketan egiten zituzten menditik herrira gazteak etortzen zirenean eta postretarako piper opilak egiten zituzten. Berak erakutsi zigun nola egin».

### Betiko osagaiak

Inauteriak ez direla askorik aldatu ere aipatu digu: «mozorroak, joaldunak, gosariak, otorduak, musika... hori dira Zubietako inauteriak». Estalpean bizi diren momentuak ditu gustukoak: «gaztetan sartzen direnek denen aitzinean egiten duten dantza, jolasak, bromak, musika... berezia da sortzen den giroa».

Bisitariak ere ez dira falta azken urteetan, «baina beti izan dira». Inauteriarik bizitzeko moduarekin, mozorroen bihurrikeriekin, «batzuk conforme eta besteak ez, baina etortzen denak errespetatu egin behar du eta egin behar dena da arropa zaharrekin etorri». Eta trapu zaharrak astintzen hasita, ez ote da hobe goitik beheiti mozorrotzea? Horrela, Maribel eta konpainiari gehixeago kostako zaie bazkalondoan, nor da nor jolasean aritzea.



**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

📍 Kanttonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 [www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)

---











**MADERAS SANTESTEBAN**

Ongi pasa inauteriak!

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)

Bigak

Montajea obran

Teilaturako egiturak (izei, haritza eta douglasezkoak edo laminatua)

Osagarriak

Autoklabe tratamendua

[www.maderasantesteban.com](http://www.maderasantesteban.com)

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77

[info@maderasantesteban.com](mailto:info@maderasantesteban.com)





**ECHEVERRIA**  
ZURGINDEGIA




**ABANTAILAK**

**ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE**

Egiturak	Eskailerak	Ateak	Lurrak
			
Armairuak	Sukaldeak	Egurrezko leihoak	Leiho mistoak
			

Leitza errep. · 31745 ITUREN  
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164  
[carpinteriaecheverria@yahoo.es](mailto:carpinteriaecheverria@yahoo.es)



**LEITZELARREA S.L.**

Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20  
Tel: 948 510 598 · 669 368 991  
LEITZA

**DIA**   
**OKABIO**

SUPERMERTATUA  
KAFETEGIA

Ihote zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

T. 948 510 731  
Landa Etxea  
Leitza

ongi pasa ihoteak!  
**MAIMUR**

· Prentsa · opariak · testu liburuak  
· Plastifikatzeak · enkuadernatzeak  
· Inprenta lanak · fotokopiak

Herriko Plaza  
LEITZA

Tel. - Faxa:  
948 510 146

maimurleitza@gmail.com

Melo  
Pinturak

koop.

T. 609 873 178

LEITZA

www.pinturasmelo.com  
pinturasmelos@gmail.com



**MAXI VICENTE**  
ERAIKUNTZAK

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 606 307 810

 **Lizarraga**  
harategia  
Gurea, kalitatea

ongi  
pasa  
ihoteak!

EROSKI CITY Elbarren, 71 behea - LEITZA - T. 948 510 007  
T. 676 785 768 | 657 774 641

**EROSKI** city

Urdaitegia

Harategia

Arraindegia

Frutategia



Tel: 948 510 007 · 948 610 657  
Elbarren, 20-71

ongi pasa  
ihoteak!

  
**LEITZAKIROLAK**

Urtarrilean eta otsailean  
**MERKEALDIAKI**

Elbarren, 36 · LEITZA

Tel. 948 610 976

info@leitzakirolak.com  
www.leitzakirolak.com



# leitza



## egitaraua

### Ilbeltzak 24, ostirala

**15:00 aldera** eskolako umeen kalejira herrian barrena.

### Ilbeltzak 25, larunbata

**14:00etan** Aurreran bazkaria eskean aterako direnzentzat. **16:00etan** herriko auzoetan eskea. **20:00etan** presoen aldeko kalejira plazatik abiatuta, Elkartasun Taldeak antolatuta. **21:30ean** apustularien afaria Ateka-beltzen. **00:30** apustularien Ludojira plazatik abiatuta. **01:00** Jokularien karaokea Ateka-beltzen.

### ilbeltzak 26, igandea

**12:00etan** gurdien irteera eta mozo-roen kalejira Incansables txaranga-rekin. **12:00etatik 14:00etara** Txu-txu trenna herrian barrena. **14:30etan** bazkaria eskolako jangelan eta ondoren Incansables. **16:00etatik 18:00etara** Txu-txu trenna herrian barrena. **19:00etatik 23:00etara** Joxe Mendizabalekin musika plazan.



**PERITZA**  
TABERNA

Ihote onak pasa  
eta txinxo ibili  
MILA ESKER  
ANTOLATZAILEEI







## Ilbeltzak 27, astelehena

**09:00 aldera** Gorritaran, Arkiskil, Erreka eta Sakulu auzoetako eskea txistulariek eta Incansables txarangak lagunduta. **17:00etan** umeen kalejira trikitilariekin. **Ondoren** txokolate jatea eta goxokiak plazan. **19:00etatik 23:00etara** Joxe Mendizabalekin musika plazan.

## Ilbeltzak 28, asteartea

**09:30etan** Erasote auzoan eskea herriko txistulariekin. **11:00etatik 13:00etara** puzgarriak frontoian. **14:30ean** eskelarien bazkaria Aurre-ran. **16:00etatik 18:00etara** puzgarriak frontoien. **18:30ean** atsaretuen kalejira herriko musikariekin. **19:30etik 21:30era** eta **23:30etik 01:30era** Gabenara taldea plazan.

## Ilbeltzak 29, asteazkena

**17:00etan** Azken balea haurrentzako emanaldia eskolako jangelan.

Argazkiak: Pablo FEO





**OGI BERRI**  
ARTESANOS PANADEROS  
**KAFETEGI OKINDEGIA**  
948 610 974 | LEITZA

Egunero egiten ditugu  
**PIZZAK**



**ONGI PASA IHOTEAK!**



**SAGASTI JATETXEA**  
ongi pasa ihoteak!



Elbarren, 98 · LEITZA · ☎ 948 610 637



**Lopenea**  
Ihote onak pasa!



Elbarren, 47 - LEITZA  
606 27 35 34 · 688 64 08 34  
[www.lopenea.com](http://www.lopenea.com)

BOKATAK · KAXULAK  
MENUA · PINTXOAK  
PLATER KONBINATUAK



Ongi pasa ihoteak!

**FISIOETXEA**  
Ane Egizabal Llata  
Fisioterapeuta

Bizkortze ariketak · Kirol eta Zirkulazio Masajea · Osteopatia  
Erditze aurreko/ondorengo tratamendua  
Etxez etxeko laguntza · Aseguruak  
Mutuak · Partikularrak

Huarte Gotzaia, 8 3.C · LEITZA · Tel: 948 510 730



**ONGI PASA IHOTEAK**

Jantziak - Loreak  
Jostailuak - Papertegia  
Etxeko Tresnak  
Garbiketarako Produktuak  
Herramientak - Oinetakoak  
Pijamak - Osagarriak

Landabekoa - Leitza - T. 948 510 437 - 667 675 463

# gaztelu scl

KALEFAKZIOA · SANEAMENDUA · GASA · ITURGINTZA · KLIMATIZAZIOA  
BAITA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE

Landa Behikoa Ind, 21 • LEITZA  
T. 948 510 086  
[info@fontaneriagaztelu.com](mailto:info@fontaneriagaztelu.com) • [www.fontaneriagaztelu.com](http://www.fontaneriagaztelu.com)

**ONGI PASA IHOTEAK!**



**EROSI ONLINE**

[www.lamascara.es](http://www.lamascara.es)

# LA MASCARA

Inauterietako mozarroetan den-dena daukagu  
Era guztietako osagarrien salmenta  
Makillaje profesionala

**www.lamascara.es**  
[mascara@lamascara.es](mailto:mascara@lamascara.es)

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04





Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz  
MENDILLORRI 628 725 397 David

Ihote zoriontsuak deno!!

**tantada**  
iturgintza - fontanería

Tel.: 680 255 718 IMANOL ECHEVERRÍA

ERAKUSKETA Elbarren 51, LEITZA

Aire egokitua • Iturgintza orokorra  
Aerotermita • Eguzki plakak • Lurreko suak  
Biomasa • Egurrezko galdarak  
Peletezko galdarak eta estufak  
Zoru bero-emalea • Gremioen koordinazioa

KONPROMISO GABEKO AURREKONTUAK

SALDIAS • tantadaiturgintza@gmail.com



**ATSEDEN-GOZO**

PINTXOAK, BOKATAK, PIZZAK...

BERTAN JATEKO eta BAITA ERAMATEKO ERE.  
ONGI PASA IHOTEAK!



www.facebook.com/atsedengozo

Landabekoa 1zk kalea · LEITZA · 948 610 572

**EZKAIN** eraikuntzak S.L.



ongi pasa  
ihoteak !!

Lizarraga, 3 • LEITZA  
M. 650 910 868 • 650 910 867  
T/F. 948 610 956 • 948 610 956  
ezkainl@gmail.com

Leitza



## «Herrian eta baserrietan eskean ibiltzeko ohitura ez da inoiz galdu»

**Jose Luis HUARTE AZPIROZ**  
Leitzako txistularia

a 35 urtez Leitzako liburutegian lanean aritu ondotik, erretiroa hartua du Jose Luis Huartek. Bizimodu lasaiagoa daramala dio, bere afizioei eta gerorako utzitako lanei denbora eskainiz: «Irakurtzea, musika entzun eta praktikatzea; etxeko eta etxe inguruko lanak egitea, etxekoekin harremanak zaindu eta azken urteetan bildu ditudan zientoka dokumentu, argazki, artxibo, txukundu eta lantzea» dira orain bere egunerokoaren parte.

### Txistu doinu goxoa

Liburutegian egindako lanagatik bezain ezaguna da Jose Luis bere txistutik ateratzen den doinu goxoagatik. Txistulari taldeko kidea da eta urteak daramatza herriko ekitaldi nagusienak girotzen: «normalean bospasei txistulari eta bizpahiru atabal ibiltzen gara, baina egun seinalatuetan dozena bat txistu eta lau atabal baino gehiago bildu izan gara. Gainera, aurten bat gutxiago izanen gara. Beti jotzeko prest zegoen txistularia joan zitzaigun iaz, Jabier Eskubi».

Leitza ez da lo dagoen herria eta ondorioz, agenda bete-betea izaten dute txistulari taldekoek: «Errege bezperan hasten dugu urtea Kabalgata lagunduz. Gero, inauterietan etxez

etxeko eskean ibiltzen gara. Herrian larunbatean eta baserrietan astelehenetan eta asteartean baita astearteko atsauren kalejiran ere». Udan izaten dute berriro ere denboraldi indartsua: «San Juan bezperan, pesta aurreko umeen egunean eta pestetan dianak, kalejirak, dantzarien saioak... izaten ditugu». Azaroko azoka dator gero eta Orantzaroko egunean eguerdi eta arratsean ere aritzen dira. Dena

### «Arbola doinuak, Frankiko trenak eta txistuarekin jotzen ditugun dozenaka piezek osatzen dute inauterietako giroa»

den, agenda ofizialek kanpo ere izaten dituzte hitzorduak: «urte guztian zehar dantzarietara herrian eta herrikan kanpo ibiltzen gara eta deitzen gaituzten edozein ekitalditarako ere prest egoten gara».

### Inauteriak girotuz

Inauterietakoa dute hurrengo hitzordua eta «eskearekin» lotzen ditu zuzenean Jose Luisek, hiru egunez ibiltzen baita eskelariek batera. Azaldu digu





larunbatean ordubietan egiten dutela hitzordua: «herriko alde zaharra, Manuel Lasarte eta Uharte Gotzaina inguru lazteria egiten dugu egun horretan». Biharamunean ez dute eskerik izaten, baina astelehenean 09:00etarako izaten dute zita: «Sakulu, Erreka eta Arkiskil zati bateko baserrietara egiten dugu bisita eta asteartean, 09:30ean elkartuta, Erasote auzoan egiten dugu eskea».

**«Baserrietako eskea oso berezia da: egiten diguten harrera, izaten dugun giroa, umorea, kantuak eta dantzak... bikaina da!»**

### Inauterien doinua

Musika izaten da gehienetan festa giroa pizten duen txinparta eta Leitzako inauterietan ere, badira herria guztia dantzan jartzen duten doinuak. Leitzako inauterietan izan den orok aditua izanen du *Arbola doinua* «kanta horrek bere toki propioa hartua dauka Leitzako inauterietan», baina ez da bakarra, «*Arbola doinuak, Frankiko trenak* eta txistuarekin jotzen ditugun dozenaka piezek osatzen dute inau-

terietako giroa». Txaranga, txistu eta bestelako musikarik gabe, inauteriak ez lirateke direna izanen.

### Eskean giro berezia

Eskean izaten duten giroaz galdetuta, segidan erantzun digu «oso ona» izaten dela: «larunbatean gazteekin giro ederra sortzen da eta baserrietako eskea, berriz, oso berezia da: egiten diguten harrera, izaten dugun giroa, umorea, kantuak eta dantzak... bikaina da!». Hain juxtu, «herriko eta baserrietako eskea mantendu izana» hori da Jose Luisen ustez Leitzako inauterien berezitasuna, «ez dela inoiz galdu ohitura hori».

### Garai bateko oroitzenak

Denboran atzera egiteko eskatu eta ume eta gazte garaietako inauterien inguruan ere galdetu diogu. Hainbat oroitzenak ditu gogoan, debekuei iskin egiten zietenak ere bai: «umetan eskea orain bezala egiten zen eta iluntzean plazan dantzaldia txistu eta akordeoiarekin. Atsauretzea galarazia zegoen eta bat-batean oihiak entzuten ziren: *atsoak, atsoak!* Katalintxoneko eskaileretatik karrapera bi-hiru atso etortzen ziren eskobarekin eta makilekin... haiek lasterrak!». Gaztetan, berriz, astelehenean esketik etorri eta elkarrekin bazkaldu ondoren egoten zen parranda giroa «mundiala» izaten zela ere kontatu digu.

### Kaletarragoak

Orain inauteriak «kaletarragoak» iruditzen zaizkio: «pesta giro handiena larunbat gauean izanen da eta igande eguerdiko desfilean, parte-hartzailerik asko eta talde oso landuak izaten dira. Ikusle kopurua ere ikaragarria izaten da. Lehen astelehenean eta gero asteartean izaten zen girorik hoberena, orain asteburuan». Ez da aldaketa bakarra izan, lehengo trapu zaharrek erositako edo jositako jantzi apainetara egin diete eta tokia: «atsauretzeko modua asko aldatu da».

Badira, ordea, garai bateko ohiturak berpizteko ahaleginean ari direnak ere. Hala sortu zen, astearteko atsaure kalejira eta horrekin, bertakoak ziren atsaureak berreskuratzeke egin duten ahalegina txalotu nahi izan du: «saio oso interesgarria egiten ari dira. Bertakoa zen ohitura berreskuratu da eta atsaure oso bereziak agertzen dira. Ea indartzen den!».

Jose Luisek bere aldetik, segiko du inauterien alde bere aletxoak jartzen. Txistua joz, belarriak goxarazi, oinak dantzan jarri eta festa giroan etxez etxe, baserri baserri zabaltzen.

**erran.**  
eus

**KIDE**  
aholkularitza

· KONTABILITATEA · ERRENTA AITORPENAK  
· ZERGA · AHOLKULARITZA JURIDIKOA  
· AUTONOMOAK · NOMINAK, KONTRATUAK  
· ENPRESEN SORRERAK · ESKRITURAK TRAMITATZEA  
· AUTOEN TRANSFERENTZIA · HERENTZIAK  
· LOKALAREN SALEROSKETAK...

*ongi pasa ihoteak*

LEITZA: Landa Ind, Suizpi Eraikina 3 behe · T. 948 510 990 F. 948 510 429

DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5-2 · T. 943 420 348

info@kide.eus · izaskun@kide.eus · www.kide.eus



LEITZAKO UDALA



*ongi pasa ihoteak!*



**LANDA OSTATUA**

Hamaiketakoak, bazkariak, etab.  
Egin erreserba lhoteetarako!



948 51 06 07 · Elbarren, 14 31880 LEITZA



**PRIMI**  
ostatua

ongi pasa inauteriak!  
Tel. 948 634 052  
Goiko karrika, 7 · ARANTZA



Gasa ongi pasa inauteriak!  
Ura Kalefakzioa

**froling**  
Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

**PATXI MUTUBERRIA**  
ITURRIA  
Tel.: 686 23 52 30  
patximutu@hotmail.com  
ERAKUSKETA: Bidasoa, 45 - BERA

**ecoforest**  
markako pelletezko estufak

**PABLOENEA**

- KARTA
- MENUA
- PLATER KONBINATUAK
- BOKADILLOAK
- HANBURGESAK
- ETXeko POSTREAK

**www.pabloenea.com**  
Goiko kalea, 5 · ARANTZA · 948 634 077

ongi pasa inauteriak!

**A**

**aterpe**  
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA | [www.arantza.net](http://www.arantza.net)

Ostatua-jatetxea

**Burlada**

BOKATAK - PLATER KONBINATUAK - KARTA - MENUA

ongi pasa inauteriak!

**BEREZITASUNAK** Haragiak  
Arrainak  
Etxe Postreak

**MENU BEREZIAK** Taldeak  
Mendizaleak  
Jauñaritzeak  
Otorduak

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA  
[restauranteburlada@hotmail.com](mailto:restauranteburlada@hotmail.com)  
[www.restauranteburlada.com](http://www.restauranteburlada.com)

**Luis Ibarra**

GAUR EGUNERA EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK

ZURGIN-LANAK OROKORREAN  
**636 701 204**  
Salbatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)  
[ibarrazurgina@gmail.com](mailto:ibarrazurgina@gmail.com)

# arrantza



## egitaraua

### Otsailak 6, ortzeguna

**08:30ean** Mozorro Zurien gosaria Primi ostatuan. **Ondotik** eskolara bisita, bizkarrekoak edo puxka-puxkak paratzeko. **Segidan** bi taldetan banatuta Mozorro Zuriak lau baserri auzoetara joanen dira Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilariekin. **Egun osoan** baserriz baserri eskean ibiliko dira. Arratsaldean eskolan inauterietako besta. **Arratsean** Mozorro Zurien afaria Primi ostatuan.

### Otsailak 7, ortziralea

**09:00etan** Mozorro Zurien gosaria Primi ostatuan. **Ondotik** herrian barna eskean ibiliko dira. Eguerdian Mozorro Zurien bazkaria Burlada jatetxean. **Egun osoan** eskolako neska-mutikoak puxka-puxka ibiliko dira. **21:00etan** emakumeen afaria Pabloenean eta bertso afaria Aterpean Jexux Mari Irazu eta Miren Amuriza bertso-lariekin. **Afalondotik** Beñat eta Ferrandorekin dantzaldia Gorapean.

### Otsailak 8, larunbata

**Eguerdian** Mozorro Zurien bazkaria Pabloenea jatetxean. **17:00etan** haur, gazte eta heldu mozorrotuen kalejira eta bukatzean txokolate jatea. **Ondotik** herri kirol saioa izanen dute eta Mozorro Zuriak saldutako boletoen zozketa frontoian. **Arratsean** Mozorro Zurien afaria Ekaitza Elkartean eta **gauegaitik aitzinera** Oharkabe taldearekin dantzaldia Gorapean.

I.M.  
**RRIXKO**  
IGELTSERITZA

IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK  
661 735 052  
ARANTZA  
ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK





# «Herritarrek eta Mozorro Zuriak ongi pasatzeko hiru egun eder dira inauteriak»

**MARKEL JORAJURIA ELIZONDO**

**Arantzako Mozorro Zuria**



**M**arkel Jorajuria Elizondori (Arantza, 1994) bi aste baino ez zaizkio falta «urteko bestarik hoberenak» ailegatze-ko, armairutik zapia, atorra laukiduna eta galtza urdin zein zuriak atera eta soinean paratzeko. «Urte guzian inauterietarako ortzegunaren esperoan» egoten dela dio, «hainbertze adinetako jendea plazara ateratzeak berezi egiten dituzten inauteriak noiz ailegatuko diren esperoan».

Odolean daramatza inauteriak. «Ttikitatik» izan ditu gustuko eta haurra zenetik izan du gozatzeko aukera. Ez ditu atzenduak haurra zela, «ortzegunarekin, Mozorroei eskolan *puxka-puxkak* bizkarrean paratzen» zizkieteneko uneak, «guretzat kristorena» izaten baitzen. «Arratsaldean eskolan mozorrotoak ibiltzen ginen. Ortziralearekin, herrian barna kantari ibiltzen ginen eta larunbatarekin mozorroto eta Mozorro Beltzen aitzinean lasterka». Koskorragoa zela, 10-11 urterekin, baserriz baserri eskean ibiltzen hasi zen eskolako lagunekin: «hagitz oroitzapen onak ditut. Oinez ibiltzen ginen trikitixa eta panderetarekin, eta hori zen gehien gustatzen zitzaidana. Dantzan eta kantari ibiltzen ginen, Mozorro Zuriaren pare».

## **Mozorro Zuri izatea amets**

Mozorro Zuri izatea bertze salto bat izan zen. «Ttikitatik Mozorro Zuri ateratzearekin amestu» ondotik, 16

urterekin eman zuen pausoa, 2011n. Urte hartan «gazteena izanik lotsa eta errespetua» sentitu bazituen ere, «esperientzia polita» izan zela kontatu digu. Hasi bazen hasi, gustua ederki hartua dio: «geroztik ez dut batean ere hutsik egin». Bide beretik segitzekotan da, aurten hamargarren urtez Mozorro Zuri aterako baita. Ez digu onartu Mozorro Zuri denetik bestaz gain, bertzelakorik egin duen ala ez, baina haurra zela bere etxean Mozorroek egindakoa gogoan du: «gure etxean, eltzarian etxeko zapatila bat sartu zuten».

Mozorro Zuri atera ala ez inauteriak «aunitz» aldatzen omen dira: «Ortzegunetako baserrietako buelta eta ortzirale goiza galtzea hoberena galtzea da». Lehenbiziko eguna du gustukoena: «08:30erako Zakutenean denak inauteriak hasteko prest egoten gara». Han izanen da aurten ere. Hori ez du deusek galaraziko. Zinegotzi karguan lehenbiziko inauteriak izanen ditu, baina argi dio: «horrek ez ditu deusetan aldatuko; inauterietan ni Mozorro Zuri izanen naiz».

## **«Ortzegunetan baserriz baserri egiten den buelta eta ortzirale goiza galtzea inauteriek duten hoberena galtzea da»**

Hiru egunez besta betean ibili ondotik, «bukatzean pena» sentituko duela badaki, «betiko martxari segitu beharko», erran digu. «Bertze herrietako inauterietara» bisitaren bat edo bertze egiteaz gain, bere afizioei leku egiten die: «lagunartean trago batzuk hartuz arratsalde pasak egitera» aterako da, baita «futboleko jokatzera eta pilota partidaren bat ikustera joan eta ondotik besta eder bat egitera» ere. Baina gero gerokoak. Aurten inauteriak gozatzeko ditu oraindik eta horiek dira orain begiz joak dituenak. «Herritarrek eta Mozorro Zuriak ongi pasatzeko hiru egun eder» direnez, ez da etxean geldituko.



Enkarguak 948 634 156 · ARANTZA



## **ARANTZAKO UDALAK**

**inauteri zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei**





**Ttipi Txartela**rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**749** aleko  
irabazleak >



## ZOZKETAK

**Irrisarri Land - 2 sarrera**

Aintzane Juanikorena Hualde | ZUBIETA

**Okille tailerra - Eguzkilore bat**

Iraide Gutierrez Garcia | BERA

**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**

Lourdes Goñi Baleztena | DONEZTEBE

**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**

Estitxu Arretxea Rodriguez | SUNBILLA

**Onddo ta Punto - Kamiseta bat**

Martin Saralegi Goikoetxea | LEITZA

**Martiko - Lote bat**

Paula Legarda Martinez | ELIZONDO

**Lanku - Liburu bat**

Ana Etulain Altzuale | AMAIUR

**Lanku - Diska bat**

Patxi Jaurena Urrutia | URDAZUBI

**Lanku - DVD bat**

Amalia Gonzalez Iribarren | IRUÑEA

2 sarrera



**BKZ ABENTURA**

[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)

2 sarrera



**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)

2 sarrera



**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)



2 sarrera helduentzat

**BUATXABAL**

[www.buatxabal.com](http://www.buatxabal.com)



Kamiseta bat

**LESAKA**

[www.lesakakoudalkiroldegia.com](http://www.lesakakoudalkiroldegia.com)



2 sarrera

## LIBURUAK



- Katta - Eskolara
- Katta - Altxorra
- Leo - Sabanako Errege

**elkar**

[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)



[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



## Hainbat bertso saio ekarriko ditu gurera Bardoak ekimenak

Beran otsailaren 2an, Elgorriagan otsailaren 7an, eta Leitzan eta Lesakan otsailaren 14an izanen dira lehen faseko saioak

### TTIPI-TTAPA

Bardoak, Nafarroako taldeko bertso ekimenak, bosgarren edizioa izanen du aurtengoa. Urtarrilaren 31n hasi eta martxoaren 28ra arte, guztira 20 saio izanen ditu taldekako txapelketak. Finala Lizarran egingen da, eta lehiak harago, Nafarroako bertsolaritzaren eta euskal kulturaren festa handia izanen da.

Oraingoan, 96 parte-hartzaile izanen dira guztira, lau multzotan lehiatuko diren hamairu taldetan banatuak: bertsolariak, gai-jartzaileak, antola-



2018ko finalean leitzarrak nagusi.

tzaileak, sukaldariak... Helduak eta gazteak, herri batekoak eta bertzeakoak, beteranoak eta hasiberriak, Nafarroako bertso ekosistemarako hauspo eta elkargune izanen da Bardoak.

Kopuruek ongi erakusten dute Nafarroako bertso mugimenduen osasuna. Bertzelako gailurren oinarri dira Bertso Eskolak eta tokian tokiko plazak, eta oinarri hori sendoa dela erakusten du Bardoak egitasmoak.

### Hainbat saio eskualdean

Txapelketa urtarrilaren 31n abiatuko da Etxarrin, Larraunen eta Iturmendin egingen diren saioekin. Eskualdeko lehen saioa otsailaren 2an, igandean, 18:00etan egingen dute Berako Katakua ostatuan. Berako Lamixene taldea (Ainhoa Larretxea, Aitor Elexpuru, Ekhiñe Zapiain, Estitxu Uranga, Julen Zelaieta eta Patxi Castillo) eta Auritz-Hendaia-Lesakako Amortziaren eliobak (Aimar Karrika, Josu Txoperena, Kristiñe Txoperena eta Maddi Ane Txoperena) izanen dira aurrez aurre.

Otsailaren 7an Elgorriagan Bertsonautak (Alazne Untxalo,

Amaia Elizagoien, Egoitz Gorosterrazu, Maialen Belarra, Irati Agesta, Lierni Oteiza, Maialen Kamino, Iker Gorosterrazu eta Xabi Garraus) eta Larraunen artean eta otsailaren 14an Lesakan, Lesakako Arranopola (Ane Telletxea, Eneko Fernandez, Erika Lagoma, Estitxu Arozena, Etxahun Azkarraga, Iban Garro, Iratxe Muxika, Jon Silveira, Josu Sanjurjo, Lide Igoa, Ninbe Urtxegi eta Uxue Mesa) eta Barañaingo Bertsoipiztiak artean eta Leitzan, Leitzako Ateaberts komeni (Aitzol Eizmendi, Ander Fuentes *Itturri*, Ane Intxausti, Iñigo Gorostarzu, Joanes Illarregi, Migel Mari Elosegi *Luze*, Mikel Azpiroz *Txotxa* eta Xabat Illarregi) eta Barañaingo Hego Haizea taldearen artean izanen dira eskualdeko lehen faseko bertze saioak.

Otsailaren 29an Anizen eta martxoaren 14an Goizuetan egingen dituzte finalurrekoetako bi saio.



# bardoak

2020

Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa  
Urtarrilaren 31tik Martxoaren 28ra

## BERA

Otsailak 2 igandea.  
Katakua ostatuan, 18:00etan.

Lamixene  
(Bera)



Amortziaren eliobak  
(Auritz-Hendaia-Lesaka)



Antolatzailea



www.bertsozale.eus

Laguntzailea







Zubimuxu aterpetxea. UTZITAKOA

## Zubimuxu aterpetxea hartzeko deialdia egin du Udalak

Eskaintzak urtarrilaren 31ra arte aurkez daitezke eta bi urteko kontratua eskainiko diote kudeatzaileari

Zubimuxu aterpetxea kudeatzeko lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen berriro ere udalak abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran. Dagoeneko zabalik dago lizitazioa aurkezteko epea eta interesa dutenek hilaren 31ra arte egin ahal izanen dituzte eskaintzak Nafarroako Lizita-

zio Elektronikoen Plataformaren bidez.

Bi urteko kontratua eskainiko diote kudeatzaileari; ondoren, urtero luzatu ahal izanen da, hiru urtez, eta gehienez, bost urte bete arte. Aterpetxea errentan hartzen duenak urtero udalari ordaindu beharko dion kanon eko-

nomikoak zati finko bat izanen du, gutxienez 720 eurokoa eta gehienez 1.200 eurokoa BEZ barne; eta zati aldakor bat, erreserben diru-sarreraren ehuneko bostekoa izanen dena. Ondorioz, interesa dutenek urteko gutxienez 720 eurokoa (BEZ barne) den proposamena egin beharko dute, eta hori gorantz hobetu ahal izanen dute, gehienez ere 1.200 eurora arte.

Gainera, errentamendua ez da mugatuko instalazio horiek mantentzera eta aprobetxatzera; aterpetxearen eta udallerriaren publizitatea egin eta turismoa sustatzeko eta zabalteko plan bat egiteko ardua ere izanen du aterpetxea errentan hartuko duenak.

## Umore Onak bazkide egiteko epea zabaldu du

Umore Ona Elkarteko bazkide izan nahi dutenek otsailaren 8ra arte izanen dute elkartearen egoitzan izena emateko aukera. Bazkide egin nahi dutenek, Umore Onako kide diren bi bazkideren babesarekin beharko dute. Era berean, ordaindu beharreko zenbatekoak ere zehaztu dituzte eta adinaren arabera izanen dira. 25 urte edo gehiago dituztenek 510 euro edo 70 euroko kuota bat –lehendabiziko hilabetearen– eta 40 euroko hamaika ordaindu beharko dituzte; 25 urte baino guttiago dituztenek, berriz, 300 euro edo 25 euroko hamabi kuota. Martxoaren 7an izanen dute Umore Onako urteko batzarra eta bertan emanen diete oniritzia bazkide berriei. Gaur egun, 244 bazkide ditu Umore Ona Elkartek.

## Egur lotea eskatzeko epea zabalik

Egur loteak eskainiko ditu aurten ere udalak. Eskaera egiteko epea zabalik dago eta interesa dutenek udaletxean egin beharko dute eskaera otsailaren 14a baino lehen. Loteei buruzko informazio gehiago nahi duenak udaletxean galdetu dezake.

## Liburutegi ibiltaria martxan jarri nahi dute

Liburuz betetako furgoneta, horixe da liburutegi ibiltaria. Leitzaldeko herrietan proiektu hau jarri nahi dute martxan eta Leitzako liburutegia etorriko da egitasmoari buruzko azalpenak ematera. Otsailaren 7an, 19:00etan egingen dute bilera Goxalin.



UTZITAKOA

## Tifanitxo eraikina berritzen hasiak dira

Tifanitxo eraikina berritzeko lanak hasiak dira eta lan hauek aprobetxatuz, komun publikoa egingen da pilotarien aldagelak dauden tokian. Aspalditik datorren eskaera da komun publikoarena, eta udalak eskaera honi erantzuna emateko aukera ona ikusi du Tifanitxoko lanena.

## Mendi taldea sortzeko bilera urtarrilaren 22an

Mendi taldea osatzeko interesa azaldu da herritarren artean eta urtarrilaren 22an 19:00etan bilera egingen dute Udaletxean taldea martxan jartzeko. Denen artean zehaztuko dituzte taldearen funtzionamenduarekin lotutako xehetasunak. Bestalde, mendia eta kirolarekin lotuta, herriari izaten den hitzordu garrantzitsuenetako baten data jakinarazi dute. Goizutrail mendilasterketaren VII.edizioa maiatzaren 16an izanen da. Laster irekiko dute izena emateko epea.





Otsaileko feria antolatuta zuten pasa den urteko inauterietan Guraso Elkarteok. ARTXIBOA

## Hilabete bukaera eta hasiera inauteriekin lotuko dituzte

Herritar guztiei egin diete larunbatean mozorrotu eta karroza desfilean parte hartzeko gonbidapena

### TTIPI-TTAPA

Urtarriletik otsailerako saltoa mozorroa soinean dutela egingo dute aresoarrek. Urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean ospatuko dituzte inauteriak eta urteroko moduan Lagun Artekoek herri osoa dantzan jartzeko moduko egitaraua prestatu dute.

Eskolako haurrak, gurasoak eta irakasleak izango dira inauteri giroan sartzan aurrenekoak. 15:00etan haurrek eskolan prestatu duten mozorroa soinean jantzi eta kalejira egingo dute. Gero, merienda izango dute eta 17:30ean mu-

sikaizango da plazan. 18:00etan Lagun Artekoak herriko eskean aterako dira eta itzulia osatuz, dantzan eta giro ederrean ibiliko dira afalordura arte. Pake Toki elkarteak 21:30ean elkartuko dira afaltzeko.

Otsailaren 1ean, larunbatean, baserrietako eskean atera aurretik gosaria izango dute Lagun Artekoek. Indarrak hartu ondotik, koloretako blusak soinean dituztela baserrietako erronda hasiko dute. Aspaldiko ezagunak izango dituzte bidelagun, aurten ere Antton eta Beloki trikitilariak gonbidatu dituzte eguna gi-

rotzeko. Arratsaldera arte ibiliko dira eskean eta 17:30ean karroza desfilearekin bat egingo dute. Guraso Elkarteok ere giroan sartzeko bazkaria egitekoa dute aurten. Haurrak, helduak eta gazteak elkartuko dira desfilean. Herritar guztiak animatu eta karroza egitera gonbidatu dituzte: «urtero Lagun Artekoek eta Guraso Elkarteok egiten dituztenez gain, ea norbaitek ezustekoa eman eta karroza egiten duen». Gero, musika izango da plazan eta 21:00etan herri afaria. Sarrerakoak, zopa, oilasko errea patatekin, gazta eta iragasarra, kafea, pastak eta kopa izango dituzte afaritarako. Inauteriak borobiltzeko afalondoan mozorro lehiaketa egingo dute eta mozorrorik xeblebre edo ikusgarriena daramatenek saria izango dute. Gero, trikitilariak saioa izango dute eta hauek bukatzean musika eta festa izango da. Nahi duenak goizaldera arte luzatu ahal izango du festa.

### Emakume Taldearen hurrengo bilera otsailaren 11n

Azaroan sortu zuten Leitzaldeko Emakume Taldea eta hilean behin elkartzeko deia luzatu diete Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako 44 eta 55 urte arteko emakumeei. Urtarrilaren 14an egin zuten 2020ko aurreneko hitzordua eta bigarrena otsailaren 11n izanen dute. Leitzako Udaletxeko ludotekan elkartuko dira 17:00etatik 19:00etara. Lurralde berriak esploratzeko ataria eskaini nahi diete eskualdeko emakumeei. Taldean parte hartzeko ez da deus ordaindu beharko ezta izena eman beharko ere, agertzearekin aski da. Maiatzera bitarte, hilabetean behin elkartzekoak dira. Hurrengo deialdiak martxoaren 10ean, apirilaren 28an eta maiatzaren 26an izanen dituzte.

### Haur masaje tailerrak otsailaren 4an eta 18an

Zortzi hilabete bitarteko haurrentzat eta haien gurasoentzat edo zaintzaileentzat masaje tailerra antolatu dute Leitzan. Denera lau saio izanen dira, urtarrilaren 14an eta 21ean egin dituzte lehenbiziko biak eta otsailaren 4an eta 18an izanen dituzte hurrengoak. Udaletxeko lehenengo solairuan, bilduko dira 11:00etatik 12:00etara. Leitzan, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako tailerra da eta umeei masajeak egiten ikasi, beraiekin denboratxo bat gustura igaro eta bide batez, umeen zainketari eta heziketari buruzko gaiak, zalantzak eta kezak partekatzeko aukera eskaini nahi diete. Leitzako Osasun Etxeko erizain batek eta Gizarte Zerbitzuetako langile batek gidatuko dituzte saioak.

### Eguberrietako kantu eskean 365,05 euro bildu dituzte

Bildutako dirua gaixotasun arraro baten ondorioz behar bereziak dituen zonaldeko ume bati laguntzeko erabiliko dute. Guraso Elkarteok kideek eskerrak eman nahi dizkiete dirua eman zuten herritarrei baita kantuan ateraz ziren guztiei ere.

### Saneamenduari dagokion kuota kobratuko du udalak

Udalak saneamenduari dagokion urteko kuota kobratuko du otsailean. Kontua helbideratua ez dutenek borondatez ordaintzeko epea izango dute eta epea bukatuta, gainkostua izango dute. Azalpen gehiago nahi dituenak udaletxera jo dezake.

### Herri lanetarako langilea hartzeko deialdia oraindik ez

Udalak herri-lanetaz arduratzeko pertsona bat hartzeko lan-deialdia egiteko asmoa zuela aurreratu genuen pasaden urtean. Orain jakinarazi dute negu partean hainbeste lan izaten ez dela ikusita, deialdia atzeratu egingo dutela.



## Ilbeltzaren 24tik 28ra ospatuko dituzte inauteriak

Inauteri ondorena goxatzeko, Azken balea ikuskizuna antolatu dute ilbeltzaren 29rako

### TTIPI-TTAPA

Atsaureak, gurdiak, eskea... heldu da kolorea eta umorea. Ilbeltzaren 24an hasi eta 29ra arte, inauterien aitzakian, festarako gonbidapena egin dute (egitaraua gehigarri berezian). Igandeko gurdi desfileari begira, oharra ere kaleratu dute

antolatzaileek. Hainbat erakinetan egiten ari diren berri-tze-lanak tarteko, gurdiak industrialdetik abiatu eta Lopeneko biribilgunean emanen dute buelta. Gurdi handiak elkarren ondoan pasatzeko tarte handiagoa izateko Correos pareraino joan daitezke.

## Hainbat ekitaldi antolatu dituzte otsailerako Torrean

### TTIPI-TTAPA

Ilbeltzan, otsailean eta martxoan mugimendu izanen dute Torrean. Herriko musikariek ilbeltzaren 18an eskainitako kontzertuarekin hasi zuten programazioa eta hurrengo hitzordua inauterien bueltan izanen dute. Otsai-

laren leian berriz, Euskal Herriko Mus Txapelketako herriko finala jokatu dute. Martxora bitartean, garagardo tailerrak, antzerki saioa, garagardo festa eta erakusketa ere izanen dituzte. Hurrengo aldizkarian izanen dituzue xehetasun gehiago.



ATEKABELTZ HERRIGUNEAN

## Munduko ehun mural onenen artean

Kaleko artean espezializatua dagoen Streetart360 webguneak urtero osatzen du munduko ehun mural ederrenen zerrenda. 46. postuan kokatu dute Atekabeltzen Murales Lianek pasa den urteko ekainean egindakoa. Egunero goza dezakegun artelana!

## Marmari aldizkaria kalean da

### TTIPI-TTAPA


Marmari aldizkariaren 31. zenbakia etxez etxe banatua dute. Herriko errealitatearekin lotutako aldizkaria izaten saiatzen da Marmari, atzokoarekin bezala baita gaurkoarekin ere. Herriaz zer edo zer ikasten laguntzeko ariketatxoa, Leitzako berdintasun zerbitzua- ren eta Sastraka talde feministaren berri, Irati Zabaletaren argazkiak, Bittorio Lizarragak bertako hizkera adierazkorrari buruz egindako lanaren laburpena, Equoboley-ari buruzko erreportajea



Arnasa Gara egitasmoaren eta arnaguneen inguruko argibideak, Leitzako Herri Aretolari buruzkoak eta Leitzaketa mahai-jokoari buruzko aipamena bildu dituzte.

## Liburutegiaren antolaketa aldatu dute

Urte berriarekin liburutegia ere berrituta dator. Apalen norabidea aldatu dute eta liburu guztiak dantzan ibili eta gero, berriro ere dagokien tokian jarri dituzte. Animatu eta egin bueltatxoa liburutegitik aldaketak ikusteko.



UTZITAKOAN

## Lana, jokia eta festa pilotaren bueltan

Leitza, Araxes eta Larraungo pilota eskoletako pilotariek parte hartu zuten urtarrilaren 4an Leitzan jokaturako Mendialdeko lau terdiko txapelketan. Hitzordu bakarrean bilduta: lana, jokia eta festa. 85 pilotarik parte hartu zuten eta guztira 286 partidu jokatu zituzten.





Uxue Fraile, iazko irabazlea, Artxuetan gora. E.IRAOLA

# Euskal Herria Mendi Erronka ekainaren 6an izanen da

Webgune berria osatu dute, *ehmendierronka.eus*, eta hortik bertatik egin ahal izanen da izen-ematea

## TTIPI-TTAPA

Zortzigarren edizioa beteko du aurten Euskal Herria Mendi Erronka lasterketak. Ekainaren 6rako egin dute hitzordua eta lau hilabete lehenago, otsailaren 1ean, irekiko dute izena emateko epea. Maitzaren 16ra arte egonen da zabalik. Parte hartu nahi dutenek *ehmendierronka.eus* webgune berriaren bidez edo rocksport plataformaren bidez egin ahal dute izen-ematea.

## Bakarka edo erreleboka

Iaz bezala, bi modalitate izanen ditu lasterketak. Bakar-

kako lasterketa, 67 kilometro eta 7.200 metroko desnibel metatua izanen dituen traila eta errelebo-lasterketa. Iaz eskaini zuten estreinakoz bigarren aukera hau emakumeen parte-hartzea sustatzeko asmoz. Euskal Herria Mendi Erronka lasterketaren ibilbide berdina osatu beharko dute

## OTSAILAREN 1EAN IREKIKO DA PROBAN IZENA EMATEKO EPEA

lasterketa, baina bikoteka erreleboetan egin ahal izanen da, bietako batek, gutxienez, emakumea izan behar duela. Lehenengo lasterkariak irteera puntutik Putzuzarreko anoagunerainoko zatia egingen du. Putzuzarren erreleboa eman beharko dio bikoteari eta bigarren horrek Putzuzarretik Leitzaoko helmugaraino geratzen den zatia osatu beharko du.

## Tarifak

Apirilaren 4ra arte bakarka izena ematen dutenek 56 euro ordaindu beharko dituzte eta maiatzaren 16ra arte 66 euro. Erreleboka parte hartu nahi dutenek, berriz, 75 euro edo 85 euro. Aurten Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa bukatzen duten guztiek 3 puntu lortuko dituzte Ultra Trail Mont Blanc-en parte hartzeko. ITRArako ere puntuagarria izanen da EHME lasterketa.

## Lasterketa baino gehiago

Kirol ekitaldi hutsaz gain, aldarrikapena ere oinarrian daraman lasterketa da. Izan ere, mendi lasterketa eta euskal mendizaletasuna sustatzeaz gain, euskal selekzioen ofizialtasuna, Mendialdea-Aralarko inguruaren garapena (Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Leitzaaldea), euskararen sustapena, lurraldetasuna edo ingurugiroaren babesean eragitea ere hasieratik antolatzaileek euren buruari jarritako erronka bihurtu ziren.

## Kaxkabeltza Elkarteak banatu ditu sariak

Maria Bildarrazek irabazi du 500 euroko sari potoloa, 300 euroko saria Ainhoa Azpirozek eta 200 eurokoa Angeles Gas-tearenak. Ehun euroko erosketa-txartelak: Jaione Dominguez, Ainara Zubeldia, Mila Olano, Tomas Lasarte, Maria Zabaleta, Encarna Apezetxea, Onintza Bengoetxea, Joxe Alberto Ribera, Marian Olano eta Kris Aldunatek irabazi dituzte.

## Nortasun Agiria berritzeko aukera hilean behin herrian

Urtarrilaren 27an, otsailaren 20an, martxoaren 18an, apirilaren 21ean, maiatzaren 12an eta ekainaren 9an jarri dituzte hitzorduak. Txanda hartzeko 948 01 20 12 telefonora deitu behar da.

## Anikote kiroldegian bazkide egiteko kanpaina abian

Urtarrilean Anikote kiroldegiko bazkide egiten direnek ez dute sarrerako kuotarik ordaindu beharrik izanen. Deskontu baliatu ahal izateko baldintza bakarra urte betez bazkide izateko konpromisoa hartzea izanen da.



## PASSIVHAUSS ETXEAK LEITZAN

- Babesturiko etxebizitzaren salmenta zuzena.
- Hiru logelako azkeneko bi etxebizitzak salgai.

Informazioa eta erreserbak: 609 130 555





Jantzilo Erratzuko plazan erreko dute larunbat ilunabarrean. UTZITAKOIA

## Otsailaren 8an Gizakunde Arizkun eta Erratzun

Bazkaria, desfilea, Jantziloren epaiketa, afaria eta Euskadi eta Askatatzunda eta Azukre Beltxaranaren musika izanen dute

### TTIPI-TTAPA

Erratzuko Kultur Elkartek, Jo ala Jo Kultur Taldeak eta Baztango Talde Feministak elkarlanean antolatuta, Gizakunde Eguna izanen dute otsailaren 8an Arizkun eta Erratzun. 13:30ean bazkaria izanen dute eta mahai-inguruan lasai egon ondotik, 17:00etan desfilea

eginen dute Arizkundik Erratzurat. Erratzura ailegatzen direlarik, plazan Jantzilo epaitu eta erreko dute. 22:30 inguruan afaria eginen dute eta 00:00etatik aitzinerat nahi dutenek bestarako modua izanen dute Euskadi ta Askatatzunda eta Azukre Beltxaranaren eskutik.

## 'Emakumeak eta inauteak' solasaldia otsailaren 7an

### TTIPI-TTAPA

Talde Feministak eta Jo ala Jo Kultur Taldeak otsailaren 7rako, ortziralerako, *Emakumeak eta inauteak* izenpean solasaldia eta argazki erakusketa antolatu dituzte. Aitzpea Leizaolak gaiaren inguruko solasaldia eskainiko du eta

Gari Garaialdek bere argazki erakusketaren aurkezpen-solasaldia eginen du Arizkongo Gamioxarrean. Interesa dutenek eta aurkezpenera joan ezin dutenek izanen dute aukerarik. Izan ere, erakusketa larunbatean ere ikusi ahal izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## 'Viking Open Canyon' dokumentala

Xabier Mendikoa elizondoarrarekin batera, hamar lagunek Norwegian burututako espedizioa da Viking Open Canyon. Bertan hainbat arroila ireki zituzten eta espedizioaren nondik norakoak biltzen dituen dokumentala osatu dute taldekideek. Dokumentala urtarrilaren 10ean pantailaratu zuten.

**MARMOLES SOULE**  
www.marmolessoule.com  
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK  
PANTEONAK  
KANPOSANTUAK  
HARRI LANAK  
ESKULTURAK

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, S.L.**  
TALDEA DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

**ANZABAL**  
inmobiliaria

- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria  
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com





Hiru urte daramatza Udalak bertako abeltzainen artilea kudeatzen. ARTXIBOKOA

## Artiletik ongarria sortzeko proiektu pilotua bidean

Balleko Etxeak lankidetzaz hitzarmena sinatu du Azozko Vita Veris enpresarekin

### TTIPI-TTAPA

Udalak, Vita Veris enpresarekin batera, proiektu pilotu batean parte hartuko du, bailarako hondakin-artilea bioongarriak ekoizteko aprobeztatzeko. Ikerketa eta garapen zientifikoko proiektu aitzindari bat da, hondakin-artilea modu iraunkorrean kudeatzea eta bioongarri berri bat sortzea helburu duena, ekonomia zirkularra sustatuz.

Modu berean, Nafarroako nekazaritzako ustiatzietako materia organikoa hobetu nahi dute, eta proiektuan lortutako ezagutza artilearen ekoizleei helarazi, lehengai horren kudeaketan sar dezaten. Udalak hiru urte daramatza haraneko artilea kudeatzen eta ahalmen handiko produktua izan arren, nekez baloratzen da kudeatzaileen merkatuan.

### Ekonomia zirkularra sustatzeko eta klima aldaketaren aurka

Udalak lantegi bakarra topatu du produktu hori balorizatzeke. Caparrosoko instalazio bat da, gaur egun aukera bideragarri bakarra abeltzaintzat eta udalarentzat. Azken

urteetan, udalak hondakin-artilea kudeatu du, eta bere gain hartu du artilea Caparrosoko lantegira garraiatzeko kostua, konposta bihurtzeko.

Duela gutxi, udalak lankidetzaz proposamena jaso du Azozko Vita Veris enpresaren ikerketa eta garapen zientifikorako proiektu batean, hondar-artiletik abiatuta azpi produktu bat sortzeko. Proiektuaren xedea da teknika espezializatuak garatzea, edozein abeltzainen eskura jar daitezkeenak, artilea disolbatu eta nekazaritzarako erabiltzeko, hondakinen kudeaketa sustatuz, ekonomia zirkularren eta klima-aldaketaren aurka laguntzaren adibide argia.

Baztango hondar-artilea bioongarriak ekoizteko aprobeztatzeko proiektua Europar Batasuneko FEADER funtsekin finantzatzeko laguntzekin lotuta dago, Nafarroako Foru Komunitateko Landa Garapeneko programetarako, 2014/2020 eperako. *Proiektu pilotuetarako eta produktu, praktika, prozesu eta teknologia berriak garatzeko laguntzak dira.*



ARGAZKIAK ETA TESTUA: NEREA MORTALENA

## Fibrosi kistikoari buruz postal onenak

Nafarroako fibrosi kistikoaren aurkako elkarteak postal lehiaketa antolatu du lehen aldiz, Nafarroako ikasleei zuzendua. Lehendabiziko saria Anne Iturralde Zelaietak eskuratu du eta bigarren saria berriz, Enaitz Lazkano Urtizbereak, biak Arraiozko eskolakoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## 'Amico' antzerkia Arizkun Rocken alde

Ilbeltzaren 11n ikuskizun berezi bat izan zuten Arizkungo frontoian, Amico-ko lagunen eskutik. «Mila esker hau aitzinera eramateko zuen laguntza eman diguzuen guztiz gutzietei. Aitzinera segitzeko indarra ematen digu», diote Arizkun Rocketik.

**JON TAXIA**  
BAZTAN

**T. 619 568 444**



**6 plaza**  
**24 orduko zerbitzua**  
**Erosoa eta segurua**

Medikuarengana joateko, sagardotegira, egun pasak...





Bertaraten direnek ikusteko eta erosteko aukera izanen dute. ARTXIBOKOA

## Artisauen azokak egiteko datak zehaztuta daude

Martxotik irailera bitarteko azokak 10:00etatik 14:00etara izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Baztango artisauak eta Baztango Zaporeak elkarteak aurten Elizondon eginen dituzten artisauen azokak badute egun eta ordu zehatza. Lehendabizikoa urtarrilaren 4an egin zuten eta otsailaren 21ean indarberrituta itzuliko dira, mimoz egindako lanak erakusteko gogotsu.

### Martxotik aitzinera gehiago

Martxotik irailera bitarteko azokak 10:00etatik 14:00etara egonen dira ikusgai. Apirilaren 10ean eta 11n, Aste Santua

izaki, egun osoan bilduko dira. Maiatzaren 2an eta 16an, lehendabiziko eta hirugarren asteburuetan, izanen dituzte ondoko hitzorduak. Uda eta udazkeneko hilabeteetan hilerro zehaztu dituzte egunak: uztailaren 4an eta 18an; abuztuaren 1ean, 8an eta 22an (egun osoz); eta irailaren 5ean eta 12an. Urrian eta abenduan bertze bortz hitzordu aurreikusituzte eta horiek, urteko lehendabizikoa bezala, 11:00etatik 14:00etara eginen dituzte. Honakoak dira egunak: urriaren 10a eta 31 eta abenduaren 5a, 6a eta 19a.

## Euskal Nobela Beltzaren Astea azken txanpan da

### TTIPI-TTAPA

Euskal Nobela Beltzaren Astea azken txanpan da dagoeneko. Heldu den asteburuan boro-bilduko dute.

Larunbatean 11:00etan *Mundua Iturendik pasatu zenekoa* mahai-ingurua izanen dute Jon Alonso, Maribi Elizalde eta Eneko Bidegainekin Arizkunenean. 14:00etan Erratzuko elkarteak izanen dute hitzordua, bazkaltzeko bilduko dira. 16:00ean Alfontso Gartzandiak *Itsu kolpeka* eta Josu Barambonesek *Lardaska lanak* aurkeztuko dituzte. Susma-



Durrutiren erakusketa ere ikusgai da.

garrien gauarekin akituko dute Erratzuko egonaldia. Igandean 11:00etan Amaiurren itzuli beltza izanen dute eta 19:00etan Arizkunenean *Poesiaren kriminalak* errezitaldia.



JM ONDIKOL

## Oronoz-Mugairiko eliza berritu dute

Urte berria eliza zaharberritua estreinatuz hasi dute Oronoz-Mugairin. Alfonso Garcandia eta Ramon Apezetxea apezek eta Iruñeko artzapezpikua eta Tuterako apezpikua den Francisco Perezek eman zuten meza. Patxi Arrieta eta Valentina Aizeaga omendu zituzten.

## Elizondon ere Erregeen bisita izan zuten

Meltxor, Gaspar eta Baltasarren etorrerak gaztetxo eta heldu anitzen aurpegiak alaitu zituen Errege bezperan. Joare hotsek girotu zuten iluntzea eta erregeei aureskua ere dantzatu zieten.





# Ganbara hirukoak kontzertua emanen du Atarrabian

Yorrick Troman, Ion Irazoki eta Amaia Cordobak Arizkunenean eskaini zuten estreineko emanaldia 2019ko ekainean

## TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 31n Atarrabiako Kultur Etxean izanen da Baztanen sorturiko hirukote berezi honen kontzertua, 20:00etan. Yorrick Troman (bibolina), Ion Irazoki (txistua) eta Amaia Cordoba (pianoa) dira hirukotea osatzen dutenak. 2019ko ekainean Arizkunenean egin zuten estreineko emanaldi arrakastatsua.

Aita Donostia, Guridi, Olazaran, Ondarra, Gorosarri edo Sorozabal-en partiturak oinarri hartuta hirukoteak moldatutako obrak entzuteko eta



Troman, Cordoba eta Irazoki. UTZITAKOIA

doinu hauendako sortutako dantza ikusteko aukera ere izanen da. Sarrerak Atarrabiako Kultur Etxeko web orrian salgai (3 euro). Takillan erosiz gero, 4 euro.

## Hogei orduko hitano ikastaroa antolatu dute AEK euskaltegian

### TTIPI-TTAPA

Hiketan solastatzeko behar diren erramintak jaso eta Baztango hitanoaren zertzelada batzuk jasotzeko helburuarekin hitano ikastaroa antolatu du Baztango AEK euskaltegiak, Udalaren laguntzarekin. Otsailaren 5etik martxoaren 25era

eginen dute ikastaroa, asteazkenetan 18:00etatik 20:30era (zortzi saio). Prezioa: 56 euro. Izen-ematea eta informazioa euskaltegian bertan, 607 605 802 telefonora deituz edo [baztan@aek.eus](mailto:baztan@aek.eus) helbide elektronikoa. Urtarrilaren 30a izanen da apuntatzeko hondar eguna.

## Iruritako III. Mendi Duatloia maiatzaren 16an eginen dute

### TTIPI-TTAPA

Urte hasierarekin batera, prestda Iruritako Mendi Duatloia-aren hirugarren edizioa. Parte-hartzaileek 10 kilometro eta erdi egin beharko dituzte lasterka, 450 metroko desnibela duen tokian; bizikletan, berriz, 20 kilometroko buelta izanen

dute, 800 metroko desnibela duena. Laster [www.iruritakoduatloia.com](http://www.iruritakoduatloia.com) atarian informazio gehiago zabalduko dute eta izena eman nahi dutenek ez dute zain egon beharko, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atariaren bidez laster eman ahal izanen baita.

**AURREMATRIKULAZIO EPEA:**  
Otsailaren 3tik 7ra



**ELIZONDO**  
**ESKOLA PUBLIKOA**

**ATE IREKIAK**

Urtarrilaren 28, asteartea 17:00

*Denona, denontzat*



CPEIP Elizondo HLHIP | Erabeta karrika, 11  
31700 ELIZONDO | Tel: 948581808  
[cpelizon@educacion.navarra.es](mailto:cpelizon@educacion.navarra.es)

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua  
Gobierno de Navarra Departamento de Educación







30 lagun inguru bildu ziren batzarrean. ONDIKOL

## Elizondok 4.355,68 euroko superabita izan du 2019an

Urteko lehen batzarrean 30 bat herritarrek parte hartu zuten eta aurkeztutako kontuak onartu zituzten

### TTIPI-TTAPA

Errege egunean egin zuten lehendabiziko bilkuran Alazne Sansiñena alkatearen zuzendaritzapean, azken akta irakurri eta 2019ko kontuen berri eman zuten.

Iaz, Elizondok 128.043,14 euroko diru-sarrerak izan zituen, eta 123.687,46 euroko gastuak; beraz, 4.355,68 euroko superabitarekin itxi zuen urtea. Herriaren hasierako saldoa 37.167,57 eurokoa zela kontuan hartuta, 2019 akabailan 41.523,25 euro zituen.

Diru-sarrera nagusia herri-tarren kuota izan da (38.780,60

euro). Santiago bestetan 30.474 euro eta udazkeneko ferian 24.508,40 euro bildu zituzten.

Gasturik handiena Santiago bestetan egin dute (72.537,27 euro). Hilerrirako 10.996,20 euro; Orakunderako 6.923,81; Txokotoko bestetarako 6.296,97 euro; obra eta mantentze-lan batzuetan 4.691,41 euro; ferietan, 4.478,59 euro; aseguruak, zergak eta Gizarte-Segurantzian 3.813,18 euro; inauterietan 3.600,66 euro, eta Olentzero eta Errege egunetan 3.014,51 euro erabili zituzten.

Bertaratuek aurkeztutako kontuak onartu zituzten.

## Literatura beltza sustatzeko (H)ilbeltza beka deialdia egin dute laugarren aldiz

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, (H)ilbeltza elkarteak eta Txalaparta argitaletxeak elkarlanean euskal literatura beltza hedatu eta munduko literatura beltza euskaratzeko helburuarekin 2020ko (H)ilbeltza bekaren deialdia egin nahi dute.

Deialdi honetan itzulpena dalagunduko dutena eta zehazki Massimo Carlotto idazle italiarraren *Arrivederci amore, ciao* eleberraren. Parte hartu nahi duenak Carlottoen eleberraren lagin bat itzuli beharko du, *ilbeltza.eus* eta *baztan.eus* webguneetan izanen dena eskuragarri.

Beka 6.000 eurokoa izanen da eta bi zatitan emanen dute.

Laginak 2020ko martxoaren 6abaino lehen aurkeztu beharko dira Baztango Udaleko erregistroan eta ekainaren



Massimo Carlottoen lana itzulgai.

5ean jakinen da bekaren irabazlearen izena.

Epaimahaiko kideak Joseba Otondo Baztango alkatea; Txalaparta argitaletxearen ordezkaria, Garazi Arrula Ruiz; eta (H)ilbeltza elkarteak izendatutakoa, Josu Barambones izanen dira. Aurkeztutako itzulpenean kalitatea, aberastasuna eta sorburu-testuarekiko baliokidetzat baloratuko dituzte, baita sorburu-hizkuntzatik zuzenean itzultzea ere.

## Menopausia tailerra otsailaren 5ean eta 12an Elizondon

### TTIPI-TTAPA

Elizondoko osasun zentroan menopausiari buruzko tailer interesgarria izanen dute otsailaren. Lehendabiziko bi asteazkenetan, hilaren 5ean eta 12an bilduko dira. Bi egun 11:00etatik 13:30era bitarte elkartuko dira. Parte-hartzai-

leek zalantzak argitzeko eta gaiak gehiago jakiteko aukera izanen dute.

Ikastaroan izena eman edota horri buruzko informazio gehiago nahi dutenek osasun zentroan bertan galdetuz edo 948 58 18 32 telefonora deituz egin dezakete.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Drogeria · Garbiketa produktuak  
Ferreteria · Sukaldeko tresnak  
Mozorroak · Papertegia  
Kiroleko eta mendiko jantziak  
Moda · Oinetakoak  
Laneko arropa · Bitxiak  
Lurrin-denda  
Kosmetika, Elektronika  
Telefonoak · Poltsak eta maletak  
Etab.

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBATE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1  
31780 BERA  
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



# 'Bizi dantza' emanaldia Elizondon otsailaren 9an

Sarrerak Axular eta Fantxiken paratu dituzte salgai eta egun berean lehiatilan ere salduko dituzte

## TTIPI-TTAPA

Pirritx, Porrotx eta Marimotsek Elizondo bisitatu dute otsailaren 9an, bigarren igandean. Baztan pilotalekua izanen dute biltoki eta *Bizi dantza* emanaldia eskainiko dute. Gaztetxoendako hitzordua 11:00etan izanen da.



11:00etan, Baztan pilotalekuan.

## Sarrerak salgai

Baztan Ikastolako guraso elkarteak, Udalaren laguntzaz, antolaturiko emanaldira joan nahi dutenek sarrerak Axular eta Fantxiken eskuratu ahal dituzte. Urte bat edo bi urte

dituztenek bi euro ordaindu beharko dituzte; hiru urtetik goitikoek, berriz, zazpi. Egund berean, emanaldia hasi aitzinetik, lehiatilan ere salduko dituztela jakinarazi dute.

# Eusko txanponaz solasaldia otsailaren 5ean Elizondon

## TTIPI-TTAPA

Arras Baztan fundazioak antolatuta, *Tokiko txanpona, tokiko ekonomia bultzatzeko tresna. 'Eusko' txanponaren esperientzia* solasaldia izanen dute otsail hasieran Elizondon. Hilaren 5ean, lehendabiziko asteazkenean, zehaztu dute

hitzordua eta Euskal Moneta elkarteko lehendakariordea eta sortzaileetako bat den Xebax Christy izanen dute hitz-lari. Bertaratzen direnek euskoaren sorrera eta nondik norakoak ezagutuko dituzte. Arizkunenean elkartuko dira, iluntzean, 20:00etan.

# '666 Gaua' urtarriaren 25ean Baztango gaztetxean

## TTIPI-TTAPA

Baztango gaztetxea musikazaleen bilgune bihurtuko da heldu den larunbatean, urtarriaren 25ean. 20:00etatik aitzinera hasiko da mugimendua. Pintxoak dastatu bitartean, zintzurak bustitzeko aukera bikaina izanen dute.

21:00etatik aitzinera musika soinuek girotuko dute ingurua. Inertzia izanen da taularitzen lehendabizikoa. 22:00etan Hil norbait taldeak hartuko du lekukoa eta 23:00etako ZaKillen eta 00:00etako Torheiten emanaldiekin borobilduko dute gaua.

Erakutsi eta probexu aukerak!

## DESKONTUAK BAZTAN TTIPI TXARTELA

<p>2019-2021</p>	<p><b>FOTOMENA</b></p> <p><b>%10</b> DESKONTUA kopia digitaletan</p> <p>Santiago, 44   ELIZONDO T. 948 58 01 55</p>	<p><b>EZ</b></p> <p><b>%10</b> DESKONTUA produktuetan</p> <p>Santiago, 15   ELIZONDO T. 948 58 04 91</p>	<p><b>IPINGI</b></p> <p><b>10</b> DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Santiago, 122   ELIZONDO T. 948 58 09 39</p>	
<p><b>Gureaut TAILERRAK</b></p> <p><b>%10</b> DESKONTUA baterietan</p> <p>Zaldubia indus. B partz. 2. nabea   IRURITA T. 948 58 02 25</p>	<p><b>SANSIÑENA</b></p> <p><b>%5</b> DESKONTUA olio aldaketetan</p> <p>Santiago, 37   ELIZONDO T. 948 58 04 06</p>	<p><b>ALMACO BAZTAN</b></p> <p><b>%5 %10</b> DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan</p> <p>T. 948 58 01 04   ELIZONDO www.almacobaztan.com</p>	<p><b>begoviela</b></p> <p><b>%25</b> DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan <b>%10</b> DESKONTUA 10 saioko bonoetan</p> <p>Santiago, 14, 38   ELIZONDO T. 636 58 30 34</p>	<p><b>BIOK BAT TAILERRAK</b></p> <p><b>%15</b> DESKONTUA irenoetan</p> <p>Santiago, 85   ELIZONDO T. 948 58 08 98</p>
<p><b>Giltxaurdi</b></p> <p>Udal Kirit Instalazioa</p> <p><b>%5</b> DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonoz</p> <p>Giltxaurdi, 38   ELIZONDO T. 948 45 23 01</p>	<p><b>libros nafarpres</b></p> <p><b>%10</b> DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik</p> <p>Jaime Urrutia, 43   ELIZONDO T. 948 58 09 02</p>	<p><b>onegin</b></p> <p><b>%5</b> DESKONTUA kontsultetan</p> <p>Amalia Meoki T. 699 11 71 91 oneginelizondo@gmail.com   ELIZONDO</p>	<p><b>ARGIBEL PTIKA</b></p> <p><b>ESKAINTZA</b> Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan</p> <p>Santiago, 86   ELIZONDO T. 948 58 13 91</p>	<p><b>-POSTDA- ELBETE</b></p> <p><b>%10</b> DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari</p> <p>Karrikaundi, 2/g   ELBETE T. 948 58 15 19</p>





Florentino Goñi, Joseba Otondo, Marijo Garmendia eta Laura Andresena. JM ONDIKOL

## Etxebizitzen alokairuaren egoera aurkeztu dute

Inkestaren arabera, «gaur egun Baztanen etxebizitza duin batean bizitzeko eskubidea ez dago bermatua»

### TTIPI-TTAPA

Legearen arabera, pertsona guztiek etxebizitza duin batean bizitzeko eskubidea dugu, baina gaur egun hau ez da betetzen. Baztango Gizarte Zerbitzuetatik ezagutu ahal izan duten errealitatearen arabera, gaur egun, Baztanen etxebizitza duin batean bizitzeko eskubidea ez dago bermatua. Berriki, Udalak, Baztanen alokairuan bizi diren pertsonen zuzendutako inkesta bat zabaldu zuen. Jasotako testigantzen arabera, etxebizitza alokatzeko momentuan pertsonen «traba anitz» izaten dituzte: batetik, alokairurako bideratutako etxeen gabezia, bertetik, alokairuen gehiegizko prezioa eta, azkenik, alokatzeko momentuko trabak eta zailtasunak. Baztango etxebizitzaren alokairuaren egoeraren, diagnostikoaren eta erronken berri eman zute urtarilaren 9an Joseba Otondo alkateak, Marijo Garmendia eta Florentino Goñi zinegotziek eta Laura Andresena Gizarte Zerbitzuetako teknikariak.

Errentan hartzeko etxe gabeziari dagokionez, «etxe huts

ugari izanagatik errentan ematera bideratuak daudenak gutxi» direla aipatu dute. Hortaz, denbora anitz pasatzen dute etxebizitza ezin aurkituz eta, ondorioz, Baztanera bizitzera etorri berri diren pertsona anitz logelak partekatuz behartuak daude, etxe berean pertsona gehiegi bizitzera. Horren ondorioz, gazteek zailtasunak dituzte gurasoen etxetik joan nahi badute, ez baita erraza errentan hartzeko pisurik aurkitzea.

Etxebizitzen prezioari dagokionez, hilabetean 300 euro baino gutiago balio duen pisu bat aurkitzea «ezinezkoa» dela gaineratu dute. Prezioak 300 eta 500 euro bitartekoak dira. Familia gehienek hilabeteko diru-sarreraren %35 baino gehiago alokairua ordaintzeko erabiltzen dute eta, kostu honi bertzelako gastuak gehitu behar zaizkio. Bertzelako oinarritzko beharrak asetzeko margen gutirekin gelditzen dira familia ugari.

Azkenik, etxea aurkituz gero, «ezezaguna, atzerrikoa edo bertze etnia batekoa izanez gero, anitzetan ez zaie zuzenean etxea alokatzen» adierazi dute.

nean etxea alokatzen» adierazi dute.

### Etxebizitza eskubidea bermatzeko lanean

Gaur egun, etxebizitzaren eskubidea bermatzeko bidean, Baztanen hainbat baliabide indarrean daude eta martxan jarri dira. Alde batetik, alokairu poltsa dago, alokatzeko beharra duten pertsonen bertan izena eman behar dute eta alokatzea lortuz gero, errentaren arabera, dirulaguntzak onartzen dira. Horretaz gain, alokairuaren kostua mugatua da, metro kuadroko 5,30 eurora. Hartara, alokairuaren gehiegizko prezioak saihestea lortuko da.

Baina, horretarako poltsa horretan etxebizitzak egon behar dute, hau da, alokatu nahi duten etxebizitzaren jabeek beraien etxebizitzak poltsa horretan sartu behar dituzte. Etxeak poltsa horretan uztean, onurak bertzerik ez ditu. Bertzeak bertze, etxebizitzak Nabusinsa enpresa publikoak alokatzen ditu, errenta kontratua egiten dute, errenta garaiz eta hilero kobratzeko segurtasun osoa eskaintzen dute eta etxebizitza egoera onean itzuliko da kontratua akitzen denean.

Beraz, Baztango Udaleko eta Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak denen artean etxebizitza eskubidea bermatzeko deia egin dute: «jar dezagun bakoitzak gure alorretik zerbait egoera honi konponbide bat emateko».

## Sagardotegi sasoiak Larraldean ireki dute aurten

2015ean bezala, aurten ere Lekarozko Larraldean ireki dute Nafarroako Dolarea elkartearen sagardotegiaren txotx denboraldia ilbeltzaren 17an. Jakoba Errekondo izan zen kupela ireki eta lehen sagardoa dastatzeko ardura izan zuena, ekitaldi jendetsuan.

## Arraiozko mus kanporaketatik bikote finalera

Abendu hondarrean Arraiozko Zubiondo ostatuan jokatutako kanporaketatik bikote sailkatu ziren finalerako: batetik, Ivon Lerga eta Mikel Garbalena; eta bertetik, Edurne Santesteban eta Xabier Mihura. Lerro hauen bidez zorionak eta zorte on lauri finalerako.

## 'Aurrepirinioetatik Europako gailurrera' bideo emanaldia

Itxusi argazki elkarteak antolatuta, Ibai Iturria beratarren eskutik, *Aurrepirinioetatik Europako gailurrera* bideo emanaldia izanen dute otsailaren 2an, lehendabiziko igandean, Elizondon. Arizkunenea kultur etxean zehaztu dute hitzordua eta, iluntzean, 19:00 aldera, bilduko dira.



Ibai Iturria beratarra. ARTXIBOKOA





Atxuria mendi taldea urteko azkeneko ibilaldian, Larungo kaskoan. KORO

## Urteko mendi ibilaldien berri eman du Atxuria taldeak

Hilabeteko laugarren igandean egingen dituzte, baina ibeltzekoa egin dute dagoeneko Lesakako San Antonera

### MARIFA ETA KORO

Atxuria mendi taldeak jakitera eman du 2020erako beraien ibilaldien zerrenda. Normalean, hilabeteko laugarren igandean egiten dituzte ateraldiak. Hauxe da: San Anton (urtarrilaren 19an joatekoak ziren); Bera-Manttala-Ibardin (otsaila); Zugarramurdi-Urdazubi (martxo); Erreniaga mendia (apirila); Baldorba (maiatza); Xareta eguna (ekai-

na); Sara-Ibardin (iraila); Baztango ermitak (urria); Zugarramurdi-Bera (azaroa); Larun (abendua).

Mendi taldearen lehen ibilaldia 1998. urtean egin zuten Elizondora. Hasmentan jende aunitz mugitzen zen ibilaldi hauen inguruan 20-25 bat lagun ibiltzera, eta 30-35 bat lagun ondotik antolatzen zen bazkarirat. Denboraren poderioz taldea ttikitu da.



Pottoka bidearen marka zaharra eta berriak, Etxelekuko bidegurutzean. KORO

## Pottokaren Bideko seinaleak berri eta nabarmenagoak egin dituzte

### MARIFA ETA KORO

Xaretako herriak oinez, zaldiz edo bizikletaz lotzen dituen Pottoka bidea markatzen duten seinaleak berri zizuten gan den hilabetean. Bideari izaera ematen dion irudia (pottoka urdina) mantenduz, oraingoak nabarmenagoak egin dituzte, koadro txuri ba-

tean sartuz. Orain errazago ikusten dira eta ez dago galbiderik.

Aitzinetik bertze saiakera bat izan zen, paretetan eta harrietan pintatu beharrean, zuzeko letreroetan emanez, baina zoritxarrez guti iraun zuten, jendeak eramaten baitzuten.

## Herriko bertz jatetxeetatik bi bakarrik daude irekiak urte hasiera honetan

### TTIPI-TTAPA

Herrian bertz jatetxe genituen berriki arte eta Aste Sainduan eta uda partean, batez ere, denen beharra izaten zen bisitarietako zerbitzua emateko.

Orain, ordea, bi bakarrik daude irekirik urte lehenbiziko aste hauetan. Horieta-

ko bi, gainera, erabat hetsi dituzte (Altzatenea azaroan, eta Herriko Etxea urte hasieran), eta Azketakoak bakan-tzetan daude, urte berriari indarrez ekiteko aitzinerago.

Beraz, Kattalin eta Graxiana ditugu egunotan otordueta-rako aukera bakarrak.

**ORBELA**  
SENDERSMOA ATERPETXEA  
BEINTZAKO OSTATUA  
Idoia - Mikel  
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
www.orbela-beintza.com

  
744 484 361  
ttipi-ttapa

**VENTA PEIO**  
GEHIAGO EMATEN DIZU

<b>BERA</b> (administraritza) 31780 Bera	<b>BEHOBIA</b> 20305 Iruñ	<b>DANTXARINEA</b> 31712 Urdax	<b>LUZAIDE</b> 31660 Luzaide
---	------------------------------	-----------------------------------	---------------------------------

**EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE**  
\*Abenduaren 25<sup>a</sup> eta urtarrilaren 1<sup>a</sup> izan ezik

Landibar

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com



## Etxeko haurtzainen bitartekaritzako gunea ireki dute

Senpere, Ainhua eta Sarako etxeko haurtzain eta gurasoek laguntza izanen dute Senpereko 'Hiru irri' gunean

### PIERRE BASTRES

Hiru Irri etxeko haurtzainen bitartekaritzako gunea ireki dute Senperen urtarrilaren 6an. Herrikoekin batera, Ainhua eta Sarako etxeko haurtzain eta gurasoek laguntza atsemaiten ahalko dute toki honetan. Herri horietako herriko haurtzaindegiez gainerat, etxeko 38 haurtzaindegi badira orotarar: 31 Senperen, sei Saran eta bat Ainhoan.

Gehien bat, haurtzain horiek bakarrik aritzen dira, bakoitza bere aldean, eta geroz eta ageriagoa zen lotura gehiago behar zela sortu.


### Lotura beharra

Martine Arancet gizarteaz arduratzen den hautetsia da Senpereko Herriko Etxean, eta egitura berri hauen helburuak zehazten ditu: «Badira bi urte gogoetan ari garela, zeren eta alde batetik haurtzain frango etortzen zitzaizkigun galdezka, adibidez gela baten beharra zutela haurrei animazioak egiteko noizean behin, batez ere neguan, haurrekin nekez jostatzen ahal baita kanpoan.

Aipatzen zuten parada ona izan zitekeelalanbide berekoen artean mintzatzeko. Bertzaldetik, gurasoengandik ere galdea bazen, jakiteko norenganat jo behar zuten haurtzain bat aurkitzeko».

### Gurasoen galderak

«Honenbertez –dio hautesiak– aritu izan gara bertze herriekin xedea gauzatzeko. Laguntza mota ainitz proposatzen diegu haurtzainei, edo etxeko haurtzaindegi bat sortu nahi dutenendako: profesionalen arteko lanaz mintzatzea eta honetaz aberastea, aholkuak eta dokumentazio profesionala ematen ahal dizkie Camille Alzereda gure tokiko animatzaileak. Halaber, paper lanak eta baimena prozedurak segitzeko eta ulertzeko jakin-beharrak aurki ditza-kete. Ez da ahantzi behar guraso eta haurrendako ere sortu dugula Hiru Irri». Aran-cetek oroitarazi duenez, «etxeko haurtzain bat nola enplegatu jakin duten aita eta amek beren galderak egiten ahalko dituzte». Gainerat haurtzai-



Etxeko haurtzaindegi batean, bi ume jolasean. PIERRE BASTRES



## ETXEKO 38 HAURTZAINDEGI BADIRA SENPERE, AINHOA ETA SARAN

nekin zuzenenan mintzaterik ukanen dute. Astelehen eta asteartetan atek zabaltzen ditugu, 09:00etatik 11:00etarat, Denen etxean. «Galdegina izan zitzagun bezala, animazioak eginen dituzte elkarretaraten direnen artean, haurrak jolastarazteko», jakinarazi digu hautesiak.

Asteazkenetan, ordea, laguntza administratiboa emanen dute postaren gainean 09:00etatik 13:00etarat.

## Hatsa elkartean 'Argi'hitz'kiak' ikusgai izan dira Irunen

### TTIPI-TTAPA

Hatsa Elkarte orain dela 30 urte jaio zen Senperen helburu argi batekin: «Poesiaren munduan, artistiko espresioaren bitartez norberak bere burua ezagutzea». Urtero poema bilduma bat ere argitaratzen du Hatsak, elkarteko ki-

deen lanekin. Urteko bilduman agertzen zen olerki bakoitzaren zati baten inguruan argazkia egin eta horiekin erakusketak bat osatzen ere hasi ziren duela hiruzpalau urte. 2019ko lanen inguruan egindakoa ikusgai egon da Irunen urtarrilaren 8tik 19ra.



Hatsa elkarteko Auxtín Zamora Irungo erakusketan. UTZITAKO ARGAZKIA





Jone Zelaieta beratarrak Sara Korrika Trail lasterketan. PIERRE EZKURRA

## Aurten ere bi mendi lasterketa martxo hondarrean

Martxoaren 28 eta 29ko bi lasterketetan izena emateko epea dagoeneko zabaldu du Sara Korrika taldeak

### TTIPI-TTAPA

Iragan urteko arrakasta errepikatze gogoz, aurten ere bi lasterketekin borobildu nahi dute martxo hondarreko asetburua. Sara Korrika taldeak antolatuta, alde batetik, martxoaren 29an, aurten hamabosgarren aldiz Sarako Korrika Trail mendi lasterketa egingen dute, eta horrez gain, bezperan, hirunakakoa. Iragan urtean egin zuten taldekakoa estreinakoz, taldeak 20 urte bete zituelako eta aurten berriz egitea erabaki dute.

### Izen-ematea

Bi lasterketan izena emateko epea zabalik da Internet bidez ([www.sarakorrika.com](http://www.sarakorrika.com)). Bi kasuetan 18 urtetik goitiko kirolariek parte hartzen ahaliko dute. Taldekako lasterketan, hirutik batek gutienez emakumezkoa izan beharko du eta taldeko 47 euro ordaindu beharko dituzte. Gehienezehun talde onartuko dituzte.

22 kilometroko luzera eta 1.600 metroko desnibela duen mendi lasterketan, lasterkariak 25 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko eta gehienez

650 lagunek izanen dute parte hartzeko aukera.

### Martxoak 28, errelebo lasterketa

Lasterketa 12:00etan hasiko da. Errelebo aldaketak Xabalon egingen dituzte eta han izanen da hornidura puntua. Plazatik abiatzen den lasterkariak 830 metroko malda duen 11 kilometroko ibilbidea egin beharko du; bigarrenak 900 metroko malda duen 11 kilometroko itzulia eta hirugarrenak 550 metroko malda duen 9,5 kilometroko buelta. 19:00etan sari banaketa egingen dute eta 20:00etan afaria.

### Martxoak 29, 22 kilometroko banakako lasterketa

07:30ean plazan dortsalak banatu ondotik, 09:00etan lasterketa plazatik abiatuko da. Lizuniagatik pasatzeko -13 km- gehienez bi ordu eta 45 minutu izanen dituzte lasterkariak. 10:45 aldera lehenbizikoak ailegatuko direla espero dute eta 13:00etan sari banaketaz gain, opariak banatuko dituzte. Jatekoa eta edatekoa ere izanen da.

## Otsailaren 15a arte jende kontaketa egiten ibiliko dira sei lagun

### GANEX

Urtarrilaren 16az geroztik sei lagun herritar kopuruaren kontaketa egiten ari dira eta halaxe ariko dira otsailaren 15a arte. Nicolas Etxenic, Sandrine Etxegarai, Paula Rego, Udane Larretxea, Haize Arribilla eta Maritxu Leizagoien

dira ardura hartu dutenak eta Herriko Etxetik ongi errezibitze eta xehetasunak ongi emateko eskatu diete herritarrei. Azken kontaketa goiti egin du biztanleriak Saran: 2000tik 2018rako tartean, 2.193tik 2.667ra igo zen herritar kopurua (%21,6 gehiago).



GANEX

## Mariluz eta Etxeberri txapeldun

Fin dabilta Julien Mariluz eta Unai Etxeberri pilotariak. Hazparden 40-24ko emaitzarekin Noizbait taldeko pilotarien kontra irabazi zuten Frantziako txapela irabaziz. Ez da eskuratu dute txapel bakarria izan zen, Euskal ligan ere txapeldun izan baitira.



GURE IRRATIA

## Bertso bazkaria giro ederrean

40 bat lagun bildu ziren iragan urtarrilaren 12an Gure Irratiak antolatuta Urtxola jatetxean egindako bertso bazkarian. Joan den urteko bertso afarian baino jende gutiago bildu bazen ere, jateko goxoa lagun, giro ederrean joan zen Sarako 4ko Plasara eta Baxenabarreko Eskukula taldeen arteko bertso saioa.





Nafarroako lehen Discgolf txapelketako eta Irrisarriko Eguberrietako I. Openaren podioa. UTZITAKO ARGAZKIA

## Elgorriaga eta Ibarrola dira lehen discgolf txapeldunak

Nafarroako lehen txapelketa jokatu zen abenduaren 29an Irrisarri Land parkean, Baxi Basajaun elkarteak antolatua

### TTIPI-TTAPA IGANTZI

Baxi Basajauna elkarteak Nafarroako lehen discgolf txapelketa antolatua zuen abenduaren 29an Igantziko Irrisarri Land parkean eta, hain zuzen, elkarte horretako bi jokalaria, Joxe Elgorriaga lesa-

karra eta Mikel Ibarrola donoztebarra suertatu dira Nafarroako lehen txapeldunak kirol-modalitate berri honetan, *recreational* eta MP40 mailetan, hurrenez hurren.

Eguberrietako I. open txapelketa ere jokatu zuten. Ho-

netan, Recreational mailan, Oviedo DiscGolf Club taldeko Xurde Menendez nagusitu zen, Luis Menendez taldeki-dearen eta Bilbao DiscGolf Clubeko Jon Hedreiraren aitzinetik. Junior mailan, Bilbao DiscGolf Club taldeko Ismael Seoane eta Baxi Basajauna elkarteko Nora Rouget nagusitu ziren.

*CTP Close To Pin* txapelketa ere jokatu zuten, hau da, jaurtiketa bakarrean 70 metrora zegoen saskitik hurbilen zeinek jaurti diskoa. Honetan, Xurde Menendez izan zen irabazle.

*Putters* txapelketan, Oviedoko Luis Menendez izan zen irabazle.



Joxe Elgorriaga lehiatzen.

## Aurten gehiago

Joan den urte hondarrean lehen txapelketa ofiziala antolatua eta Nafarroako lehen txapeldunak ezagutu ondok, hasi berri den urtean discgolf kirola ezagutzera ematen eta hedatzen segitu nahi du Baxi Basajauna elkarteak Irrisarri. Honela, Nafarroako Discgolf eskola sortu nahi dute udaberrian. 6 urtetik hasi eta 90 urte bitarteko jendeak parte hartzen ahal du, baina batez ere ikasle eta gazteei zuzendua. Klase teknikoa eta teorikoa eskainiko dituzte. Ekainean Euskal Herriko I. Discgolf txapelketa antolatuko dute eta udazkenean, Nafarroako bigarren txapelketa. Enpresen arteko txapelketa ere prestatu nahi dute.

## Martxoaren 8an egingen den Lesakako II. Mendi Lasterketan eman daiteke izena

### TTIPI-TTAPA LESAKA

Martxoaren 8an egingen dute Beti Gazte elkarteak antolatutako Lesakako II. Mendi Lasterketa. Igandean 10:00etan abiatuko da 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela duen lasterketa nagusia Plaza Zaharretik eta, hamar minutu beranduago, 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako lasterketa, 7 kilometro luze eta 300 metroko desnibela duena.

Ibilbide luzekoek Frain (455 metro) eta Unanue (650 metro) igo beharko dituzte plazan

helmugaratu baino lehen eta gazteak, Frainera igo ondok, zuzenean jautsiko dira herri-ara.

Izen-ematea martxoaren 3ra bitarte egin daiteke [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) webgunean. Ibilbide luzeak 16 euro ordaindu beharko da (13 euro Beti Gazteko bazkideek) eta egunean bertan eginez gero, 20 euro denentzat. Ibilbide laburrerako zazpi euro ordaindu beharko dute, hamar euro probaren egunean. Bi probak kontuan hartuta, gehienez 350 kirolarik parte har dezakete.



Idoia Maritxalar lesakarra nagusitu zen iaz emakumeen artean. A. AROTZENA

Joan den urtean egin zen Lesakako Mendi Lasterketaren lehen edizioa eta, 89 korrikalariren artean, ibilbide luzean Joxe Amunarriz hondarribarra (1.11.15) eta Idoia Maritxalar lesakarra (1.45.32) na-

gusitu ziren. Gazte Trail lasterketan, Mattin Lekuona lesakarra (30.33) eta Urrietako Ana Otaegi (35.22) izan ziren bizkorrenak. Taldeka Erlaitz izan zen bizkorrena, eta Beti Gazte bigarren.





Euskal Herriko 680 kiloko txapelketako podioan, Beti Gazte, Zuraide A eta Goiherri. MAXIXATZEN

# Zortzinaka ere urteko lehen txapela jantzi du Beti Gaztek

Euskal Herriko sokatira txapeldun izan da 680 kilotan eta orain bertze kategoriatan ari dira neskak eta mutilak

## TTIPI-TTAPA LESAKA

Euskal Herriko zortzinakako goma gaineko sokatira txapelketa Azkoitin abiatu zen urtarrilaren 11n. Gizonezkoen 680 kilotan zortzi talde aurkeztu ziren eta, jardunaldi bakarerra, Lesakako Beti Gazteko

zortzikoteak erraz irabazi zuen. Tiraldi guztiak bereganatu zituen, nagusitasun handiz eta lehen txapela jantzi zuen, pisu handienekoa.

Beti Gazteko zortzikotean, Karmelo Mitxelena, Joxe Angel Mitxelena, Mikel Apeztegia,

Oskar Telletxea, Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Eneko Saldias eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Paskual Taberna eta Unai Gurrutxaga laguntzaile zizutela.

Beti Gazteko emakumeek ere 540 kiloko lehen jardunaldia jokatu zuten Azkoitin eta nagusi izan ziren. Kategorია honetako hirugarren eta hondar jardunaldia urtarrilaren 25ean jokatu dute Idiazabalena (Gipuzkoa). Bertze pisuetan ere ari dira Beti Gazteko neska-mutilak otsailaren 16a arte, Irlandako Letterkenny hirian otsailaren 20tik 23ra jokatu den Munduko txapelketa begiz jota.

## Ezkurra memorialean izena emateko epea zabalik da

### TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Doneztebe Erreka elkarteak hogeita hamargarren aldiz antolatutako Josetxo Ezkurra Memorialeko pilota txapelketan izena emateko epea zabaldu du. Eskuz banaka eta lau eta erdiaren barrenean jokatu den txapelketan, benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior mailako pilotariek eman dezakete izena otsailaren 16ra bitarte.

Horretarako, [salaa@gmail.com](mailto:salaa@gmail.com) helbide elektronikora idatzi behar da eta izen emateko orrian, telefono zenbaki bat eta posta elektronikoko helbide bat adierazi beharko dira.

Txapelketa martxoaren 8an hasiko da eta maiatzean edo ekainean jokatu dituzte finalak. Maila guztietan txapelketa irekia izanen da, kategoria bakoitzeko 32 pilotari onartuko dituzte eta kanporaketa moduan jokatu dute. Igande goizez jokatu dituzte partidak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Salaberria anaiak txapeldun Zubirin

Zubiriko pilota txapelketako finalak jokatu zituzten urtarrilaren 4an. Kimu edo alebin mailan, Goizuetako Umore Onako Markel eta Julen Salaberria anaiak suertatu ziren txapeldun, Ultzamako Mindegia eta Aldazi 18-14 irabazita. Argazkian, txapela eta sariekin ageri dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Saioa Jaurena Espainiako selekzioarekin

Espainiako Errugbi Federazioak Nafarroako hiru jokalaririk deitu ditu, tartean Saioa Jaurena baztandarra, Espainiak Eskoziaren aurka Almerian urtarrilaren 19an jokatu duen partidarako. Espainiako selekzioak 2021ean Zeelanda Berrian jokatu den Munduko txapelketarako sailkatzea du helburu.



## URTARRILAK 23 - OTSAILAK 6

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

### HITZALDIAK

#### ELIZONDO

##### Quentin Tarantinoren mesanotxeo liburuak

Arizkunenean, ilbeltzaren 24an, 19:00etan.

##### 'Poesiaren kriminalak'

Arizkunenean, ilbeltzaren 26an, 19:00etan.

##### 'Tokiko txanpona, tokiko ekonomia bultzatzeko tresna. 'Eusko' txanponaren esperientzia'

Arizkunenean, otsailaren 5ean, 20:00etan.

#### GOIZUETA

##### Mendi taldea osatzeko bilera

Udaletxean, urtarrilaren 22an, 19:00etan.

##### Liburutegi ibiltariari buruzko azalpen bilera

Goxalin, urtarrilaren 31n, 19:00etan.

#### ETXALAR

##### 'Familiatik prebenitzen' ikastaroa

Urtarrilaren 23an, 17:00etan.

#### LESAKA

##### 'Zazpiak bat'

Udaletxeko Batzar Aretoan, urtarrilaren 24an, 19:00etan.

#### ERRATZU

##### 'Itsu kolpeka' eta 'Lardaska' liburuen aurkezpena

Elkartean, ilbeltzaren 25ean, 16:00etan.

#### ARIZKUN

##### 'Emakumeak eta inauteak'

Gamiozarrean, otsailaren 7an.

#### LEITZA

##### Emakume taldearen bilera

Udaletxean, otsailaren 11n, 17:00etan.



ARTXIBOKOA

### ESKUALDEA Bardoak

Otsailaren 2an Beran; hilaren 7an Elgorriagan; eta otsailaren 14an Leitzaan.

### IKUSKIZUNAK

#### ETXALAR

##### 'Qué coño está pasando' dokumentala

Kultur etxean, urtarrilaren 24an, 18:30ean.

#### LEITZA

##### 'Azken balea'

Eskolan, urtarrilaren 29an, 17:00etan.

#### LESAKA

##### 'Zizelkariak' dokumentala

Harriondoan, urtarrilaren 26an, 18:00etan.

##### 'Ballerina'

Harriondoan, otsailaren 2an, 16:30ean.

#### BERA

##### Ipuin-kontalaria

Liburutegian, urtarrilaren 31n, 18:00etan.

##### 'Ezinezkoen logika'

Kultur etxean, otsailaren 2an,

18:00etan. Sarrera: 4 euro.

#### ELIZONDO

##### 'Aurrepirinioetatik Europako gailurrera'

Arizkunenean, otsailaren 2an, 19:00etan.

##### Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Baztan pilotalekuan, otsailaren 9an, 11:00etan. Sarrerak: 7 euro (3 urtetik beheitikoe bi euro).

### TAILERRA

#### LEITZA

##### Haur masaje tailerra

Udaletxean, otsailaren 4an eta 18an, 11:00etan.

#### ELIZONDO

##### Menopausia tailerra

Otsailaren 5ean eta 12an.

##### Hika ikastaroa

Euskaltegian, martxoaren 25era, asteazkenetan, 18:00etatik 20:30era.

### BERTSOA

#### BERA

##### Bardoak

Kataku ostatuan, otsailaren 2an, 18:00etan.

#### ELGORRIAGA

##### Bardoak

Otsailaren 7an.

#### LEITZA

##### Bardoak

Otsailaren 14an.

### KONTZERTUAK

#### ELIZONDO

##### 666 Gaua

Gaztetxean, ilbeltzaren 25ean, 21:00etatik aitzinera.

#### BERA

##### Txistu entzunaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 27an, 18:00etan.

#### LEITZA

##### Los Zopilotes Txirriaos

Otsailaren 8an.

### ERAKUSKETA

#### ELIZONDO

##### Bereterretxeren kanthoria

Arizkunenean, ilbeltzaren 26ra arte, 17:00etatik 20:00etara.

#### ARIZKUN

##### Argazki erakusketa

Gamiozarrean, otsailaren 7tik 8ra.

### AZOKAK

#### BERA

##### Bertako produktuen azoka

Beralandetan, bigarren larunbatean, 10:30etik 13:30era.





ARTXIBOKOA

**BERA Txistu entzunaldia**

*Isidro Fagoaga udal musika eskolan, urtarrilaren 27an, astelehenean, 18:00etan.*

**INAUTERIAK**

**LEITZA**  
**Inauteriak**

*Ilbeltzaren 24tik 29ra.*

**SUNBILLA**  
**Inauteriak**

*Ilbeltzaren 23tik 26ra.*

**ITUREN**  
**Inauteriak**

*Urtarrilaren 27an.*

**ZUBIETA**  
**Inauteriak**

*Urtarrilaren 28an.*

**ARESO**  
**Inauteriak**

*Urtarrilaren 31tik otsailaren 1era.*

**ARANTZA**  
**Inauteriak**

*Otsailaren 6tik 8ra.*

**URROZ**  
**Inauteriak**

*Otsailaren 7an eta 8an.*

**ARIZKUN-ERRATZU**  
**Inauteriak**

*Otsailaren 8an.*

**BEINTZA-LABAIEN**  
**Inauteriak**

*Otsailaren 14an eta 15ean.*

**IGANTZI**  
**Inauteriak**

*Otsailaren 14ean eta 15ean.*

**OIZ**  
**Inauteriak**

*Otsailaren 15ean.*

**LEHIAKETAK**

**IRURITA**  
**Euskal Herriko XII. mus txapelketako kanporaketa**

*Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, urtarrilaren 24an, 20:00etan.*

**LEITZA**  
**Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa**

*Torrean, otsailaren 1ean.*

Nire aukera

«Herritarrok urte guztia inauterien esperoan egoten gara»

AINARA ALTZURI AURTIZKO GAZTEA

Astegunez ikasi, asteburutan lan eta inauterietan jai egiten du Ainara Altzurik (Aurtiz, 2001): «Iruñean ikasten ari naiz eta asteburuetan Elizondoko zahar-etxean lan egiten dut». Ederki merezitako gozamena dira inauteriak aurtiztararentzat: «herritarrok urte guztia egun horien esperoan egoten gara. Batez ere astelehen eta asteartea egun bereziak dira guretzat». Dagoeneko, gibelera kontua hasia du, «aurpegia tapatu eta jendea zirikatze» gogotsu dago. Astelehenean, indarrak hartzeko elkartean egiten duten gosariaren ondotik, «joaldunak eta akordeoilariak lagun», etxez etxe puskak biltzen ibiliko da. Segidan, «isil-isilik» mozorroa jantziko



du, «aurpegia tapatuz, inork ez ezagutzeko». Plazan harat eta honat, bata eta bertzea zirikatuz ibilita, berriz ere mahaia izaten du bilgune: «bazkaldu eta bestarekin segitzeko tenorea izaten da eta». Asteartean zubietarrei bisita bueltatzeko eguna izaten dute: «mozorroak ikustera joanen gara». Joaldunak eta mozorroak dira ikusleek gehien

bistaratzen dituzten inauterietako osagaiak, baina horien giblean bada bertze berezitasun bat eta Altzurik ederki azaldu du hori: «gaztetan sartu nintzen urteko oroitzapen ederrak ditut, ordura arte mozorroa kendu eta etxera joaten nintzen. Gainontzeko momentuak ez nituen bizi eta horiek ezagutzea ederra izan da». Otorduak egin eta besta luzatzeak, bertzeak bertze, inguruko herritarrekin denbora gehiago egoteko aukera eman dio: «iluntzetan hiru herrietakoak nahasten gara, elkartasun hori ederra da». Egun handiak pasatuta, larunbatari begira hasiko dira: «zaharren afaria egiten dugu eta hori ere inauterietako momentu berezietako bat da». Ordura arte ez da nekerik, ezta etxean gelditzeko aitzakiarik ere. Geldirik ez egotearen ondorioak inauteriak akitzean ailegaten dira: «orduak bai, gorputzak atsedena eskatzen du». Gutxi aski dute, berehala indarberritu eta inguruko herrietara joateko prest izaten dira: «Arantza, Sunbilla, Doneztebe...». Bere-berea duen umoreak eta janzten duen mozorroak ez dute hutsik egiten eta «ederki» pasatzen dute guztietan.



## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

**BERA.** Etxea salgai. 3.500 m<sup>2</sup>ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Lehenbiziko solairuan, erdigunean kokatua, Altzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukaldia estreinatu gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎608 77 79 26.

#### ERRENTAN EMATEKO



**ETXALAR.** Larrapil-Sarriku auzoan, etxea errentan emateko. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldia eta garajearekin. Bista ederrak. ☎687 76 69 71 / 672 15 31 96.

**LESAKA.** Lagun batentzat logela errentan emateko. ☎678 85 50 56.

**DONEZTEBE.** Etxebizitza errentan emateko, naturaren erdian. Berogailua. Parkinga. Terraza. 100 m<sup>2</sup>. 50 euroko fidantza eta 500 euroko hilabeteko kuota. ☎698 51 15 25.

#### EROSI

Baserría, etxea, borda, errota... erosi nahi dute. Berdin dio zein den egoera eta zein tokia. Eskura ordainduko dute. ☎693 69 48 76.

#### ERRENTAN HARTZEKO

**DONEZTEBE.** Pertsona bat pisu bila. Epe luzerako. ☎600 64 34 60.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Eiltzetako plazan, lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎636 84 75 10.

**LESAKA.** Antoiu ostatua errentan emateko. ☎640 58 02 46 / 640 69 30 83.

**BERA.** Iparralde karrikako 1. zenbakian 40 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala errentan emateko. Komuna dutxa eta guzti. ☎608 77 79 26.

### LURRAK/ORUBEAK

#### EROSI

Nafarroako edozein tokitan, **30.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua** erosi nahi dute, berdin du maldan baldin bada ere. 1.000 m<sup>2</sup>ko nabea eraikitzeko; 5.000 oilo librean ibiltzeko. Saltzailearen-

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta [ERRAN.EUS](http://ERRAN.EUS) webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

tzat lanpostu bat ziurtatua. Eskura ordainduko dute. ☎698 51 15 25.

### LANA

#### ESKAINTZAK

**DANTXARINEA.** Maspormenosen lanerako jendea behar dute egun osoz aritzeko. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendiakoak, lasterketetakoak, kanpoko jardueretarako... Bidali curriculuma: [info@maspormenos.net](mailto:info@maspormenos.net). Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute.

**LESAKA.** Iturbena kafetegian zerbitzaria behar dute orduka lan egiteko, lanaldi erdian. ☎620 70 09 64 / 661 84 50 53.

**ZUGARRAMURDI.** Ostatu batean sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dituzte. ☎948 59 90 82 (goizez).

**DONEZTEBE.** Titi ostatuan sukaldaria behar dute. ☎948 45 02 71.

#### ESKARIAK

Neska bat lan bila. Adinekoak zaintzeko edo garbiketan aritzeko prest. ☎674 82 25 83.

Adinduak zaintzen esperientzia duen pertsona langilea lan bila. ☎642 83 84 97.

Interna gisa aritzeko lan bila: adinekoak edo haurrak zaintzeko prest. ☎631 12 52 73.

Esperientzia duen gizona lan bila. Eraikuntzan, animaliak zaintzen eta margolari gisa ibilia. Edozein lanetan aritzeko prest. ☎644 54 22 13.

Pertsona adinduak zaintzeko prest. Interna edo externa moduan aritzeko, esperientzia duena. ☎651 96 35 55.

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak: €/kg kanal**

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

**Urruxak: €/kg kanal**

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

#### Aretze ttiak

- (15 egun ingurukoak).

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 140,00
- Idixkoak 200,00

#### Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

#### ZALDI-AZIENDAK

**Zaldikoak: €/kg**

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

#### ARDI-AZIENDAK

**Bildotsak**

- 6-8 kilokoak: 8,30/8,90
- 8-10 kilokoak: 7,00/7,50

#### ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea (19 kilo): 73 €**  
**Zerri gizona 1,508 €**  
**Zerramak 0,900€ kg/bizirik**

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (urtarrilaren 3tik 10era bitarteko prezioak)

Interna moduan aritzeko lan bila, esperientzia duena. ☎631 12 52 73.

Adinekoak zaintzen esperientziaduna lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzeko prest. ☎634 65 82 81.

**Bortzirietako emakume euskalduna** Bortzirietan adinekoak edo haurrak zaintzeko prest. ☎650 40 79 78.

### ZERBITZUAK

#### ZURGINDEGIAK

## ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA  
647 810 144 · 626 093 181

### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO

**LEITZA.** Collie arrazako bi txakurkume oparitzeko, 3 hilabete ingurukoak. Oso politak. ☎948 61 06 89 / 636 02 23 11.

#### SALGAI

**GOIZUETA.** 20 ardi eta aharia salgai. ☎690 05 09 03.

### MOTORRAK

#### SALGAI



**Mercedes 200** autoa salgai. 400.000 km. Gasolina. 1.100 euro. ☎629 56 19 01.

### DENETARIK

#### SALEROSKETAK



**Bi ate beiradun** salgai (725 mm x 2025 mm x 35 mm). Binilozko zuri lakatua. Estreinatu gabeak eta burdindegirik gabe. Banaka ere eros daitezke. ☎688 62 65 72 / 639 47 43 53.



**AVIA**  
www.doneztebe.com

**E.S. SANTESTEBAN**  
Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

**KOTXE GARBITEGIA**  
*ShineTecs®*

**FURGONETA GARBITEGIA**  
2,60 m

**“KONPONTZE EFEKTUA”**  
duen pintura babeslearekin

> “Acrylonic” formula patentatua. Argizaria baino hobea.  
> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean  
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

**2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!**

**Sampi Aragón**

  
**FORD KA**  
12.100 € - Finantzatua

  
**FORD ECOSPORT**  
19.400 € - Finantzatua

  
**FORD FIESTA**  
15.300 € - Finantzatua

**DONEZTEBE | 948 450 354**  
administracion@aincar.com - www.aincar.com

**KATEA BIKE**  
2. eskuko bizikletak

  
400€

  
400€

  
1.500€

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
www.kateabike.com



**Binilozko lurzorua** salgai, zokaloa eta isolatzailea barne. Guztira 10 kaxa eta kaxa bakoitzeko zortzi lama (1,66m<sup>2</sup> kaxako). Ikatz kolorekoak. Neurriak: 17,1 cm x 121,2 cm. Lodiera: 5 mm-07mm. ☎688 62 65 72 / 639 47 43 53.

**GANIX**  
Tailorra


  
948 63 06 69  
Zalain Pol., 11 . BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan

**Transportes Otxangoko plaza** salgai. ☎608 82 60 08 / 628 87 42 91.


**GALDU-AURKITUAK**  
**BERA.** Kotxeko giltzak galdu dira, urtarrilean. ☎655 09 90 20.

## IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen ditugu hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak>



**Enaitz Agesta**  
**Petirenak** 7 urte bete ditu abenduaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama, Izarne arreba eta Berako aitabiren partetik.



Igantziako **Jon Aranguren Irigoienek** 7 urte bete ditu urtarrilaren 14an. Zorionak eta muxu pila bat Haizea, bi amatxi eta gurasoen partetik. Aunitz urtez!!!



**Eñaut Bidart Zabalena** Leitzako terre-motoak ibeltzaren 17an 8 urte bete ditu. Zorionak! Segi beti bezain bihurri. Muxu erraldoi bat! Osaba Jon eta Maitane.



Leitzako **Jare, Nahia eta Maddi Olano Garmendiak** 5 urte bete dituzte ibeltzaren 19an. Muxu handi bana etxeokoen partetik!



Lesakako **Hegoi Zelaieta Urrizak** 6 urte bete ditu urtarrilaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat atxa, ama eta Unaxen partetik!



Arriaizko **Aiora Arraztoa Agerreberek** urtarrilaren 22an 7 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guziaren partetik, eta berexiki Oinatz eta Urko anaien partetik! 7 muxu pottolo!



Goizuetako **Eila Larralde Arotzenak** 7 urte beteko ditu ibeltzaren 31n. Zorionak politta eta muxu handi bat familiaren partetik!

## BERAKO UDALA

### UDAL PLANEKO LURZORU URBANIZAEZINEKO ARAUEN 10. ETA 18. ARTIKULUEN ALDAKETA HASIERA BATEZ ONESTEA

Berako Udaleko Osoko Bilkurak, 2019ko abenduaren 18an hartutako akordioaren bitartez, erabaki zuen Udala Planeko hirigintzako antolamendu xehakatu determinazioak aldatzeko espedientea, zehazki lurzorua urbanizaezineko arauen 10. eta 18. artikulua, hasiera batean onestea eta espedientea jendaurrean jartzea hilaibeteko epean, dagokion iragarkia NAOn argitara ematen denetik hasita.

Iragarkia argitaratu da 2020/01/14ko NAOn (8. zenbakia).

Bera, 2020-01-14 | ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña



HERIOTZAK

- **Anna Suhit**, Sarakoa, abenduren 20an, 90 urte zituela.
- **Marie Therese Berekotxea**, Sarakoa, abenduren 24an, 82 urte zituela.
- **Marie Ayez**, Sarakoa, urtarrilaren 2an, 80 urte zituela.
- **Beatriz Iribarren Irigoien**, Amaiurkoa, urtarrilaren 3an, 98 urte zituela.
- **Pakita Otxotorena Borges**, Almandozkoa, urtarrilaren 4an, 101 urte zituela.
- **Martin Ospital Apezetxe**, Erratzukoa, urtarrilaren 5ean, 81 urte zituela.
- **Mª Mercedes Oskoz Almandoz**, Igantzikoa, urtarrilaren 7an, 91 urte zituela.
- **Agustin Baleztena Albistur**, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 8an, 85 urte zituela.
- **Mª Teresa Alzuguren Matxikote**, Berakoa, urtarrilaren 9an, 60 urte zituela.
- **Juan Jose Lasheras Calvillo**, Arizkungoa, urtarrilaren 10ean, 84 urte zituela.
- **Mª Teresa Sagaseta Sagaseta**, Doneztebekoa, urtarrilaren 10ean, 75 urte zituela.
- **Jose Antonio Altzu Juanikorena**, Iturengoa, urtarrilaren 11n, 65 urte zituela.
- **Mª Dolores Maritorea Pozzy**, Elizondokoa, urtarrilaren 11n, 97 urte zituela.
- **Xabier Taberna Telletxea**, Igantzikoa, urtarrilaren 11n, 19 urte zituela.
- **Angelines Lozano Dominguez**, Berakoa, urtarrilaren 12an, 84 urte zituela.
- **Tomas Pellejero Lazkano**, Aresokoa, urtarrilaren 13an, 85 urte zituela.

SORTZEAK

- **Oihan Fernandez Aranbillet**, Doneztebekoa, abenduaren 1ean.
- **Arid Gabriel Ortez Mendoza**, Doneztebekoa, abenduaren 23an.
- **Xuban Iureta Goñi**, Elizondokoa, urtarrilaren 7an.
- **Lizar Eskudero Almandoz**, Arantzakoa, urtarrilaren 12an.

EZKONTZAK

- **Jabier Jorajuria Eizagirre** eta **Aroia Badiola Arratibel**, Sunbillakoa eta Lazkaokoa, urtarrilaren 11n Sunbillan.

**IRACHE**  
tanatorioak  
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)  
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

ESKER ONA

*Une gogor hauetan gurekin egon zareten guztiei, eta min handia ttikitzen lagundu gaituzuen horiei bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu. Gure bihotzean betirako egonen zara.*



**Jesús María Zelaieta Ganbarte**  
LESAKA 1944-07-16 / 2019-12-14

**ESKELAK JARTZEKO** edo **OROIGARRIAK EGITEKO:**  
948 63 54 58 edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**  
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €  
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



**BEILATOKIAK**  
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,  
Bertizaranan eta Malerrekan

Hurbiltasuna eta begirunea

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
ADU, A TU LADO

T. 948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**BB**

BAZTAN BIDASOA  
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBEN Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50  
365 EGUN | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

Betiko taldea zu laguntzeka



## KONTATU KONTUAK



**Lisboarako bidaia.** Larun Haizpe Berako merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkarteak Lisboa joateko lau eguneko bidaia zozketatu zuen urte hasieran bezeroen artean eta Igantziko Juankar Unanua izan da bi laguntzako bidaiaren irabazlea.



**Magoa Etxalarren.** Etxalarren Errege egunean ohitura bihurtuta den txokolatadaz gain, aurten gonbidatu berezia ere izan zuten: Maksim magoa. 60 haur eta 30 helduak ahozabalik utzi zituen bere saioarekin.



**Jon Makazaga Otxandorena bigarren Euskal Herrikoan.** Motor gainean, enduro modalitatean, Euskal Herriko Txapelketan bigarren postua eskuratu zuen joan den urtean goizuetarrak. Txapelketaren barrenean, hainbat lasterketa jokatu zituen joan den urtean, eta urte bukaeran, karrera bakoitzeko puntuazioa batuta, bera izan zen bigarren sailkatu zena.



**Iruñeko literatur lehiaketak sarituak.** Eskualdeko hainbat idazle saritu dituzte Iruñeko Udaleko Egile Berrientzako Euskarazko XXIX. Literatur Lehiaketan. Iban Garro lesakarrak *Geroxeago itzuliko naiz* lanarekin poesian eta Eneko Fernandez lesakarrak *Belaunaldi galdua* lanarekin bertso-paperetan lehenbiziko sariak jaso zituzten abenduaren 23ko sari-emate ekitaldian. Ez ziren eskualdeko saritu bakarrak izan. Narrazio laburrean Maddi Ane Txoperena lesakarrak aipamen berezia jaso zuen *Utzi ninduzun egunean* lanarekin eta bertso-paperetan Joanes Illarregi leitzarrak bigarren saria eskuratu zuen 5 euro izeneko lanarekin eta Esteban Arozena goizuetarrak hirugarren saria *Garai beltzen kronika arrosa* bertso sortarekin. Garrok eta Fernandezek Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak gogoan zituen kamiseta soinean hartu zuten saria Enrique Maia Iruñeko alkatearen eskutik.



**21 bikote Goizuetako mus txapelketan.** Ohiturari eutsiz, urtezahar egunean, mus txapelketa arrakastatsua jokatu zuten Goizuetan, Umore Ona elkarteak antolatuta. Iazko arrakastaren bidetik, 21 bikotek parte hartu zuten eta horien artean, Patxi Arozena eta Manolo Lejarreta izan ziren garaile (100 euro eta opariak); bigarren Xanti Albistur eta Jesus Mari Mitxelena (50 euro eta oparia); hirugarren Oihan eta Aimar Zugarramurdi (opariak) eta laugarren Itsaso Lujanbio eta Nekane Elizalde (opariak).



**Martin arrantzalea Beran barna.** Berako Mikel Elizondok ur-zozo baten aski irudi ederrak hartu zituen joan den astean Zia errekan, arrantzan ari zela (ikus [ERRAN.EUSEN](#)). Baina ez zen eguneko bere irudi eder bakarra izan. Argazkian ageri den martin arrantzalea Berako Errekalde ostatuko aulki baten gainean ikusi zuen, kafetxo bat edo trago bat hartzeko prest akaso...



MARIPURTZIL

PELLOZIRI



# PLAZAN BAZAN

## MARRAZTU

Urtarrila edo negua gogorarazten dizun zerbait.

**INTERNETEN ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)






Txatal edo puska hauetatik erdiak iruditik hartuta daude eta beste erdiak engainagarriak dira, hau da, arras antzekoak badira ere, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



## ITZALA

"Ilbeltzeko hotzak leizera daramatza hartzak" dio esaera zaharrak, eta hartz honek ere bide hori bera hartu duela dirudi. Aurki ezazu bere itzal ona, alboko zortzi hauen artean.



Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)





# Bortzirietako eskola publikoak

Ricardo Baroja IP (Bera)  
Landagain IP (Etxalar)  
Irain IP (Lesaka)  
Toki Ona BHI (Bera)  
Arantza IP  
Igantzi IP

**AURREMATRIKULAZIO EPEA:**  
Haur eta Lehen Hezkuntza:  
**otsailaren 3tik 7ra**

DBH, Batxilergo eta  
Lanbide Heziketa:  
**datak zehaztear daude**



**ARANTZA: HERRI ESKOLA**  
T. 948 634 104  
**Arantzako Herri Eskola**

<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/arantzaherrieskola/>



**ETXALAR: LANDAGAIN ESKOLA**  
T. 948 635 215



**BERA: RICARDO BAROJA E.P.**  
T. 948 625 019  
[www.ricardobarojaeskola.net](http://www.ricardobarojaeskola.net)



**BERA: TOKI ONA INSTITUTUA**  
T. 848 431 710  
[iestokiona.educacion.navarra.es](http://iestokiona.educacion.navarra.es)



**IGANTZI: HERRI ESKOLA**  
T. 948 637 829



**LESAKA: IRAIN E.P.**  
T. 948 638 006  
[irain.educacion.navarra.es/web](http://irain.educacion.navarra.es/web)

**GURE HERRIKO HIZKUNTZA ETA KULTURA BULTZATUZ | DOAN | INTEGRATZAILEA  
JANTOKI ETA GARRAIO ZERBITZUAREKIN | TEKNOLOGI BERRIEZ BALIATUTA  
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA HERRI ESKOLETAN | DBH, BATXILERGOAK ETA LH. BERTAKO INSTITUTUAN  
2 URTETIK 20 URTE ARTEKO KALITATEZKO IRAKASKUNTZA JARRAIA, ELKARLANEAN ETA KOORDINATUA**